

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-03-02
EGUBAKOITZA
499. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

EAJk herri kontsultak eskatu ditu




Bergaran egin zuten agerraldia. | T.X.

Atez atekoak bilketaren prezioa hirukoiztu egin dezakeela salatu dute jeltzaleek | 4

Jone Elortza sokatiralariak munduko txapelketa irabazi du Badaiotzekin | 19



Aretxabaletan 9,5 milioi euroko aurrekontua onartu dute | 22



Izen-ematea zabalik dago Arrasateko Takarran lasterketarako | 14

Etxean konposta egiteko kanpaina abiarazi dute | 5



Isaias Carrasco gogoan izango dute domekan Arrasaten | 5

"Gobernatzeko modu eta kultura berriak sustatu gura ditugu"

MIKEL BIAIN Oñatiko alkatea Goiena telebistako 'HARIRA' saioan | 20



SINADURAK

- MANU ARREGI | 6
- 6 | TXOMIN MADINA
- AITZIBER AZKONDO | 17
- 26 | ANDER ELORTONDO
- AGURNE BARRUSO | 40



Iker Elortza, Espainiako Kopako finalera

Arrasateko gazteak Ampo Ordizia errugbi taldean dihardu eta apirilean Palentziara joango da taldearekin, Kopako finala jokatuzera. Ligan ere aurreko postuengatik lehian dabilta, eta asteburuan Madrilen jokatuko dute. | 28

Elortza kontrarioen artetik pasatu nahian, finalerako sailkatzeko Gernikaren kontra jokatutako partidu erabakigarrian. | JAVI COLMENERO

Gaueko guardia guztiak Arrasaten izateak ez die lanean eragin farmazialariei



Urte hasiera ezker beste guardia sistema bat dago Debagoiengan | 2

Limited Edition Denak batean

Mondeo guztien ekipamendua, batean.

FORD MONDEO LIMITED EDITION GIZAKI-MAKINA INTERFAZEAREKIN 19.450€ - REN TRUKE.

Mondeo gamma, kontsumo mistoa 4,3-8,0 l/100 km. CO2 igoerak 114-179 g/km.

MUGARRI AUTOAK

Araba etorbidea, z/g. ARRASATE

Ford Go Further

Bidegurutzean, farmaziek euren burua berritzen dihardute

- ▶ Farmazien gaineko aplikazio aitzindaria garatu dute
- ▶ Gaueko guardiak Arrasaten zentralizatu dituzte
- ▶ Krisiak kezkatzen ditu, baina oraingoz ondo dabilta

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Gipuzkoa osoan, eta Debagoienean ere bai, oraindik farmaziaren sektorea txukun dabil krisiari eta garai aldaketari aurre egiten, eta hain justu horrela izaten jarrai dezan ziurtatzeko, farmaziek bere burua berritzeko estrategia hartu dute. Hala, joan den egunetan aurkeztu dute poltsikoko telefonorako aplikazio berri bat, Gipuzkoako edozein lekutan gaudela ze farmazia dagoen zabalik, eta non dagoen jakiteko, soilik telefonoari eraginda. Aplikazio hori deskargatzeko lau modu daude: <http://m.cofgipuzkoa> helbidera joanda, telefonoaren nabigatzailean; informazio triptikoetan eta farmazietan ipini dituzten txar-teletan dagoen QR edo NFC kodea irakurrita; norberaren telefonoaren sistema eragilearen deskarga-zerbitzuetatik; eta SMS baten FARMA hitza 215800 zenbakira bidalita, dagozkion tarifekin.

Aplikazioak telefonoa GPS bidez kokatu, eta inguruan dauden farmaziak erakutsi eta non dauden esaten du, baita aukeraturako farmaziaren gaineko datuak ere. Bestalde, Gipuzkoako farmazien zerrenda eta gau eta eguneko guardiak erakusten ditu.

Gipuzkoako Sendagaigileen Elkargoak (GSE), kolegioak, Batura Mobile Solutions enpresarekin batera egin du aplikazio hori. Gipuzkoako farmazialarien kolegioak, modu aitzindarian, 2007an aurkeztu zuen honako aplikazioaren aurrekoa, orduko telefononendako, eta hura eguneratu egin dute orain.

GSEk apustu garbia egin du berritasunaren eta balio erantsiaren alde, eta hori erabakigarria da sektore guztiei eragiten dien krisi garai baten. Izan ere, GSEko presidentek, Angel Garai bergararrak, hauxe azpimarratu zuen aurkezpenean: "Helburua

herritarrei farmazietatik ahalik eta zerbitzurik onena ematea da. Honetarako, zerbitzu hauetara eta sendagaietara heltzea errazteko erronka garbia egin dugu".

Gauekoak, Arrasaten

Horrekin batera, berria da oraindik Debagoieneko gaueko guardiak Arrasaten izatea, eta ez Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan (Bergaran larrialdietako mediku zerbitzua badagoenez, hango farmaziek ohi bezala egiten dituzte gaueko guardiak). Urtea hastearrekin bat egin zuten aldaketa hori, Osasun Sailburuordetzak horrela erabakita. Farmazialariek gogorarazten dutenez, gaueko guardiak

larrialdi zerbitzu bat dira, eta medikuak emandako errezetarekin joan behar da norbera. Larrialdiko zerbitzu medikua Arrasaten dagoenez, gaueko farmazia ere hantxe dago. Zortzi farmazia daude, eta gauero bat dago zabalik, txandaka.

Kontuan hartu behar da, bestalde, larrialdiak 22:00etatik 09:00etara direla; hau da, gaurditik 09:00ak arte, aurreko egunerako iragarritako farmaziara jo beharko dugu. Horrez gain, dagokion argi-seinalea isiotuta izango du farmazia horrek.

Aldaketa txikia igarri dute Arrasateko farmazialariek, Azkoaga farmaziako titular Alberto Azkoaga kolegiatuak dioskun



Arrasateko farmazia bat. | LEIRE KORTABARRIA

DATUA

281

FARMAZIA

Gipuzkoan 281 farmazia daude, eta 937 kolegiatu. Krisiak ez du farmazia bat ere ixtera behartu, ez eta Araban eta Bizkaian ere.

DATUA

13

GAUEKO FARMAZIA

Gipuzkoa osoan, gauero 13 farmaziak ematen dute gaueko guardia. 22:00etatik 09:00etara da zerbitzu hori.



Gotzon Arzelus (Batura Mobileko zuzendaria), Angel Garai (Gipuzkoako farmazialarien kolegioaren presidentea)

moduan: "Orain arte, larrialdien %90 ere guk hartzen genuen. Gureta aldatu den gauza bakarra da gauean %10 dei gehiago ditugula". Eta beste hau ere gogorarazten du: "Orain arte, Arrasateko farmaziek bakarrik genuen gaueko guardietan farmazian egoteko betebeharra; Oñatin eta Aretxabaletan, telefonoz deitu behar zitzairen, eta ordu laurden bat behar izaten zen zerbitzua jasotzeko. Arrasaten, bat-batekoa da".

Nafarroan, bi itxi dituzte

Hurrengo helburua gaueko zerbitzua espezializatzea da, Angel Garai farmazialarien presidentek dioskun moduan: "Gure misioa zerbitzua kalitate handienarekin ematea da. Gure nahia da urte osoan ordezkoko farmazialari batek eman dezan zerbitzu hori; espezializatutako farmazialari batek. Horrek alde on asko izango lituzke: medikuarekin harreman estua izatea, eta gaueko farmazialarien artean ere bai. Hori bezeroen onerako izango litzateke".

Oraingoz, baina, diru faltak mugatzen du nahi hori, Alberto Azkoagak dioskun moduan: "Arrasaten, hiru bat farmazialari kontratatu beharko genituzke, eta hori oso garestia da: farmazia bakoitzak 500 bat euro ipini beharko lituzke". Botikari horrek gaineratzen duenez, aurrekontua merkatzeko, Bergara ere sare horretan sartzea eta diru-laguntzak lortzea beharrezkoa izango litzateke.

Farmaziek dituzten diru-arazoak albiste izan dira hainbat lekutan, izan ere, botikak erosteko aurreratu duten dirua admi-

ESANAK

"Heritarrei sendagaietara heltzea errazteko erronka dugu"

"Botiken eragina jakiteko jarraipen programa egingo dugu"

ANGEL GARAI
GIPUZKOAKO FARMAZIALARIEN PRESIDENTEA

ESANAK

"Gaueko guardia guztiak Arrasaten izateak ez digu lanean eragin"

"Orain arte ere, gaueko zerbitzuaren %90 Arrasaten egiten zen"

ALBERTO AZKOAGA
FARMAZIALARIA



legioko presidentea) eta Oier Jimenez (GSEko Kalitate arduraduna). | CIRCOMUNICACIÓN

nistrazioak ez dielako garaiz bueltatzen. Gipuzkoan 281 farmazia daude eta batek ere ez du krisiarengatik itxi behar izan, ezta Bizkaia eta Araban ere, baina Nafarroan bi itxi dituzte. Angel Garaik dioenez, "kezka" badago sektorean, baina "oraingoz, Eusko Jaurlaritzak ondo betetzen du bere konpromisoa, garaiz ordaintzen digu, eta espero dugu aurrerantzean ere horrela izango dela".

Jarraipen programa

Gipuzkoako farmazien kezka handiena, oraindik orain, ez da dirua, baina etorkizunarekin kezkatuta daude. Izan ere, sektorea "bidegurutzan" dagoela deritzo Angel Garaik: "Profesio gisa, nora goaz? Ze egin behar dugu osasunaren alde? Orain arte egin duguna ondo dago eta horretan jarraitu egin behar dugu; esaterako, botika guztiak ondo, azkar eta segurtasun handiarekin bezeroari bideratzea, edo aholkuak eta osasun-hezkuntza bat ematea. Baina jarraipen farmakoterapeutikoa falta da: botika jakin bat norberarendako ona den, eta ona ez bada, zer egin behar den".

Gogoeta horretatik abiatuta, programa bati ekin dio GSEk: Consigue du izena, eta Gipuzkoako 80 farmazia daude ikerketa hori egiteko konprometituta. Consigue programa beste leku batzuetan ere egin da, Espainiako probintzia batzuetan, AEBetan, Erresuma Batuan... eta batez ere 65 urtetik gorako eta medika-

Teknologia aitzindaria

Farmazialarien aplikazioa bera aitzindaria izateaz gain, hala da ere erabiltzen duen teknologia: NFC delakoa, hain zuzen ere. Batura Mobileko arduradun Gotzon Arzelusek dioenez, "QR kodeetatik aurrerago doa NFC eta gailuen artean datuak trukatzeko balio du. Aurrerantzean asko entzungo dugu, mugikorren bidez ordaintzeko egiteko erabiltzen da-eta". Autobusean norberaren txartelarekin ordaintzeko erabiltzen den sistema berbera da.

mentu bat baino gehiago hartzen duten erabiltzaileekin hasi dira. Oso emaitza onak izan ditu: lehenengo eta behin, erabiltzaileen osasuna eta bizi-kalitatea hobetu egin dira; eta, horrez gain, dirua aurreztu da. Gipuzkoako farmazialariek emandako datuen arabera, honako kalkulua egin da: EAEn, 139.025 pertsonak jaso ahal izango lukete jarraipen zerbitzu; Gipuzkoan, 44.492 lagunek; bada, urtero eta pertsonako 180 eta 360 euro artean aurreztuta, Gipuzkoan 8 eta 16 milioi euro artean aurreztuko lirarteke urte betean.

Programa hori martxan jar dezakete Gipuzkoako farmazialariek, hain zuzen ere, ekonomiki moldatzen direlako: "Beste leku batzuetan, hileko gastuak kubritzearekin nahikoa dute, ez dute beste gogoetarako astirik", esaten du Angel Garaik.

Badator errezeta elektronikoa

Beste proiektu bat ere badago, atzeratuta datorrena: errezeta elektronikoa. Eusko Jaurlaritzak eta kolegioak batera dabilta, apirlean edo maiatzean plan pilotua abian ipintzeko eta 2013 hasieran Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko farmazia guztietan ezartzeko.

Gipuzkoako Sendagaigileen Elkargoko presidentearen iritziz, "biztanleendako mugarrira izango da" errezeta elektronikoa. Batez ere, gaixo kronikoei "garbi" igarriko dituzte abantailak: "Orain ez bezala, ez dira ambulatortara errezeta bila joan behar izango, gero paperezko errezeta horiekin guztiekin farmaziara... Medikundako ere, nire ustez, ona izango da: preskripzioa praktikoa eta errazagoa izango da. Eta farmaziondako ere baditu alde onak, bai; adibidez, medikuen eta botikarien arteko harremana hobetu egingo du".

Baina, Angel Garaik azpimarratzen duenez, "tresna" bat da hori ere, eta erabakigarriak izango dira beraz gestioatuko duten pertsonak.



ETXEAN KONPOSTA EGIN NAHI AL DUZU?

Konpostatu itzazu etxeko hondakin organikoak lorategian, ortuan edo zelaian!

Debagoieneko Mankomunitateak kudeatzen duen etxeko hondakinen bilketa zerbitzutik, batu eta tratatu beharreko hondakinen murrizketa lortze aldera, hondakin organikoen autokonpostatzea bultzatu nahi da.

Autokonposta egiten duenarentzako abantailak:

- Bonifikazioa zaborren tasetan.
- Ikastaro bat konposta zer den azaltzeko.
- Konpostagailua eta hondakinok batzeko eta garraiatzeko edukiontzia doan.

Murriztu dezagun hondakin kopurua!
Murriztu ditzagun hondakinen bilketa-kostuak!
Murriztu dezagun ingurumenari sortzen diogun kaltea!

Izenematea:

- Mankomunitateko telefonoa: 943 79 33 99 (09:00etatik 12:30era).
- <http://www.debagoiena.com/Ingurumena/Autokonposta>
- autokonposta@debagoiena.net.

ANTOLATZAILEA



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

HONDAKINEKIN

selek-
tiboak
gara.



EAJ: "Atez atekoaz oraingoz dakigun bakararra da zabor turismoa ekarri duela"

- ▶ Herri kontsultak egin daitezten ekimenak aurkeztuko dituzte udaletan
- ▶ Sistema horrek bilketaren prezioa hirukoiztu egin dezakeela uste dute

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Debagoieneko EAJko hautetsiek prentsurrekoa egin dute asteon "atez ateko bilketa sistemaren aurkako jarrera erakusteko eta ezker abertzalearen jarrera salatzeko, "bilketa sistema herritarrei galdetu gabe ezarriko duelako". EAJko zinegotziak atez atekoa ezartzearen "aurkakoak" direla argi adierazi zuten Bergaran egindako agerraldian: "Neurriz kanpoko sistema bat delako herritarrei eskatzen zaien sakrifizioa-gatik, askoz garestiagoa delako eta ez duelako ekiditen zaborraren %35 errefusa edo hondarra izatea (Alemanian, Flandesen eta Suedian bezala). Ez dugu zabor-poltsarik nahi gure kale eta eskatzetan zintzilik", esan zuten.

Horren aurrean, alderdi jeltzalea "birziklapenaren eta 5. edukiontzia bidez konpostatzearen alde" dagoela berretsi zuen Lourdes Idoiaga Oñatiko Udaleko EAJko zinegotziak. Eta hauxe iragarri zuen: "Debagoieneko udalbatza guztietan ekimenak aurkeztetokan gara herritarren benetako partaidetza bermatzeko herri-kontsultak egin daitezten".

Bilduk atez atekoa ezartzeko delako prentsurreko bidez esan izana ere ez zaie ondo iruditu:



EAJko bailarako hautetsiak, Bergarako Irizar jauregiko lorategian. | AMAIA TXINTXURRETA

"Ez zaigu iruditzen ez demokratikoa, ez garbia, halako erabakiak komunikabideen bidez argitaratzea, alde aurretik oinarritzko azterketarik egin gabe eta erabakiak, dagozkien erakundeetan hartu gabe, alegia, udaletan", esan zuen Aintzane Oiarbide Bergarako zinegotziak. Eta gehitu zuen: "Ezker Abertzaleak badi-rudi aukeratu duela gauza hau

ESANAK

"Ezker abertzalea ziria sartu nahian ari da gipuzkoarrei"

AINTZANE OIARBIDE | EAJ-KO ZINEGOTZIA

nola erabaki behar den: zero kontsulta bidez".

Kanpaina, "inprobisazio hutsa" Oiarbiderentzat atez ateko bilketaren kanpaina "inprobisazio hutsa" da eta "orain arteko noraezko estrategian", helburu bakarra du: "Energia sortzeko planta-elektritzitatea sortzen duen errausteketa-eragozte. Gainera, honda-

kinen kudeaketaren arazoari ez dio bere osoan erantzuten". Zinegotzi jeltzalearentzat, "atez atekoa, zaborra batzeko era da, ez besterik, eta ez da arazoaren konponbidea".

Bergarako zinegotziaren esanetan, Ezker Abertzalea "ziria sartu nahian ari zaie gipuzkoarrei sistema horren emaitzen inguruan: ezkutatu egiten du ezinbestekoa izango dela erraustegia edo zabortegiak handitzea edo berrirakitzea". Eta gehitu zuen, "oraingoz, dakigun gauza bakararra da zabor turismoa deritzon fenomeno berri bat ekarri duela atez atekoak. Zera esan nahi du, adibidez, Antzuolan, iaz hiri-hondakinaren %40 desagertu egin zela".

"Ez du arazoa konpontzen"

Atez atekoak ez du errefusa edo zabor-hondarraren trataeraren arazoa konpontzen, Lourdes Idoiaga-garen arabera: "Beti egongo da prebenitu, birziklatu edo konpostatu ezin den hondarra. Flandesko adibidea jartzen digute, baina Flandesen zabor-hondarra, errefusa, erraustu egiten da".

Idoia-garen esanetan, "atez ateko sistemak ez du erakutsi egun daukagun edukiontzien sistema baino hobea denik ez prebentzio portzentajeetan ez birziklapen eta konpost ehunekotan. Zaborren %30 baino gehiago errefusa edo azken hondarra delako, zaborra era batera edo bestera bildu".

Krisi egoera ere ekarri zuten gogora: "Krisi garaiotan ezin dugu ahaztu bilketa-sistema edukiontzietatik atez atekora aldatzeak garesti joko duela, gastuaren gorakada garrantzitsua dakarrela". Eta gehitu zuten: "Hirukoiztu egin dezake atez ateko bilketak zabor bilketaren prezioa, eta hori ederki nozitu du lukete gure udaletako diruek eta familien poltsikoek".

Fabian Bilbao, Fagor Etxetresnetako zuzendari

M.B. | ARRASATE

Fagor Etxetresnak Taldeko zuzendari nagusi izendatu berri dute Fabian Bilbao. Orain arte zeregin horretan jardun duen Txema Gisasola ordezkatuko du karguan. Izan ere, Txema Gisasola izango da, ekainetik aurrera, Mondragon Taldeko presidentea, Jose Mari Aldekoaren ordez.

Azken urteotan, Fagor Taldearen linea zuriaren ardura izan du Fabian Bilbao. Hain justu, alor hori da taldearen negozioaren %90. Aurretik, Fagor Etxetresnak Kooperatibaren zuzendari nagusia izan zen Bilbao.

Euskal Herriko Unibertsitatean Ekonomia eta Enpresa ikasketetan lizentziaduna da. 1993a ezkererdi hiru lanean Fagor Taldean, eta hainbat ardura postu bete izan ditu.

Europako bosgarren enpresa

Gaur egun, Geyser-Gastech Sozietate Anonimoko eta Ecolec Patro-



Fabian Bilbao. | GOIENA

natuko presidentea ere bada. Geyser-Gastech-ek Bergaran du lantegi bat.

Fagor Etxetresnak Taldea Europako bosgarren enpresa da etxetresnen negozioan.

Espanian %18,1eko merkatu kuota du eta 1.400 milioi euroko fakturazioa izan zuen 2010ean. Bestetik, munduko 130 herrialdetan saltzen du, 12 marka komertzialekin.

Urak tratatzeko enpresa berria abiarazi du Fagorrek

Fagor Ederlanek eta Fagor Arrasatek sustatu dute eta 2,5 milioiko aurrekontua izango du

M.B. | ARRASATE

Fagor Edergardenek hondakin urak arazteko datozen lohiak tratatzeko soluzioak eskaintzen ditu, baita industria jardueratik datozenak ere, hala nola abeltzaintzatik eta papergintzatik. Enpresa proiektu berrian 2,5 milioi euro inbertituko dira hiru urtean, eta epe luzera 20 edo 30 lanpostu kualifikatu berri sortzea aurreikusitako dute.

Fagor Edergardenek Fagor Ederlan eta Fagor Arrasate kooperatiben azpiegitura produktiboak aprobetxatuko ditu, baina, epe luzera, ekoizpen planta bat sortzea aurreikusitako dute sustatzaileek, zuzenean uren tratamenduan espezializatutako ekipamenduak fabrikatzeko. Ederlanek gidatu du erakunde berria eratzekeko pro-

zesua eta haren lankidetzarako estrategiarekin bat etorritako egin du bat Fagor Arrasaterekin.

Prentsa birakaria

Fagor Edergardenen produktu nagusia garatzeko, hau da, lohiak kudeatzeko prentsa birakari aurreratua garatzeko, aliantza egin dute Kanadako Fournier Industries enpresarekin. Enpresa hori deshidratazio teknologietan espezializatua da eta merkatuan 20 urtetik gorako esperientzia dauka. Hala, Fagor Ederlaneko gerente Juan Mari Palenciak teknologia horrek eskaintzen duen aukera nabarmendu du: "Produktu bereizgarri honekin merkatu berri batean sartzen garela, bi kooperatiben negozio lerroak zabalduz".

Merkeago gidatzeko ikastaroa Bergaran

M.B. | ARRASATE

Automobilaren gidatze ekonomikoa delako ikastaroa egingo dute Bergarako Miguel Altuna institutuan astelehenan, martxoak 5, 09:00etatik 13:30era. Interesa duten guztiei zuzenduta dago, eta energia, eta ondorioz dirua, aurrezteaz gain, errepidean segurtasuna areagotzeko ikastaroa ere bada. Kontuan hartzeko da, bestalde, gidatze ekonomikoa onuragarria dela ingurune eta aire garbiagoa izaten laguntzeko. Izan ere, CO2 emisio kutsatzaileak gutxitu egiten dira, besteak beste. Ikastaroa doan da eta EVEko ordezkariek emango dute. Izema emateko deitu 943 76 93 94 zenbakira edo idatzi info@bizikasi.com helbidera.

Autokonpostatzea bultzatzeko kanpaina hasi du Mankomunitateak

Etxean konposta egiten dutenek bonifikazioa izango dute zabor tasetan

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Etxean konposta egin nahi al duzu? izeneko kanpaina abiarazi du Debagoieneko Mankomunitateak. Erakunde horrek kudeatzen duen etxe hondakin bilketa zerbitzuetik, batu eta tratatu beharreko hondakin murrizketa lortze aldera, hondakin organiko autokonpostatzea bultzatu nahi dute.

Mankomunitateko ordezkarien esanetan, autokonpostatzea egiten dutenek bonifikazioa izango dute zaborren tasetan, azken batean, bilketa zerbitzura gehitzen ez diren hondakinek gasturik sortzen ez dutelako. Horrekin batera, autokonpostatzeko hitza ematen duten herritarrei, bonifikazioaz gain, konpostatzea zertan dantzan azaltzeko ikastaroa emango zaie, eta, ondoren, konpostagailua eta hondakin batzeko eta garraiatzeko edukiontzia bana ere banatuko zaie, guztia dohainik.

Hondakinak ongari bihurtuta

Konposta egitea sukaldeko eta baratzeko hondakin organikoak ongari bihurtzea da. Etxeko konposta egiteak esan nahi du prozesu hori etxean bertan egingo

DATUA

%50

GUTXIAGO

Etxeko konpostari esker, familia batek sortutako hondakin %40-50 gutxitzen da.

dela, nork bere lorategian, zelaian, ortuan... Etxeko konposta eginez elikadura-hondar guztiak birzikla daitezke, baita inausketako eta lorategiko hondakinak ere. Horiak transformatuta, lurarentzat ongaria izango da eta landare osasuntsuagoak lortuko dira.

Horren harira, Josu Pereda Arrasateko Ingurumen teknikariak autokonpostatzearen hiru alderdi azpimarratu ditu: "Ingurumenari egiten dion mesedea; onura ekonomikoa, organikoa batze eta tratatze zerbitzuetatik kentzeak kostua txikitzea dakarrelako; eta ze printzipiotan oinarrituta dagoen, norberak sortutakoa norberak kudeatzea, alegia".

Prozesu erraza da

Konpostatze prozesua konpostagailuan egiten da. Sukaldeko hondakin oso aberatsak dira ongari gisa erabiltzeko, eta lorategiko edo baratzeko beste zenbait material baino lasterrago desegiten dira. Hondakin horiek baliatzea oso garrantzitsua da, denbora laburrean, konpost ona egiteko. Gainera, lekuan bertan baliatzen direnez, txikitu egiten da hondakin zirkuitu orokorrean tratatu beharreko hondakin kantitatea, eta, ondorioz, energia aurrezten da garaioan.

Etxeko konpostari esker, familia batek sortzen dituen hondakin %40-50 gutxitzen da, kanpainaren arduradunen esanetan. Horrekin batera, Peredak azaldu du konposta egitea "oso erraza" dela, eta herritarrek gonbidatu ditu parte hartzera, "guztion onurarako delako".

Kanpainan parte hartzeko dei daiteke 943 79 33 99 zenbakira -09:00etatik 12:30era-; <http://www.debagoiena.com//Ingurumena/Autokonposta> helbidera jo edo autokonposta@debagoiena.net helbidera idatzi.

Aretoa bete egin zuen Zero Zaborrek

Zero zabor posible da atez atekorik gabe? Galdera horri erantzuten saiatu ziren martitzenean Arrasaten Usurbilgo Zero Zabor taldeko kide bi, Ainhoa Arrospeide eta Mikel Ikatzategi. Debagoieneko Zero Zabor taldeak antolatu zuen berbaldea, eta Kulturategi Jokin Zaitegi aretoa jendez bete zen.



Isaias Carrasco gogoan izango dute domekan Arrasaten, haren hilketaren 4. urtemugan

E.A. | ARRASATE

Martxoaren 7an dira lau urte ETAK Isaias Carrasco Arrasateko zinegotzi izandakoa hil zuela. Hori dela eta, omenaldia egingo diote sozialistek Mondragoen etzi, domeka.

Familia eta ordezkari politikoak

Domekan 12:00etan egingo diote omenaldia Carrascori, hil zuten

tokian, Arrasateko San Andres auzoan, etxearen ondoan. Lore sorta eskainiko diote.

Iñaki Arriola Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusiak hartuko du parte, eta han izango dira, era berean, Carrascoren alaba nagusia, Sandra, eta baita Marian Romero haren alarguna eta beste bi seme-alabak, Aina eta Adei ere.

12.364 euro batu dituzte Lodosako ikastolara bidaltzeko

Arizmendi Ikastolak aurreko egubakoitzean Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako plazetan egindako ekimenari esker batu da diru hori. Oraindik zenbatu ez duten arren, hiru herriotako udalek ere egin dute ekarpena, eta baita bestelako eragile batzuek ere. Hala, litekeena da azken kopurua handiagoa izatea.

Maite Aseginolaza | Izeba proiektuaren koordinatzailea

"Izeba programaren helburua da adingabeei afektibitatea ematea"

Aldundiak eta Baketik erakundeak Izeba proiekturako boluntarioak behar dituzte

M.B. | ARRASATE

Bakarrik dauden adingabeei zuzendutako Izeba proiektuarentzat boluntarioak lortzeko kanpaina abiarazi dute asteon. Orain arte atzerriko gazteak ziren programaren oinarria; aurrerantzean bertakoak ere hartuko dituzte aintzat. Proiektuaren koordinatzaile Maite Aseginolazak eman dizkigu haren gaineko azalpenak.

Zer da Izeba programa?

Boluntario programa bat da eta familia boluntarioek parte hartzen dute. Helburua da bakarrik dauden adingabeei laguntza edo babesa ematea. Eta Izeba deitzen diogu programari, bada, boluntariook Izeba edo osaba rola betetzen dugulako. Hau da, kanpoko iloba bat etorriko balitz gure ingurura ikasketengatik eta gurasoak hemen izango ez balitu, ba, egin beharko genukeen lana egiten dugu gazte hauekin.

Aisialdian oinarrituta dago.

Bai. Astean behin tartetxo bat eskaintzen saiatzen gara. Eta izan daiteke tartetxo horretan etxera etortzea bazkaltzera edo aisialdiko bestelako ekintzak egitea. Helburua bitan labur dezakegu: alde batetik, gazteoi afektibitatea ematea da: maitasuna, segurtasuna, babesa...; eta beste aldetik, kanpora begira, harreman sareak sustatzea. Hor bitartekari lana egiten dugu, euren harreman sareak zabal daitezken.

Orain arte adingabe atzeritarrekin jardun duzue. Aurrerantzean bertakoekin ere arituko zarete.

2009an jarri genuen martxan proiektua, eta, sasoi hartan, batik batik, adingabe atzeritarrekin hasi ginen. Orduetik hona 30 bat gaztek hartu dute parte eta beste horrenbeste familiak, eta oso balorazio positiboa egin dugu Foru Aldundiak eta Baketik-ek. Hala, 2012an erabaki dugu adingabeak orokorrean hartzea. Hori horrela, orain eskaera berriak dauzkagu, eta, ondorioz, familia eta pertsona boluntario gehiago behar ditugu.

Ze profil behar da boluntario izateko?

Ez dugu profil berezirik eskatzen. Boluntario izan daiteke norbana bat, bikote bat, familia bat... Hor ez dago mugarik. Eskatzen dena da borondatea, gogoia halako ekimen batean sartzeko, eta aisialdirako tartetxo bat edukitzea. Eta izan daiteke denbora pixka bat izatea astean behin edo hamabostean behin gazte hauei eskaintzeko. Alde horre-



Maite Aseginolaza. | GOIENA

tatik jarraipen bat izatea eskatzen da, besterik ez.

Gipuzkoa mailako proiektua izanda, boluntario eta adingabe guztiak dira gipuzkoarrak?

Gehienak bai. Nahiz eta gertatu izan den Debagoieneko zentro batera Durangoko gazteren bat etortzea. Baina %99 gipuzkoarrak dira, eta saiatzen gara antolaketan eskualdeka edo, behintzat, hurbiltasun batekin lotzen. Esaterako, Irunen bizi den gazte bati ez diogu Arrasateko familia bat esleituko. Harremanak ahalik eta naturalenak izateko gertutasun bat topatzen saiatzen gara. Horregatik behar ditugu boluntarioak eskualde desberdinetan.

Zer da adingabeek eskertzen dutena?

Atentzio pertsonalizatua. Zentroetan bizi dira, eta familia bat edo gurasoak ez dituzten gazteok gertutasuna eta eurekin egoteko borondate hori eskertzen dute asko. Bestetik, nork bere behar espezifikoak ere izaten ditu, eta guk laguntza eskaintzen diegu boluntarioei.

Eta adinez nagusi egiten direnean segitu egiten du harremanak?

Proiektua adingabeendako pentsatuta dago, baina gazteak familiarekin harreman ona izan badu, nahiz eta adinez nagusi egin, harremanak segitu izan du.

Nora jo behar da boluntario egiteko?

Boluntario egin eta informazioa jasotzeko 943 25 10 05 zenbakira dei daiteke, edo izeba@izeba.org helbidera idatzi. www.izeba.org webgunea ere badaukagu.

"Inkomunikazioa aplikatzea erabaki politikoa da, eta kentzea ere bai"

ZABALIK



MANU ARREGI
http://goiena.net/iritzia/

Wi-fia eskoletan?

Paradoxikoak gara gizakiok. Ez dugu inongo beldurrik ez dakit zer energia arraro igortzen duen power balance bezalako lelokeria bat eskumuturrean jantzita eramateko. Ez dira ba arriskutsuak uhinak? Ilea hasten duela saltzen duten zaldientzako xanpu bat kaleratzen bada ere, hor goaz, buru-belarri, probatzera, xanpu horrek zer duen jakin gabe. Uhin elektromagnetikoez, berriz, beldur gara. Zergatik?

Badira arriskutsuak diren uhin elektromagnetikoak: ionizanteak. X izpiek eta argi ultramoreak frekuentzia altua dute eta, beraz, energia handikoak dira. DNAn kalteak sortzeko gai dira. Kontuz horiekin. Baina besteak ez.

Artikulu hau argi naturalaren edo artifizialaren azpian irakurtzen egongo zara. Beldurrik ez? Ba jakin ezazu argi hori dela eta jasotzen duzun energia inguruko wi-fi eta mugikor guztiena baino gehiago dela. Argi ikuskorra uhin elektromagnetiko bat besterik ez da. Wi-fi eta mugikorretan erabiltzen diren mikrouhinek baino frekuentzia altuagoa duena. Energetikoagoa, beraz. Baina ez arriskutsua, jakina den bezala.

Nola izango dira ba orduan kaltegarriak energia gutxiago duten uhin batzuk?

Mikrouhinak erabiltzen dira wi-fi eta telefonian. Mikrouhin labean bezala. Mikrouhinek, uhin elektromagnetiko guztiak bezala, ur molekular ebibrarazten dituzte ingurua berotuz. Baina potentzia izugarria erabiliz, antenetatik jasotzen duzuna baino milioika aldiz gehiago.

Ez da ideia ona Anoetako estadioko foku batera igo eta eskua zentimetro batera ipintzea. Erre egingo zara, mikrouhin labearrekin bezala. Baina erre besterik ez.

Paranoiko samarrak gara eta eskoletatik wi-fia kentzeko eskatzen dute askok. Legeak markatzen duen potentzian, ez dago inongo arriskurik. Energia gehiago igortzen dute geletako fluoresenteek. Zergatik ez kendu horiek?

USTEAK USTE

TXOMIN MADINA | tmadina@goiena.com

Izarren gaua

Langabezia etengabe gora ari denean. Langile eskubideak kolokan daudenean eta askorentzat hilabete hasiera hilabete amaieraren pareko denean. Garai honetan, Oscar sariak banatu dira. 84. aldiz, Hollywoodek (zenbait kasutan ustezko) *glamour* guztia erakutsi du eta izarrik handienek elkar zoriondu dute. Amorratioa eragingo die askori. Neurri baten, neurri ere bai. Baina apur bat baretzen naiz izar horiek direnean *Los descendientes* bezalako lanak egiten dituztenak. Edo *The artist*. Edo *Criadas y señoras*. Krisiak ezinegon eta negarra dakarrenean; poza, emozioak eta itxaropena ekartzen dute; eta horrek badu bere meritua. Urtean gau batez, izarrek gorrotagarriak izan arren.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Ikuskizunaz

Andoni Urbistondo

berria.info/blogak/zonakakodefentsa/

Hangoa edo hemengoa?

NBAko 'All Star'-a jokatu da asteburuan, eta Izarren Partida horrek saskibaloio jokoarekin zerikusi gutxi duela kritikatu dute iritzi askok. Partidak tentsiorik gabeko lagunartekoak baino txarragoak izan dira, 'patxanga' hutsak, eta jokalarien luzimendurako antolatua. Ni neu aspertu egin naiz, eta oherako bidea hartu partidak hasi eta gutxira. Zer esan txikitzen eta hirukoen lehiaketari buruz? Zozoak! Denetan politena, milaka milioi dolar irabazten dituzten jokalarien intimitatean sartu baikara www.nba.com webgunearen bitartez. Hangoa hemengoa baino askoz hobea da zentzu horretan. Hemengoan Jimmy Baronen hiruko ikusgarriekin konformatu behar dugu kazetariok, eta zaleak, kazetariak jokalarien aldageletara sartu eta haien bizipenak han bertan jasotzea utopia delako gaur-gaurkoz. Saskibaloioaren kontraesanak. Saskibaloia aberatsagoa da European, ikusterrazagoa, baina

askoz hobe saltzen dute itsasoz bestalde. Biak bateratzea posible ote?

Baronen esana hilabete atzera *Berria*-n: "Jokalaria berbera naiz, asmatu edo ez". Donostia eta Gipuzkoan denak pozik, asmatu zuelako. Neurrian baloratzen al da jokalaria batek baloia eskatzeko ausardia edukitzea? Inolaz ere ez.

Akabatuko zaituztegu, baina ingurumena zainduz

Unai Brea

http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Armagintzan diharduen BAE Systems enpresak laster eduki lezake prest AEBetako armadari salduko dion tanke hibrido-elektroa.

Konpainiak adierazi duenez, jostailu berria %10-%20 eraginkorragoa izango da, energi gastuaren ikuspuntutik, dieselarekin dabiltzan ohiko tankeak baino, eta gainera azkarragoa. Askok garestiagoa ere bai, baina aizue, kalitatea nahi duenak...

Mundua hobetuko du, hobetuko duenez, gudu orga berriak. AEBri gerrak irabazten lagunduko dio orain arte baino gol diferentzia handiagoarekin, eta CO2 gutxiago igorriko duenez, arma garrantzitsua izango da klima aldaketaren aurkako borrokan, beste arerio batzuen kontrakoak baztertu gabe, noski. Abantaila horiek nahikoa ez balira, tankea oraingoak baino isilagoa izango da. Kutsadura akustikoa gutxituko du, beraz.

Pentsatzekoa da estatubatuar ejertzitoak gustura ordainduko duela hainbeste alderdi on daukan produktua. Ingurumen kontuetan zikoizkeriarik ez, mesedez.

Behin betiko prezioa finkatzeke dago, baina hamabi eta hamazazpi milioiren artekoa izango da, dolarretan; gaur egungo tankeek balio dutenaren bi edo hiru edo lau halako. Garestia, ados, baina Osaba Samen gudarosteak erregai gutxiago kontsumituko du erregai hori lortzeko antolatzen dituen gerretan; urte gutxiren buruan, gastua amortizatuta.

Planeta salbatzeko beste urrats bat, edonondik begiratuta.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa.

EGOTZA NAGUSIA - GOIENA PAPER ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com


ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabela 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabela 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Martxoak 8

Itziar Usandizaga eta Sagrario Lopez
Bergara eta Arrasate

LABeko emakume adindu eta jubilatuen gogoeta.

Gure eskubideak gero eta zapalduagoak dauden garai honetan, behar-beharrezkoa ikusten dugu bildu eta antolatzea. Pentsio duinak defendatzeko, kalitatezko osasun zerbitzuak izateko, menpekotasun legea murrizketarik gabe betea izan dadin exijitzeko, zerbitzu sozialetan egiten ari diren murrizketak salatzeko, adinduen aurkako tratu txarrak salatzeko, etab.

Sexuen arteko desberdintasuna adineko pertsonengan eta pentsiodunengan ere islatzen da.

Zentzu honetan pobrezia, bakardadea eta prekaritatea maizagoak dira emakumeen artean, bai baldintza ekonomikoei, bai osasunari eta harreman sozialei dagokienez.

Eta zer esan emakume alargun askoren egoeraz? Euskal Herrian 150.000 emakume alargun dago.

Gehienak bakardadean eta prekaritatean bizi dira. Senarraren errentaren %52 soilik jasotzen dute, askok 600 euro baino gutxiago. Gainera, azken murrizketak direla-eta agindu zitzaizkien igoerak izoztuta daude, eta beraien egoera gero eta gehiago okertu da.

Bestalde, aurre-erretiratuak alargunak muturreko egoeran daude, 10etik 6 pobrezian bizi dira.

Eta etxekoandreak deiturikoak? Argi dago hauen lanarik gabe sistemak ezin duela funtzionatu.

Ordaindu gabeko lana ekonomiaren zutabe nagusienetako bat da eta estatuko PIBeko %53 da, baina ez da errekonozitzen betetzen duten funtzio soziala. Kontabilizatzen ez den lan hau guztia kontuan hartzea eskatzen dugu eta pertsona ororentzat pentsio duina izateko eskubidea defendatzen dugu.

Zahartzarora iritsita, emakumeek etxeko zeregin nagusiez arduratzen jarraitzen dute, batez ere familia zaintzen. Horren eraginez, eurek zaintza jasotzeko daukaten eskubidea ukatzen zaie eta ondorio larriak ditu haien osasun egoera eta bizi-kalitatean. Argi dago zaintza lanak ez duela jubilatuzko edaderik emakumeon kasuan, eta emakumeok jubilatuzko beharra daukagunean, guk jarraitu behar ditugu gure senideak zaintzen, sistemak kalitatezko zerbitzu sozialak bermatzeko dituen gabezien ondorioz.

Egun, baliabideak izan behar genituzke indarkeria sexistari eta pobrezia aurre egiteko, eta duintasunez edatetzeko, baina egungo sistemak ez ditu hutsuneak ordezkatzen eta gure

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

gain jartzen du ardura hori. Horregatik antolatu eta borrokatu beharra daukagu. Gure autoestimua garatu, eta emakume edadetu eta jubilatuz bezala gure eskubideen alde borrokatu. Azken finean, Euskal Herri berri bat eraikitzea exijitzen dugu, non emakume eta gizonak berdintasunean kontuan hartuak izango garen eta elkarbizitza aurrera aterako dugun.

Bidez batez, esan, bat egiten dugula eta bertan izango garelako martxoaren 2an, 3an eta 4an Leitzan ospatuko den emakume abertzaleon V. topaketa feministetan.

Arizmendi Ikastolatik eskerrak

Andoni Mujika
(Arizmendi Ikastolako lehendakaria)
Aretxabaleta/Arrasate/Eskoriatza

Joan zen otsailaren 24an Lodosa-Sartagudako Ibaialde Ikastolaren alde hiru herritan antolatu genuen ekimena arrakastatsua izan zen benetan. Dirutan, 12.000 euro inguru bildu dira Ibaialdekoen alde. Kopuru garrantzitsua da, baina ez da hori ekimen honek utzi duen emaitza bakarra.

Ikastolen Elkartek egindako deiar erantzunez jarri genuen martxan *Ikastola, hemen bai. Lodosan zergatik ez?* ekimena. Eta horri esker diru-bilketa bera baino garrantzitsuagoa den zerbait lortu du hiru herriotan: -Ikastolako ikasle-irakasle -langile-gurasoak ilusio handiz elkarlanean aritzea.

-Hiru ekitaldiak antolatzeako herrietako eragileekin batera indarrak metatzea.

-Lodosa-Sartaguda aldetik etorri ziren 110 lagunei bizitzen ari diren zailtasun eta oztopen aurrean berotasun eta indar apur bat ematea.

-Eta hori gutxi balitz, dei honi erantzunez hiru plazak herritarrez betetzea.

Izugarría da lortu duguna! Elkarlana, herrigintza, elkartasuna... Zer da, bada, Ikastola hau ez bada?

Eskerrak eman nahi dizkizuegu ekimen honetan aritu zareten guzti-guztioi. Eskerrak Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatzako eragileoi. Eskerrak hiru herriotako plazetan bildu zineten herritar guztioi. Eta eskerrak asko, azkenik, Lodosa-Sartagudako Ibaialde Ikastolari berari ere gure

Ikastolari berari zentzia ematen laguntzeagatik.

Aurrerantzean ere, batzuk zein besteak, bidelagun izango zaituztegunakoan, hurrengora arte!

Bosgarren edukiontziaarekin %97 birzikla daiteke

Anjel Guridi
Aretxabaleta

Aretxabaletan badira urte batzuk hasi ginela bosgarren edukiontziaarekin; edukiontzi marroia zabaltzeko giltza bat behar da eta izena eman genuenok badugu organiko birziklatzeko posibilitatea.

Behin baino gehiago entzun edo irakurri dut bosgarren edukiontzi sistemarekin %35 edo 40 birziklatzen dela.

Uste dut zenbaki horiek ateratzeko kontuan hartu direla edukiontzi marroien giltza dutenak eta ez dutenak, nahiz eta bigarrenekin izan duten organikorik birziklatu.

Hori dela eta, 2012. urtean hasi nintzen etxeko hondakinak neurtzen; eta orain arte lortutako emaitzak hauek dira: organikoak %66,3; papera eta kartoia %15,1; beira %10,2; plastiko eta metal arinak %6,1; zaborra %2,3

Birziklatzeko materialek %97,3 batzen dute guztira eta ez birziklatzeko zaborrak %2,3.

Kontuan hartuta emaitza hauek galdera batzuk egiten ditut: zergatik ez da bultzatzen bosgarren edukiontzia eta herri guztiari zabaltzea?

Debagoienean atez atekoarekin, hasteko, dirutza dezente behar da:

zintzilikarioak, aportazio eta larrialdi guneak, zortzi informatzaile, kanpaina eta kamioi flota berri. Guztira, 1.292.000 euro.

Ez da merkeagoa bosgarren edukiontzia jartzea eta bultzatzea?

Orain arte laguntza gutxi izan du bosgarren edukiontziaaren erabilerak, gero emaitza txarrak lortzen direla esateko.

Uste dut gogo apur batekin emaitza politik lor litezkeela bosgarren edukiontziaarekin ere, baina gogo behar da, bai agintarien, eta baita herritarren artean.

Alemania atez ate

Andoni Agirre eta Nekane Ayensa
(Debagoiena Zero Zabor-en izenean)
Debagoiena

Orain dela astebete inguruko GOIENAn, kontraportadan artikulua bat agertu zen Ixidor Soluperen izenean atez atekoaren inguruan.

Debagoiena Zero Zabor-eko kideok, artikulua horrekin ados ez gaudenez, erantzutea erabaki dugu. Artikulu horretan behin eta berriz aipatzen ditu alemaniarrek eta Alemaniako Berdeak jarraitu beharreko eredutzat. Eta Zero Zabor filosofiaren aitzindari eta bultzatzailetzat ere eurak jotzen ditu.

Artikulu bukatzeko, berriz, zera dio: "Ez al da atzerapausoa atez atekoa?"

Guk Debagoiena Zero Zabor taldeko kideok Europan martxan dauden eredu desberdinak aipatu nahi genituzke:

1-Gaur egun Espainian martxan dagoena: hondakinak %60 zabortegietara, %10 erraustu eta %30 birziklatu eta konpostatu.

2-Danimarkako eredu, Espainiak eta Bizkaiak eta Nafarroak jarraitu nahi dutena: %5 zabortegietara (eskoria eta erraustak kontuan hartu gabe), %55 erraustu eta %40 birziklatu eta konpostatu.

3-Alemaniarren adibidea: %1 zabortegietara; %35 erraustu; %64 birziklatu eta konpostatu gaikako bilketa selektiboarekin (modelo hau portentzaje onenkin Flandrian dugu). Azpimarratu beharra dago herrialde hauetan hondakin organikoaren gaikako bilketa "behartua" dela, ez "borondatezkoa".

4-Italiako Iparraldeko zenbait herri eta hirik eta Gipuzkoako martxan jarri duten Zero Zabor eredu: %20 zabortegietara (ez toxikoa, ezta fermentagarria ere) eta %80 birziklatu eta konpostatu.

Beraz, Ixidor Solupek azaldu beharko digu ea nola lortu nahi dituen Alemaniako emaitzak "atez atekoa atzerapauso" bat baldin bada. Izan ere, Alemanian %64ko emaitzak lortzeko gaikako bilketa selektiboko sistemak (eta ez bosgarren edukiontzia) daukate martxan. Guk Italian eta Gipuzkoako zenbait herritan martxan dagoen eredu defendatzen dugu, baina Alemaniako ere dudarik gabe hobe delakoan gaude Danimarkakoaren aldean. Eta Bizkaiak, Nafarroak (eta Gipuzkoako aurreko Aldundiak) Danimarka-

ko ereduaren aldeko apustu garbia egin zuten. Ixidor Solupe-ri eskatu nahi diogu bere artikulua beste puntu batean besteoi eskatzen diguna bere buruari aplikatu diezaioa: "... gutxienean, aurrekariak objektiboki azaldu behar direlakoan nago".

Azkenik, esan nahi dugu Alemaniako Berdeen errauskailuaren aldekotasunari buruzko berriak manipulazio mediatiko baten barruan ulertu behar direla. Notizia horiek zabaltu ziren bezain laster Monica Frassonik, Europako Partidu Berdeko presidentea, honakoa adierazi zuen: "Europako Berdeek guztiz baztertzen dugu hondakinak kudeatzeko aukerarik onena erraustea delako ideia". Eta Alemaniako Berdeek erraustea defendatzearen notiziari buruz gaineratu zuen hura "errealitatea manipulatzeko saiakera" bat izan zela.

Atez ate informazioa zabaltzen auzoz auzo

Mikel Biain Berraondo
(Udal Gobernu Taldearen izenean)
Oñati

Atez atekako hondakin biltze sistema dela eta herrian sortzen ari den eztabaidak poztzen gaitu, horrek erakusten baitu hondakin kudeaketa kezka iturri dela herritar askorendako. Dena den, eztabaida askotan informazio falta nabaritu izan dugu eta entzuten diren kondairatan oinarritutako argudioak azaleratzen dira. Beraz, ezinbestekotzat jotzen dugu hondakin gaikak suposatzen duen arazoaz herritarrei informatzea, arazo horri munduko herri ezberdinetan eman zaien irtenbideak eta emaitzak erakustea eta Oñatiko Udalak hartuko duen hautuaren berri ematera. Horretarako ondorengo hitzorduak jarri ditugu herritar guztiei irekiak:

Martxoak 5, 19:00etan, ETEO zaharrean; martxoak 13, 19:00etan, Zuazola Institutuan; martxoak 15, 19:00etan, Santa Anan (gaztelaniaz); martxoak 20, 19:00etan, Kultur Etxean; martxoak 21, 15:00etan, Kultur Etxean (batez ere merkatari eta ostalariei zuzendua); martxoak 23, 19:00etan, Kultur Etxean (batez ere landa eremukoie zuzendua).

Udal Gobernu taldeak dei egiten diegu herritar guztiei informazio bilera hauetan parte hartu dezaten informatua egotea ezinbesteko baita eztabaidatan parte hartu ahal izateko.

Bestalde, Udal Gobernu kideak ostiralero herritarren zalantzak argitzeko ordutegi bat jarri dugu 15:00etatik aurrera eta hitzordua hartu behar izango da 943 78 04 11 telefonora deituz edo partehartzea@oinati.net helbidera idatziz.

Rebeka Ubera | Aralar alderdiko antolaketa idazkaria

"Ez gabiltza integrazioa proposatzen ari, baizik eta akordio estrategiko nazionala"

- ▶ Aralarrek hurrengo hilabeteerako ildo estrategikoa erabakiko du zapatuan Gasteizen
- ▶ Zuzendaritza beste alderdi batzuekin batera Amaiurren jarraitzearen aldekoa da

ENEKO AZKARATE | ELGETA

Gasteizen egingo du ohiko batzarraren zapatuan Aralarrek. Hurrengo hilabeteerako ildo estrategikoa eztabaidatu eta zehaztuko dute. Aralar alderdiko zuzendaritza Amaiur osatzen duten ezkerreko indar abertzaleekin elkarlanean jardutearen aldekoa da. Baina ahots kritikoak ere badira; horien artean, Iratzarri-Aralarko gazte batzuk. Rebeka Ubera (Elgeta, 1972) Aralar antolaketa idazkariarekin izan gara.

Aralarrek ohiko batzarra egingo du asteburuan eta hantxe berretsiko duzue, besteak beste, Amaiur koalizioaren aldeko apustua hurrengo hauteskundeetara begira, ezta?

Alderdikideei eskatuko diegu onespina ezkerreko eta abertzale diren bost alderdierekin, baita Iparraldeko ABekin ere, elkarlan estrategikoa bultzatzeko. Elkarrizketa eta negoziazio prozesua irekitzea alderdi horiekin, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara begira oinarriak jartzeko.

Zergatik da egokiena Aralarrendako ezkerreko indar abertzaleen arteko elkarlana?

Beti egin izan dugu horren aldeko apustua. Baldintza batzuk ezarri genituen hasieratik horretarako: bide soilik politikoen bidez jardutea, aniztasunaren onarpena, barne demokrazia, erakundeetan normaltasunez parte hartzea... Baldintza horiek betetzen joan dira. Horretaz gain, bake eta normalizazio politikorako bidean une erabakigarri gaudu. Egoera sozio-politiko berri honi erantzuteko oinarri sendoak behar dira eta hauxe da unen aldeko apustua egiteko.

Aralarrek independentzia galtzen du Amaiurren aldeko apustua egingo da?

Ez. Inondik inora ere ez. Aralarrek paper bat bete du orain arte, eta, aurrerantzean ere, garrantzitsua izango da Aralarren papera. Ez dugu integratuz proposatzen, baizik eta akordio estrategiko nazionala. Aralar sortu zen ezker abertzale zibil eta zabala integratzeko, osatzeko, parte aktibo izateko. Helburu horiei ezin diegu uko egin sinesgarriak izan nahi badugu. Emandako berba bete egin behar dugu. Azkeneko hitza, hala ere, alderdikideek dute.

Aralarren gehiengoaren estrategiarekin kritikoak diren alderdikideak Gasteizko batzarrean izango dira?

Aralarren ez dago korrante kritikorik. Organo guztiak irekiak

dira. Egia da gehiengoarekin bat egiten ez duten iritziak ere badirela alderdi barruan. Hortaz, norberaren erabakia da Gasteizko batzarrean egotea edo ez egotea.

Zela baloratzen duzu Iratzarri-Aralar Gazteak taldeko batzuek Aralarren ildo estrategikoarekin bat ez etortzea eta Aralarrengandik aldentzea?

Alderdietan eta erakundeetan boluntarioki gaudu. Sartzea norberaren hautua den moduan, aldentzea ere bai. Errespetuz hartzen dira erabakiak eta erabaki hori ere errespetuz hartzen dugu guk.

Batasunaren inguruko ezker abertzaleak joan den domekan Kursaalaren egin zuen adierazpen ekitaldian izan zinen. Zela baloratzen duzu azken ekarpen hori?

Modu positiboan. Euskal jendarteari egin dioten beste ekarpen bat da. Baina ezin gara begira egon beste batzuk zertan dabilzan. Guztiok egin behar ditugu ekarpenak.

Zer beste eskatu ahal zaio Batasunaren inguruko ezker abertzaleari?

Norberak, bakoitzak eta guztiok, egin behar ditu urratsak. Ez besteari eskatu hau edo beste egin dezala. Ezker abertzaleko beste sentsibilitatea egiten ari da aldebakarreko urratsak, eta hori oso ondo dago, baina beste batzuek ere eman behar dituzte, ez beti batzuei bakarrik eskatu mugi daitezela.

Ze iritzi duzu Raxoik orain arte erakutsitako jarreraren gainean?

Espainiako Gobernutik entzuten den musika, soinua, hasi da aldatzen, baina ez dut oso positiboki baloratzen orain arte egin dutena. Ze, musika aldatzeaz gain, urratsak ere egin behar dira eta. Gure ustez, hasteko, espetze politika aldatu egin behar dute eta presoen eskubideak, pertsonak diren neurrian, erres-

"Aralarren ez dago korrante kritikorik, organo guztiak irekiak dira"

"Ezker abertzalea egiten ari da aldebakarreko urratsak"



Rebeka Ubera, Gipuzkoako Batzar Nagusietan. | GOIENA

petatu. Fitxa mugitzea tokatzen zaio PPri.

Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeetan Amaiur koalizio moduan aurkeztuko dela uste duzu?

Egin den ibilbidea zein den kontuan izanda, Gernikako Akordioa, Aieteko Bake Prozesua, ETAK jardun armatua utzi izana, Amaiurrek lortutako emaitza historikoak... iruditzen zaigu egokiena dela Amaiurrek segitzea. Baina ez dago baten borondatearen esku, guztionean baizik.

Nafarroan emaitza historikoak?

Han ere historikoak. Nafarroan indar abertzaleek inoiz ez dute halako emaitzarik lortu. Egia da Geroa Baik ere atera zuela, baina hori ikusten da Hegoaldeko beste lurraldeetan lehenago marraztutako mapa Nafarroan ere marrazten doala. Espainian gertatzen den moduan, Euskal Herrian ere abertzaletasunak bi hanka izango ditu, bata esku-makoa eta beste ezkerrekoa.

Sortu egongo da Amaiurren?

Hori izango litzateke onena. Normalizazio politikoren beste urrats bat izango litzateke. Oraindik ere salbuespeneko legedia eta epaitegiak daude indarrean.

Gipuzkoako Foru Aldundian Bilduk egin duen lana zela baloratzen duzu?

Poliki-poliki aldaketak bidertzeko oinarriak ezartzen dihardute, zailtasunak zailtasun. Aldaketa bide horretan Aralar laguntzeko prest dago. Horren adibide: zerga politika aldaketa, errauskailua geldiaraztea eta bidesariaren gaineko ekarpena.

Hiri hondakinaren kudeaketa dela-eta, Bilduren eta beste alderdi batzuen artean sortu den ika-mikaren gainean non kokatzen da Aralar?

Araza irtenbidea eman behar diegu, erantzukizunez jokatzeko denok. Jarrerak hurbiltzeko gauza izan behar dugu. Alternatiba bat baino gehiago dagoelako eta materia organikoa batzeko ere, tokiaren arabera, bata edo bestea aukera daitekeelako.

Elgetarako ze eredu?

Ahalik eta sistemarik egokiena eta herritarrekin adostua. Gu ez gaudu atez atekoaren aurka. Egia da hiri hondakinak birziklatzeko modurik egokiena dela, baina horrekin ez da amaitzen arazoa. Itxiera fasea ere kontuan hartu behar da eta birzikla ezin daitekeen hondar horri irtenbide egokiena eman behar zaio. Errauskailua ez da, hala ere, irtenbidea.

TORRA+PORTELLA

Nabarmendu egiten zara, erakargarria zara, gustagarria zara. Denek zuzan jartzen dituzte begiak, estilo guztia eta ausardia-puntu bat duzulako. Urrats bat aurretik zabilta beti. Nola egiten duzu? **Zuk egiten duzu Kibuc.**

ZU zara sedukzioa



gutxieneko prezioa bermatuta



1.583 €

131,92 € x 12 hilabete interesik gabe*



3D proiektuak doan

KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, Azpeitia Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta eraberritze integralak

KIBUC

altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

Trazos programa Linea estilizatu apainak dituen proposamena, zure nahi eta gozoetara egokitzen den diseinu eksklusiboarekin. Akaberrak: zerbino, lakatu mate gorria eta kristal zuri serigrafiatua. Neurria: L 393 zm.

Adierazitako akabera eta neurrirako balio duen prezioa. BEZ barne. *Finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.

GORBEIAREKIN OPORRETAN

JOANGO ZARA

Sartu:

“centrocomercialgorbeia.com”

eta

RIVIERA MAYARA

bidaia bat irabaz ezazu

(aste bat bi pertsonarentzat,
guztia barne duen erregimenean*)

Nola parte hartu?

1. Promozioaren barruan gutxienez 10€-ko erosketa egin Gorbeia Merkataritza Guneko edozein establezimendutan.
2. Sartu *www.centrocomercialgorbeia.com*-en eta eman izena.

Webgune horretan inprimaki bat bete beharko duzu, zure datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea eta abar) eta erosketa-tiketari dagozkion datuen berri emanez, eta horrela apirilaren 2ko zozketan parte hartu ahal izango duzu.



GORBEIA
10 URTE AURREZTEN

Martxoaren 2tik 31ra balio duen
promozioa

(*) Baldintzak ikusteko sartu:
www.centrocomercialgorbeia.com

HERRIAK



Iñaki Ugarteburu Udaleko Kirol teknikaria, Mikel Larrañaga Lokatzako presidentea, Jesus Elortza alkatea, Lauri Askargorta zinegotzia, Iker Osa eta Viki Szombathy. | E.M.

BERGARA

Bizikleta hartzeko sasoia iritsi da Bergarara

- ▶ I. Bizikleta Astea antolatu dute; martitzenean hasiko dira ekintzak
- ▶ Bizikletaren erabilera bultzatu nahi dute antolatzaileek

EDU MENDIBIL | BERGARA

Udaberriari aurrea hartuz, bizikleta hartzeko sasoia iritsi da Bergarara. Udalaren, Lokatza Ziklismo Eskolaren, Basque Adventure enpresaren, Pol-Pol Mendizale elkartearen eta Mendia Bizirik taldearen eskutik, bizikletarekin eta ingurunearekin lotutako hainbat ekintza izango dira datoren astetik aurrera. Martitzenean aurkeztu zuten I. Bizikleta Astea, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Jesus Elortza alkatearekin eta Lauri Askargorta Kirol zinegotziarekin batera antolatzaileen

ordezkariak eman zuten antolatutako ekintzen berri.

Elortza alkateak komunikabideen aurrean azpimarratu zuenez, herritik sortutako ekimena izan da Bizikleta Astea: "Basque Adventureko Iker Osa etorri zen guregana, eta, ondoren, herriko hainbat elkarte heldu diote antolaketari, eta Gorka Igoeraren inguruan beste hainbat ekitaldi sortu dira".

Bizikletaren alternatiba

Bizikletaren erabilera bultzatzea da jardunaldien helburu nagusia. Elortzaren ustez, Bergara herri proposa da bizikletan

ibiltzeko; "Ez dago aldapa handirik, nahiko laua da eta, osasunarendako ona izateaz gain, bide batez, zirkulazio arazori aurre egiteko modu ona da bizikleta erabiltzea", esan zuen alkateak.

Antolatuko ekintzak adin guztiendako herritarrei zuzendutakoak direla zehaztu zuen Lauri Askargorta Kirol zinegotziak. Era berean, bizikletaren aldeko apustua egingo dutela esan zuen Askargortak; "Oraindik ere bidegorri sarearen zati batzuk egokitzeko geratzen dira, baina nahiko genuke bizikleta erabiltzera ohitzea jendea".

Gaur egun hainbat lekutan daude bizikletak aparkatzeko guneak: Agorrosinen, Irala kalean, anbulatorioan, San Martin plazan edo Labegaraian. Edozelan ere, nahi baino gutxiago erabiltzen ditu jendeak oraindik. Hutsik egoten dira gehienetan.

Programa zabala

Gorka 38. igoera martxoaren 25ean jokatu da, eta, Mikel Larrañaga Lokatzako presidentek aurreratu zuenez, 23 urteko azpiko 120 bat txirrindulari izango dira lehian. Azken urteotako ibilbideari eutsi diote, eta Gorkatik bi aldiz igaroko dira

txirrindulariak. 90 kilometro izango dituzte aurrean.

Bizikletarekin lotutako jardunaldien barruan, martxoaren 20tik 23ra, bizikletan egindako bidaien gaineko hitzaldi-proiektzioak izango dira Irizarren, 19:00etan: Edu Moreno eta Iker Osa bergararrena izango da lehenbiziko emanaldia hilaren 20an: *Serbia eta Montenegro 2008*.

Bestalde, bizikleta eliptikoak probatzeko aukera izango da Agorrosinen martxoaren 5etik 30era, kirolguneko ordutegian.

Ikastaroen eta jardunaldien inguruko argibide gehiago: www.basqueadventure.com.

EGITARAUA

MARTXOAK 6, 7, 8

19:00 Ikastaroa: Bizikletaren oinarriko konponketak.

MARTXOAK 13, 14, 15

19:00 Ikastaroa: GPSaren erabilera ordenagailuan.

MARTXOAK 20, 21, 22, 23

19:00 Bizikletan egindako bidaien gaineko hitzaldi-proiektzioak Irizarren.

MARTXOAK 24

09:30 Haur eta gurasoendako bizikleta martxa eta jinkana Labegaraian.

10:00-12:00 Bizikleta materiala saltzeko eta trukatzeko azoka.

12:00 Herritar guztiendako bizikleta martxa irekia.

MARTXOAK 25

10:00 Gorka 38. igoera.

Oinezkoendako igoera frontoitik 09:00etan Pol-Polekin; Mendia Bizirik taldearen eskutik ibilbide tematikoa Gorkan, 10:00etan.

KAFE-MAKINAREN IRABAZLEA

**JOXE MARI
MUXIKA
ARRIETA
ZORIONAK!**



DATORRENA!
Astelehenean, erantzun
Debagoiena ezagutzen galderari eta
**irabazi
JAKIONEKO
OTARREAK!**

**Zuk zeuk
hurrengo
saria irabazi
nahi?**

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

goienakluba 2012



Hamar urtean Maalako Errabaleko negozio erdiak itxita edo ixtear

Lekualdaketak eta negozio berriak zabaltzeko zailtasunak dira arrazoi batzuk

UBANE MADERA | ARRASATE

Krisiak negozio asko gogor jo eta, ondorioz, negozioek atek itxi egin behar izan dituztela jakinek da. Baina Arrasatera etorrita, deigarria da Maalako Errabalaren egoera: 30 lokal edo negozio izatetik, 17 izatera pasa da hamar urtean. Eta laster beste bik atek itxiko dituzte; tartean, Ceciaga ospetsuak. Beraz, errabaleko negozioen erdiak atek itxita izango ditu laster.

Eta okerreana da, gainera, negozio horien lekuan berriak zabaltzeko aurreikuspenik ez dagoela, inbertsio handia egin beharra dagoelako. "Tradizio luzea duten negozio askok itxi dituzte atek (Aranburuk, adibidez, 80 urte baino gehiago zera-matzen zabalik); eta haien lekuan negozio berriak zabaltzeko, derri-gorrezkoa da lokalak araudi berrira egokitzea. Ondorioz, obra handiak egin behar dira. Eta horrek asko zailtzen du, adibidez, itxita dauden lokalok errentan ematea", dio Josemari Balantzategik, Maalako bizilagunak eta bertako lokal baten ugazabak.

Konpetentzia berriak

Herriko negozio berrien ("txinatarrak") edo herritik kanpoko ("Gasteiz") konpetentzia ere aipatu du Maalakoak ixtearen arrazoi moduan.

Horrekin batera, Errabalean larregiko zirkulazioa egotea eta horrek oinezkoen joan-etorria deseroso egitea ere salatu du: 07:00etatik 13:00etara zirkulaziora



Maalako Errabaleko negozio bat, itxita. | U.M.

DATUA

30

LOKAL

Maalako Errabalean 30 lokal daude erabilgarri. Une honetan 13 daude itxita, eta laster beste bik itxiko dituzte atek.

zabalik dago. Eta ibilgailu asko gaizki aparkatuta egoten direla salatu gura izan dute: "Askotan dendariek ibili behar izaten dugu erakuslehoi aurreetan aparkatuta daudenei atentzioa ematen", kontatu du Txuntxurunberde dandako Luis ugazabak. "Eta gure-tako ez da batere merkea hemen

negozioa izatea, e?", gaineratu du. Datu bat: orain dela hamar urte Maalako metro karratua 3.000 euro kostatzen zen.

Ohitura aldaketak

Herritarren ohitura aldaketek Errabalaren eraldaketarekin lotura dutela uste du azken horrek: "Olarte kaleak irabazi du asko, adibidez. Oinezkoen gune bilakatu zenetik... Txikiteo zirkuitua ere txikitzen joan da, eta erdigunerantz zentratzen. Hemen taberna bi daude, kale hasieran. Beste taberna, kafetegi edo jendea erakarriko lukeen negozioirik balego kale amaieran... Bestalde, Biteri plaza zabaltzeaz bat, lehen Maalatik pasatzen ziren herritar asko plazatik joaten da orain".

Eta jakina, Maalan dauden negozioek hori guztia "asko igartzen" dutela aitortu du Luisek.

Atez ateko bilketa eta Ferixalekuko igogailua besteak beste, osokoan

U.M. | ARRASATE

Martitzeneko osoko bilkurakoen artean, zaborra bateko atez ateko sistemaren aldeko apustuarekin aurrera egitea onartu zuen, besteak beste, udalbatzararak.

Horrez gainera, batzarraren amaieran EAJk salatu zuen "astebururo" Ferixalekuko igogailua "saboteatua izaten" dela. "Igande goizetan jendea jadanik

ez da bertara gerturatzen, bada-kielako ez duela funtzionatuko, larunbat gaez, nahita, matxuratu dutelako". Hala, EAJk galdetu zuen ea gobernuak neurriren bat hartu behar duen. Alkateak adierazi zuen jakinaren gainean daudela, badutela zerbait egiteko asmoa, aztertzen dabilzala zer egin, baina ezin dutela "pertsona bat ipini 24 orduan" hura zaintzen.

TXALOAK ETA TXISTUAK



Zebra-bideak ez dira ondo ikusten



Asteotan herrian izan diren bi harrapaketen harira, herritar batek salatu gura izan du Arrasateko zebra-bide asko ez direla ondo ikusten: "Adibidez, Monterronera joateko zebra-bidea baino lehen aparkatuta dauden ibilgailuek zaildu egiten dute ikuspena; beste kasu batzuetan, edukiontzia daude zebra-bidea baino lehen..."

Herrira mugimendua aurkezteko bi ekitaldi egingo dituzte bihar, zapatua, Arrasaten

Herrira mugimendua batzar irekia egingo du bihar Kulturategi areto nagusian (11:00etan). "Mugimenduaren nondik norakoak azaldu eta herritarren ekarpenak jasotzea" da helburua; beraz, atek irekita daude interesa duen edozeinendako.

Horrekin batera, iragarri dute batzar irekiaren amaieran mugimenduaren aurkezpen ekitaldia egingo dutela, Herriko Plazan: 13:00etarako egin dute hitzordua.

ZUZENKETA


Aurreko asteleheneko *Goiena* paperean idatzi genuen udal langileen soldadak %2,98 igoko direla. Bada, hori ez da zuzena. Nahiz eta udal aurrekontuak hala jaso, oraindik erabakitzeke dute iguera aplikatuko duten, besteak beste, udal langileen sindikatuekin egiten dabilzan negoziazioak ez direlako amaitu eta horko emaitzak udalbatzarrean onartu beharrekoak direlako.

Feminista izatearen harrotasuna, Martxoaren 8aren bueltan

IRATI GOITIA | ARRASATE

Manifestazioa, azoka, erakusketak eta beste izango dira Martxoaren 8aren bueltan. Manifestazioa 8an bertan izango da; azoka eta Takarraran, 10ean, zapatua. Eta besteak beste, emakume ingeniari, arkitekto eta asmatzaileen erakusketa 12tik 23ra.

Aurtengo leloa *Feminista naiz eta harro nago!* da. Eta horixe erakusten du, justu, kartel iragarleak. "Rubensek margotutako hiru emakumeak gustura daude euren buruarekin, harro; horregatik aukeratu nuen", adierazi du Zumaia Arizabaleta kartel egileak.



Kartel iragarlea. | EMAKUME TXOKOA

Maizatz

ILEAPAINDEGIA

PREZIO BEREZIAK

ILEAREN LUZERAREN ARABERA	14€	16€	18€
• Orraztea	14€	16€	18€
• Moztea eta orraztea	25,5€	28,50€	31,50€
• Kolorea ematea, moztea eta orraztea	44,50€	48,50€	55,50€
• Kolorea ematea eta orraztea	32,50€	35,50€	42,50€

- Gizonentzako ile-moztea 14,50€
- Umeen ile-moztea (8 urte beherakoak) 9€

Antso Abarka 3 behea • Musakola
ARRASATE • Tel.: 943 79 58 78

Restaurante

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE

BASATI

TABERNA

943 71 17 68

Juan Mari Agirreurreta | Palindromo lehiaketaren irabazlea

"Palindromoa egiteko lehen 1.000 saiakerak nuluak izan ohi dira"

Bigarren edizioa irabazi du Aretxabaletan bizi den literaturazale pasaiatarrak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Literatura munduko lehiaketetan ezaguna dugu Juan Mari Agirreurreta (Pasaia, 1977). Besteak beste, Bergarako amodiozko gutunen lehiaketan eta Jokin Zaitegi sari- ketan irabazi du saria. 61 palindromo izan dira aurrean eta horietatik 52k egin dute aurrera.

Iaz ere hartu zenuen parte AEDren palindromo lehiaketan. Aurten zenbat aurkeztu dituzu?

Sei palindromo bidali nituen, eta, egia esan, bidali nuen sortatik epaimahaiak hori aukeratzeak harritu egin nau. Nik besteren bat nuen gustukoago, akaso, baina oso pozik nago lehen saria irabazi dudalako.

Euskal Herri osoko 62 lan aurkeztu dira, baina bat ere ez da izan Arrasatekoa. Zergatik, zure ustez?

Ez nago ziur. Agian, askorendako zaila da, edo beste batzuek ez dute palindromo bat zer den jakin gura izan ere; hitz arraro bat ikusi dute eta ez diote kasurik ere egin.

Zuk ez duzu uste zaila denik?

Edozer gauza esatea ez da konplikatu. Baina eduki aldetik zerbait esanguratsua esatea, berriz, bai. Epaimahaiak saritu duen palindromoa egiteko, esaterako, *mina* hitza alderantziz jarri eta *anim* hitzetik abiatuz joan nintzen osatzen, erdialdeko hitzekin jolastan. Hala, animatuta minak ezabatzen diren ideia horrek zentzua bazuela kontura-



Amaia Arana epaimahaiakidea eta Juan Mari Agirreurreta irabazlea, asteon. | AED

tu nintzen. Hori bai, lehen 1.000 saiakerak nuluak izan ohi dira...

Ez da lehen aldian halako sari bat irabazten duzuna, ala?

Hala da. Izan ere, literaturarekin lotutako sariketetan parte hartzea gustatzen zait. Lan txiki horiek

gustuko ditut, eta, askotan hartzen dudanez parte, noiz edo noiz ondo irteten dira lanak.

Amaitzeko, AEDren lana txalotu eta eskertu gura dut. Antolakuntza talde ona dute; parte-hartzaileez arduratzen diren horietakoak dira.

'Animatuta bazen, ezabatuta mina!'

Horixe izan da Makos Gimeno palindromogileak, Oskar Elizburu Erdu-AEK euskaltegiko zuzendariak eta Amaia Arana Arrasateko Udal Euskaltegiko zuzendariak osatutako epaimahaiak saritu duen palindromoa. Ulergarria eta hizkuntza aldetik zuzena izateaz gain, palindromoaren balio literarioa eta artistikoa, luzera eta aberastasun semantikoa baloratu dituzte. Zorionak, Juan Mari!



Askapeneko kideak Monterron parkean, iaz, udan. | ASKAPENA

Arrasateko Askapenak aurtengo brigadak aurkeztuko ditu bihar gaztetxeko jaialdian

J.B. | ARRASATE

Arrasateko Askapenak jaialdi internazionalista egingo du bihar gaztetxean. Askapenak 25 urte beteko dituela aprobetxatuz, egitarau zabala prestatu dute, 18:00etan hasita: 2012ko brigadak aurkeztuko dituzte, lehendabizi, eta gero, 2011ko abuztuan Argentinan brigadista aritu zirenetako batzuek hitzaldia egingo dute. Honela azaldu du Xabi Llodio antolakuntzako

kideak: "Langileek berreskuratu-tako lantokien gainean egingo dute berba. Han 200 bat lantoki daude ugazaba barik, 10.000 langile ingururekin". Hitzaldia osatzeko *Fasintap* dokumentala emango dute. Gero, pintxoak dastatu ahal izango dira.

Jardunaldia borobiltzeko, Garraxi eta Egurra ta Kitto taldeek kontzertua emango dute gauean. Sarrera bi euro izango da.

Ibai-Arteren eskaintza fideltasuna saritzeko

J.B. | ARRASATE

Ibai-Arte merkataritza elkar-teak eskaintza berezia egingo du martxoan zehar. Ez da lehen aldian Ibai-Arte bezeroen fideltasuna saritzeko zozketa bereziak antolatzen dituen. Bada, hil osoan, erosketetan trukatzeko txartelak oparitu-ko ditu elkarteko edozein saltokitan.

Beraz, Ibai-Arteko bazkide diren Arrasateko saltokietan 20 euro baino gehiagoko erosketetan Ibai-Arte elkar-tearen txartela erabiltzen duten bezeroen artean 6.000 euro zozketatuko dituzte. Bezeroak unean bertan jakingo du saritua izan den edo ez. Zortekoa izan bada, saria egokitu zaion saltoki berean trukatu ahal izango du hurrengo erosketan.



Jorge Toblli eta Juanjo Martinez, Edersalud zentroko sarreran.

Juanjo Martinez eta Jorge Toblli

Edersalud zentroko kirurgia zerbitzuko zirujauak

"Laser kirurgikoak erabiltzen lehenak gara Gipuzkoan"

Juanjo Martinez, Jorge Toblli eta Rodolfo Romero medikuek osatzen dute Edersaludeko kirurgia zerbitzua. Aitzindariak dira arlo askotan.

Kirurgia zerbitzuaren leloa da Kirurgiaren ikuspegi gizatiarra. Zer esan gura duzue?

Gaixoari ematen zaion arretatik inportanteena dela medikuak pazientearekin duen harremana. Kirurgia gizatiarra moduan definitzea dut gustuko.

Zela gauzatzen da egunerokoan?

Pazientearikiko harremana gertukoa eta erraza izatea da lehentasuna. Prozesu guztia ondo azaltzen eta dituen zalantzak edo beharrak asetzeko beti gertu egoten ahalegintzen gara. Jakina, ahaztu barik pazientearen arazoa efizientziarik eta efikaziarik handienarekin konpondu behar dugula.

Ze gaixotasun artatzen dituzue?

Arruntenen artean barizeak, herniak, hemorroideak, fistulak, fisurak, idorreria, besikulako harriak (koloproktologiarekin lotutakoak)... Zailagoen artean, obesitate (ebakuntza egiten dugu), kolonoko edo urdaileko minbiziak, erreflujo gastroesofagikoa, tiroideetako noduluak...

Koloproktologia, zer da hori?

Ez da oso espezialitate ezaguna, baina bai horren barruko gaixotasunak: heste eta ipurtzuloko gaixotasuna tratatzen ditu; hemorroideak, fisurak, kolonoko minbiziak...

Zuek aitzindari izan zineten espezialitate horretan, ezta?

Nik antolatu nuen Koloproktologiaren lehen unitatea Gipuzkoan. Gaixotasun horiek ikertzeko eta tratatzeko modu berriak ezarri genituen, eta hala segitzen dugu. Edersaludeko kirurgia zerbitzuak hori eskaintzen du: baliabiderik aurrera-

koiadak halako gaixotasunei aurre egiteko. Tratamendu ez kirurgikoen bitartez ebakuntzak ebitatzeko bidea. Eta beste erremediorik ez dagoenen, esandakoa, medio berri eta aurreratuak ditugu ebakuntzak egiteko.

Adibidez, barize-hernien kasuan, zela jokatzeko duzue?

Paziente bakoitzaren azterketa egin eta tratamendu jakina eskaintzen zaio. Izan ere, beti ez da derrigorra ebakuntza egitea.

Baina esan duzuen moduan, ebakuntza egin behar bada, aurrerapauso handiak eman dira.

Bai, laser kirurgikoak erabiltzen lehenak gara Gipuzkoan. Horiei eta teknika endoskopikoei esker, gaixotasun horiei hobeto egin diezaiekegu aurre eta ebakuntza ostekoa ere erosoagoa da.

Hernien kasuan ebakuntzak ebaita daitezke?

Ez, baina hor ere aurrerapauso garrantzitsuak izan dira.

Obesitatea gaixotasuna da?

Mailaren arabera bai. Eta gainera, obesitateak diabetea moduko beste gaixotasun batzuk ekar ditzake.

Noiz egiten dira ebakuntzak?

Obesitatea patologikoa denean, argaltzeko aukera guztiak (dietak, gimnasia...) agortu dituenen edo pazienteari diabetea, bihotzekoa edo obesitateak gaiztotzen dituen gaixotasunak dituenen.

Zela egiten dira ebakuntza horiek?

Kirurgia laparoskopikoarekin egiten ditugu; Gipuzkoan aitzindariak gara kirurgia mota horretan, eta ebakuntza ostekoa eta erreku-perazioak erosoagoak dira.

Koloproktologiaren gaixotasunen tratamenduan (fistulak, hemorroideak, kolonoko minbiziak...) aitzindariak gara

Consultorio Ginecológico
Miramón

edersalud
ZENTRO MEDIKOA

Nafarroa etorbidea 4, Arrasate ■ Tel.: 943 79 20 18
www.edersalud.com



BEHEKO GARAJETIK

Patxi Bengoa, aste barruan, lbabe Garajeetako tailerrean. | X.U.

Patxi Bengoa | lbabe Garajeetako langilea

"Krisiaz, jendeak atzeratu egiten du mantenua, eta ez da komeni"

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Patxi Bengoa (Arrasate) lbabe garajeak sortu zutenetik dabil bertan lanean, 1981ean. Psikologia ikasketak egin zituen, baina osabarekin tailerrean lanean hasi eta gustua hartu zion lanbideari.

Egungo egoeraz jendeak berdin zaintzen du autoa?

Ez, fakturei gehiago begiratzen diegu. Jendeak atzeratu egiten du autoari egin beharreko mantenua, eta ez da komeni. Etxeek adierazten dituzten epeak errespetatzea komeni da.

Arriskutsua ere izan daiteke, gurrpil zaharrekin ibiltzea, esaterako.

Hori ere igartzen dugu, jendea kadukatutako gurpilekin dabilela, alegia. Urte osoan zaindu behar da hori, baina neguan gehiago, arriskutsuagoa delako.

TRT Racing taldeko babesleeta-ko bat zarete; eskertuko dute laguntza.

Aspaldiko ezagunak dira Orobengoa anaiak eta sarri etortzen dira hona. Gainera, tailerrean lan egiten duen beste lankide bat euren laguna da. Mekaniko lanetan eurek jarduten dute, guk gurpilekin eta halakoekin lagundu izan diegu. Polita izan da aurten lortu dutena.

Egungo automobilak lehengoak baino hobeak dira?

Bai, ez dago zalantzarik. Baina mekanikariendako baita konplikatuagoak ere.

Zer behar da mekanikari ona izateko?

Pazientzia handia. Lan askorekin zabiltzanean gauzak berehala egin nahi dituzu, baina zerbaitetan hasi aurretik hobe da egin beharrekoa birritan pentsatzea, ez damutzeko.

Arrasateko kaleak Takarraran eginez 'okupatzera'

Martxoaren 10ean izango da emakumeen proba

X.U. | ARRASATE

Martxoaren 10ean, zapatua, egingo dute emakumezkoen Takarraran lasterketa (12:30), Arrasateko Udalak antolatuta. Eta dagoeneko zabalik dago izen-emate epea (doakoa da). Hala, AUKEAn (Musakola), Emakume Txokoa edo BAZen eman daiteke lasterketan parte hartzeko izena, martxoaren 8ra arte. Gainera, Takarraran proba prestatzeko entrenamendu plan bat ere prestatu dute antolatzailerak.

Edonork egiteko modukoa

Takarraran ez da gogorra, azkarrago edo erritmo lasaiagoan edonork egiteko moduko proba da, ibilbidea ez da eta hiru kilo-

metrora iristen -2.820 metro Arrasateko erdialdeko kaleetan-. Hala, Arrasateko Udalaren helburua ez da kirol hitzordu lehiakorra antolatzea, eta bai emakumezkoak kirol jarduera egitera animatzea, "Emakumei espazio publikoak okupatzeko eta, bide batez, kirola egiteko aukera zabaltzea". Hala, Takarraran lasterketaren ezaggarriak dira urtero izaten den giro alai eta errebindikaziorako ematen duen aukera. Iaz emakume mordoak animatu ziren -12 urtetik gorakoek eman dezakete izena- eta aurten ere asko batuko direlakoan daude. Lasterketa antolatzen laguntzen dute kirol elkarteek eta Emakume Txokoko lagunek.



Iazko edizioako irteera unean, emakume mordoak Portaloian. | JULIO CALLEJA

Iraultza Mondran: entrenatzaile aldaketa eta jokalaririk berriak

Aitor Lopez Rekarte izan da Mondran jokatzeko proposamena jaso duenetako bat

X.U. | ARRASATE

Azken urteotan eman ez dituen albisteak bata bestearen jarraian eman ditu Mondrak aste barruan. Batzorde Kudeatzaileak taldea hartu izana ez da arlo ekonomiko zuzentzera mugatu, eta aste barruan iraultza egon da Mondran; zapatuan Oiartzunen etxean 2-0 galdu ostean gauzak asko aldatu dira talde zuri-morean.

Astelehenean jakinarazi zioten Iban Rodriguez entrenatzaileari eta haren lantaldeari (Unai Iglesias, Iban Roa eta Pedro Rodriguez) Mondra zuzentzeari utziko ziotela -lantalde horrek baldintza mugatuarekin egin du lan-, eta aste barruan entrenatzaile berriak zuzendu dituzte lan-saioak. Hala, hiruko batek hartu du Mondra entrenatzeko ardura: talde zuri-morea oso ondo ezagutzen duten Jon Muruamendiaratz eta Ekain



Lopez Rekarte, Mojategin, 2007an, Almeriarekin fitxatu berritan. | X.U.

Garin jokalaririk ohiek eta Iker Zaitegik; haiek dira Mondrako entrenatzaile berriak. Baina aldatetarik ez daude entrenatzaileetan soilik, hainbat jokalaririk betera-

norik Mondran jokatzeko gonbita egin diete-eta; tartean, Realeko jokalaririk izandako Aitor Lopez Rekarteri. Hirugarren mailatik etorri den Julen Zaitegi dagoe-

neko jokatzeko dabil eta duela gutxira arte Mondrako jokalaririk izan diren Jon Loiti eta Andres Castillejo ere talde zuri-morean itzuli dira.

'Pitu' eta 'Bonba'

Bestalde, entrenatzaile berriak Haritz Arabiourrutia *Pitu*-ren eta Aitor Lopez Rekarte *Bonba*-ren erantzunen zain daude. Biek ala biek utzita zuten futbola, baina gorputzaldi olean jarraitzen dute, eta oso garrantzitsuak izan daitezke kategoriari eusteko eta Mojategiko zaleen artean ilusioa pizteko. *Pitu*-k inork baino hobeto ezagutzen ditu Bigarren B maila eta Hirugarren Maila, eta ekarpen handia egin dezake euskarri lanetan -entrenatzen ibili da aste barruan, oso txukun-. Eta zer esan *Bonba*-ren kasuan. Harekin berba egin du Goienak: "Gertu nago Mondrari laguntzeko, zelaian edo zelaitik kanpo, eta gogoz nago, baina denbora behar da horretarako eta Donostian bizi naiz. Ez zait serioa iruditzen aste batean taldearekin egotea, eta bestean lan kontuentatik kanpoan". *Bonba*-k gaur emango die erantzuna.

ZALDIBAR

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Iriztu	31	13
2 Dribling	31	13
3 McAwen	30	13
4 Dublin	29	13
5 Sonografos	27	13
6 Abokajarro	27	13
7 Aldatz	24	13
8 AT Betrayer	22	13
9 Iluntz	16	13
10 Lasagabaster	15	13
11 Fidel & Discipulos	15	13
12 Iluna	9	13
13 Ekaitz	4	13
14 Aston Birra	3	13
15 Portaboleiros 2.0	3	13

PARTIDUAK

MARTXOAK 3, ZAPATUA

09:30	Abokajarro - Aldatz / Ekaitz
10:30	Ekaitz - Aston Birra / Abokajarro
11:30	Iluna - Lasagabaster / Aston Birra
12:30	McAwen - Fidel & Discipulos / Iluna
13:30	AT Betrayer - Portaboleiros / Fidel
16:30	Dribling - Iluntz / Antolatzailerak

MARTXOAK 4, DOMEKA

12:30	Sonografos - Iriztu / Antolatzailerak
Iriztu	(Atsedena)

Lehenengo faseko azken partidua

Oraingo asteburuan jokatu dute ligako hamabosgarren jardunaldia, lehenengo faseko azkena. Eta Dribling taldeak aukera aparta izango du lehenengo postura salto egiteko, kontrario zuzen Iriztuk atsedena izango du-eta. Talde horrek kale egiten badu, zain daude McAwenekoak, puntu bat gutxiagorekin.

Datorren astean, kopako partidua

Oraingo asteburuaren ostean ligak atsedena hartuko du, datorren asteburuan kopa txapelketako partidua jokatuko dituzte-eta. Hori bai, asteburu bakarrean ez dute tornea osorik jokatuko.

Haserre, Musakolako tenis kantxak busti egiten direlako

Domekan VNRC 2012 deritzon tenis txapelketaren lehen jardunaldia jokatu zuten Arrasate AKEkoek eta Santanderko La Magdalena taldekoek. Jokatu, baina, erdizka. Izan ere, aspaldian, euria egiten duenean Musakolako tenis pistetako bat busti egiten da, eta egoera horretan jokatzea arriskutsua da. Hori ikusita, Santanderkoek muzin egin zioten pista horretan jokatzeari, nahiz eta Arrasatekoak pista lehortzen ahalegindu ziren. Jakin dugunez, arazoa konpontzeko lanetan ibili dira aste barruan.

Emakumeak ardatz dituen antzerkia Kooltur Ostegunetan

Emakumearen botere hartzea landuko du Que Par Che Teatro taldeak 'clown' erako antzezlanean

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Emakumeen Egunarekin bat eginda, Kooltur Ostegunak ekimenak gai hori ardatz duen *Soltarito al aire* antzezlanaren ekarriko dute datorren egunean, Martxoak 8, gaztetxera, 22:00etan. Bigarren aldia da Kooltur Ostegunak ekimenak antzerkia antolatzen duena, eta aurrekoan ere antzerki talde bera ekarri zuten: argentinarrak batek eta bilbotarrak batek osatzen duten Que Par Che Teatro taldea. Umore eta sentsibiltate handiarekin, emakumearen botere hartzea landuko dute, *clown* erara.

Kokein eta Inoren Ero Ni

Martxoaren 15ean, berriz, Kokein taldea igoko da gaztetxeko taula gainera, Kooltur Ostegunetan barruan. Euskal Herrian rock alorrean talde ezaguna izatera iritsi zein Kokein. Bada, abeslariaren amatasunak eta Xabier Letek Cobra taldea sortu izanak taldearen hainbat urtetako etena

ekarri badu ere, gogoz eutsi diote eta diskoa kaleratzear daude. Litekeena da Arrasaten kontzertua ematen dutenerako kalean egotea lana, Kooltur Ostegunak ekimeneko kideek aurreratu dutenez.

Bestetik, hilaren 22an Inoren Ero Ni taldeak egingo du kontzertua gaztetxean. Bap taldearen errautsetatik sortutako taldeak laugarren diskoa kaleratu berri du. Hain justu, Arrasatekoa laugarren aurkezpen kontzertua izango da. Hilaren 28an Sharon Stoner oñatiarrek itxiko dute martxoko egitaraua.

Apirilean Kepa Junkera

Kooltur Ostegunetako bultzatzaileek azaldu dutenez, badihardute apirileko egitaraua lotzen, eta aurreratu dute Arrasatera etorriko diren taldeetako bi zeintzuk izango diren: batetik, Kepa Junkera hemen izango dela esan dute; bestetik, Hudson Falkons estatu-batuarrak ere bai.



Leteren omenaldian parte hartuko duten abeslarietako batzuk. | GOIENA

'Sortuko dira besteak' Leteren omenezko kantaldia hilaren 31n

M.B. | ARRASATE

Euskal Herrian barrena izandako ibilbide arrakastatsuen ondotik, Arrasatera iritsiko da Xabier Leteren omenez zerbait abeslari eta musikaririk sortutako *Sortuko dira besteak* kantaldia. Martxoaren 31n izango da, 19:00etan, Amaian, eta sarrerak dagoeneko salgai daude. Servikutxako kutxazainetan, 943 001 200 zenbakian, www.kutxa.net webgunean eta Amaia Udal Antzokiko leihtailan.

Pier Paul Berzaitzek, Pettik, Eñaut Elorrietak (Ken Zazpi), Alex Sagarduik (Gatibu), Mikel Urdangarinek, Arantza Irazustak eta Amets Artzalluzek hartuko dute parte jaialdian. Bada,

abeslari horiekin batera musikari hauek ere arituko dira: Karlos Gimenez, Joxan Goikoe-txea, Xanet Arotzena, Txema Garces, Luis Fernandez, Miren Zeberio eta Beñat Serna.

Ekitaldi gehiago

Leteren omenezko jaialdia Udalen martxoko egitarauaren barruan dago, eta ekitaldi hauek ere izango dira hilean zehar: Kataluniako Josep Porter i Rovira de Montblanc udal musika eskolako taldeen kontzertua, 17an; *Harezko ipuinak* umeendako antzerkia, 25ean; eta 28an, Maialen Lujanbiok Uxue Alberdi elkarrizketatuko du *Emakumeak protagonista* ekimenaren barruan.

'Los descendientes' eta 'Malutatxo', aste bukaerako filmak

Los descendientes izeneko Alexander Payneren drama ikus-teko aukera egongo da bihar (19:30 eta 22:00), etzi (19:30) eta etzidamu (20:30) Amaia antzokian.

Haurrendako zinemari dagokionez, *Malutatxo* abenturazko filma egongo da ikusgai bihar eta etzi (17:00).

Horrekin batera, bihar, martitzena, *Declaración de guerra* izeneko Valerie Donzell zuzendariaren drama ikus-teko aukera egongo da (20:30).

Musakola auzoko azken ludoteka ibiltaria asteburuan

Bihar, zapatua, Musakolako azkeneko jolasleku ibiltaria egongo da. 10:30etik 12:30era, 3 eta 10 urte artekoendako txanda izango da eta 12:30etik 13:30era, 1 eta 8 urte artekoendako, heldu baten laguntzarekin. Bakoitzaren sormena erakusteko aukera egongo da: han egongo den materiala kontuan izanda, nahi den eskulan, jolas, edo ekintza egin ahal izango da. Martxoaren 10etik 31ra arteko zapatuetan San Andres auzoan egingo da jolaslekua.



RK^UZ
MUEBLES
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE



RK^UZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA **FAGOR**
banatzaile ofiziala



RK^UZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA **expert**
banatzaile ofiziala

Arkauz zure etxea da.

GRUPO RK^UZ
ARETXABALETA 1950-2012 ARRASATE

60 urte baino gehiago

Atez atekoaren gaineko galdeketa eskatu du EAJk

Zaborren gaia Plan Estrategikoan eztabaidatuta dagoela dio Bilduk; atez ateko sistema ezarri baino lehen mozioa aurkeztuko dutela esan zuen alkateak

EDU MENDIBIL | BERGARA

Atez ateko zabor bilketak hartu zuen protagonismoa astelehenero osoko bilkuran. Erregu eta galderetan, EAJk herri galdeketa egitea eskatu zuen zaborren gaiaren gainean eta Jesus Elortza alkateak hauxe erantzun zien: "Gai hori aztertuta dago Plan Estrategikoan eta mozioa aurkezteko asmoa daukagu. Orduan egingo dugu berba". Aurreko egunean Bilduko ordezkariak Donostian emandako prentsurrekoan jakin zenez, Bildu agintean dagoen Gipuzkoako 34 udalerritan (Bergaran ere bai) atez ateko sistema ezarri nahi dute 2013an.

Aintzane Oiarbide EAJko bozeramaileak hauxe eskatu zion Udal Gobernuari: ekaina baino lehen herri kontsulta martxan jartzea, galdeketa galdera argia izatea eta kontsulta horren emaitza bere egitea Udalak. Elortza alkateak gaia osoko bilkuran aztertuko dela esan zuen, aurretik Plan Estrategikoan landu izan dutelako. Horren ondoren, Oiarbidek gogoratu zion Plan Estrategikoan galdeketa egitea jasota dagoela eta horrelako garrantzia duen gai bat herritarrekin kontsultatu beharra dagoela. Elortza alkateak hauxe esan zuen: "Plan Estrategikoan parte hartzeko aukera izan dute nahi izan duten guztiak, parte hartze zabala izan da eta han garbi geratu da atez atekoaren premia. Eta badugu asmoa herritarrek behar bezala informatzeko atez atekoaren gainean". Oiarbideren arabera, herritarrek aurrez informatu beharra dago, ez erabakiak hartuta daudenean. Era berean, Plan Estrategikoan ez dela atez atekoaren beharrik jasotzen azpimarratu zuen.

Juan Jesus Alberdi EAJko zinegotziak hau gehitu zuen: "Herritarrei zuzenki eragiten dien gai bat nahiko arrazoia da kontsulta egiteko, eta aurrekoek ez badituzte gauzak ondo egin kontsultak eginez, goazen ondo egitera". Elortza alkateak esan zuen,

nez, eztabaidaren atzean atez ateko sistemaren edo errauskailuaren aldeko erabakia dago eta metodorik eraginkorra aukeratu beharra zegoela gaineratu zuen. Jaione Isazelaia zinegotziaren hitzetan, bizi kalitatea ez dute "hipotekatu nahi eta ingurunearekin koherentzia mantentzen" ari dira. Poliki-poliki hedatzen ari den sistema da atez atekoa eta eraginkorra dela ikusi da, natura gehien errespetatzen duena". Osoko bilkura jarraitzen ari ziren Aitor Arantzabal eta Maite Guridi zinegotzi ohiek ere hartu zuten hitza, atez ateko sistema defenditzeko. Arantzabalen arabera, EAJ herri galdeketa egitea defenditzen dabil eta "nahiko hipokrisia" iruditzen zaio, "horrelakorik sekula ez duenean egin"; bestalde "egia da Ezker Abertzaleak beti aldarrikatu izan dituela herri kontsultak baina egia da baita zaborren gaia inoiz kontsultatu" ez dietela; "atez atekoa edo errausategia da eztabaida, eta atez atekora jo behar dugu datuek ez dutelako gezurrik esaten". Amaieran, EAJk berriz ere galdetu zion alkateari herri galdeketa egingo ote zuen eta alkateak kontua nahiko argi geratu zela erantzun zien jeltzaleei.

'Aska'-ren aldeko mozioa

Eztabaida horren aurretik, Udaleko langileek aurkeztutako *Aska*

libre. 21 asko dira mozioa onartu zuten Udal Gobernuako kideek eta EAJk. PSE-EEko zinegotzia abstenitu egin zen bozketan. Mikel Askasibar *Aska* bergararrak 21 urte bete berri ditu kartzelan. Jasotako zigorraren hiru laurdenak beteta izateagatik, *Aska*-ren askatasuna eskatzen dute. "Askatasuna gauzatu bitartean *Aska* Euskal Herriko espetxe batera gerturatzea" jasotzen da onartutako testuan. Pili Gartzia Udaleko langileak eta Jabi Lazkano preso ohiak hartu zuten hitza osoko bilkuran. Gartzia azaldu zuenez, 100dik gora udal langilek sinatu dute testua: "Garbi dagoena zera da: gure esku-bideak murriztu nahian legea aipatzen dute komeni zaienean bakarrik; euren legeak gure aldekoak izan ahal direnetan ezkutatatu egiten dute. Oraingo honetan, *Jose Luis Elkoro libre* plataforma sortu zenean, lortu ezina zirudiena lortu genuela gogoraztea besterik ez dago". Jabi Lazkanok, berriz, Bergarako preso ohien komunikatua irakurri zuen *Aska*-ren askatasuna aldarrikatuz.

Nafarroaren konkista

Bestalde, 1512-2012 *Nafarroaren Konkista* izeneko adierazpena aho batez onartu zuten. Nabarralde Elkarteak eta Debagoieneko Nafarroa Bizirik lantaldeak aurkeztu zuten adierazpena, "1512an Nafarroako azken lur independenteen inbasioa gauzatu zela-eta. Geure nazio eta herritar libreen autoestimua suspertuz, gogora dezagun Atxorrotzeko gaztelutik Elosuko gazteluraino Debagoiena, eta itsasoraino Deba bailara osoa, Nafarroa independentearen eskualdeetako bat zela. Gogora dezagun euskaldunok Europan estatu subirano baten herritar izan gine-la eta gure independentzia galtzeak gaurko gatazka eta egonezina ekarri digula". 1512-2012 *Nafarroaren Konkista* adierazpenaren berri Rafa Santxex Muxikak eman zuen astelehenero udalbatzan.

**Atez atekoa
2013ko
urtarrilean
ezarri nahi dute**

**Mikel Askasibar
'Aska'-ren
aldeko mozioa
onartu zuten**



Eraiste lanak uste baino gehiago luzatu dira. | JULIO CALLEJA

Mariaren Lagundiko lanak, geratuta oraingoz

Zabalotegi 14ko etxebizitzetan falta zen pareta egin beharko dute eraiste lanekin jarraitzeko

E.M. | BERGARA

Mariaren Lagundiko eraikin berriaren botatze lanetan arazoak sortu dira eraikinaren ondoko Zabalotegi 14. zenbakiko etxeekin, eta hori dela eta, eraiste lanak gelditu egin behar izan dituzte puntu horretan. Zabalotegi 14ko eraikinak ez zeukan paretarik Mariaren Lagundiko eraikinaren aldera, eta beraz, akordiora iritsi behar izan dute egunotan Ortuibarrek eta Jabier Arregik osatzen duten Lotzen enpresak eta Zabalotegi 14ko bizilagunek. Hamabi etxebizitza daude Zabalotegi 14ko eraikinean.

Mariaren Lagundiko erakin berria eraikitzeko lanak lehenago hasi baziren ere, Zabalotegi 14ko eraikinekoak lehe-

nago bukatu zituzten, 1962. urte aldera hain zuzen.

Zabalotegi 14ko pareta

Erregetxo plaza aurreko eraikina botatzeko lanak Gabonen atarian, abenduaren 19an, jarri zituzten abian eta uste baino gehiago luzatu dira.

Orain, esan bezala, Lotzen enpresa arduratuko da Zabalotegi 14ko eraikinean falta den pareta egiteaz eta eraikinari iragazgaitutako itxiera emateaz; eraiste lanek martxo erdialdera egingo dute aurrera.

Hasierako proiektuaren arabera, Mariaren Lagundiko eraikinaren tokian 63 etxebizitza egitea aurreikusten dute: 12 etxebizitza babes ofizialekoak; 13 tasatuak; eta 38 libreak.

OHARRAK

ODOL ATERATZEA

Odol Emaileen Elkarteak deituta, odol ateratzea izango da eguaztenean, hilaren 7an, ambulatorioan, 18:00etatik 20:30era.

ERREGU UNEA BIHAR

Bergara eta Antzuolako osasun pastozak erregu une bat egingo du bihar, zapatua, Trinitateko elizan, 17:00etan. Nahi duen oro dago gonbidatuta.

IPINTZA: IKASLEEN ZOZKETA

DBHko 4. mailako ikasleek saskiak zozketatu zituzten Aratus-teetan, ikas-bidaiaren alde. Saritutako zenbakiak: 34, 835, 938, 186, 946 eta 872.

SAN JOXEPEREN IRTEERA

San Joxepe erretiratuen elkar-teak sagardotegira irteera iragarri du martxoaren 7rako. Argibideak: 943 76 21 40.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92



Berriketan egitasmoan taldetxoak osatzen dira euskaraz berba egiteko. | ARTXIBOA

'Berriketan' eta 'Hika-Lagun', euskara indartzea helburu

Udala, Jardun elkarte, Udal Euskaltegia eta AEK daude 'Berriketan' egitasmoaren atzean

E.M. | BERGARA

Berriketan Bergarako mintzalagun programa indartu nahi dutela eta, jendea animatu dute programa horretan parte hartzera.

Udala, Jardun elkarte, Udal Euskaltegia eta AEK daude *Berriketan* egitasmoaren atzean. Euskara ikasi arren erabiltzeko ohitura edo aukerarik ez daukan

jendeari, esparru hori zabaltzeko modua ematea da *Berriketan* egitasmoaren helburua. Egitasmo horretan parte hartzen duen jendea astean ordu batez taldeka elkartzen da: binaka, hiruak, launaka... Euskaraz berba egiten duten bitartean, besteak beste, honako ekintza hauek egiten dituzte: paseatu, kafea hartu, herrian dauden erakusketetara joan...

Honetaz gain, talde desberdinetako jendea elkartzeko asmoarekin, asteburuetarako ekintza osagarri batzuk ere antolatzen dituzte: mendi irteerak, sagardotegira, gazta egitera edo kobazuloak ikustera joateko irteerak... Edozelan ere, taldearen gustuen arabera ekintzak izaten dira beti, eta ahal duenak eta interesa duenak hartzen du parte.

Hitanoa indartu

Bestalde, *Hika-Lagun* programan parte hartzera ere deitu dituzte herritarrak. Hitanoaren erabilera areagotzeko asmoz, *Hika-Lagun* proiektua berriro abian jarri nahi dute. Bada, egitasmo horietan parte hartu nahi dutenek Jardunek kultura etxean duen bulegora jo dezakete.

NIRE USTEZ

AITZIBER AZKONDO



Bideo-jokoak eta Komunikaldiak

Bideo-jokoak *Euskal Herrian* da aurten, besteak beste, Huzezi, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak erabiliko duen gaia aurtengo *Komunikaldien* jardunaldia jorrazteko. Duela aste batzuk, jardunaldia aitzakia hartuta, erreportajea argitaratu zuen GOIENAK, eta bertan bideo-jokoaren sektorea produktibo indartsua izatearen arrazoiak aipatu ziren. Sektore berria, gaztea, teknologikoki puntakoa, berrikuntza dakarrena eta ikerketa bultzatzen

duena da, eta bidez batez, hainbat sektoreetan aplikagarria dena, besteak beste, hezkuntzan, industrian, hedabideetan...

Bizkaia aldean dagoeneko jabetu dira sektore honek eragin ditzakeen onurez eta azken urteetan antolatu dituzte hainbat jaialdi, ekimen eta azken zutabeen aipatu nuen bezala, sektorean oinarrituriko unibertsitate ikasketak abian dira duela bi urte.

Komunikaldiak izan daitezela gure ibarrean eta, bidez batez, Gipuzkoa osora industria honen garrantzia zabaldu eta hainbat ekimenen abiagune izan dadila. Gauzatu eta jardunean diren proiektuen ordezkariak bertan arituko dira, besteak beste, nazioarteko kasu praktikoez. Ea ba, abaguneaz baliatzen garen, aukera aparta da!

"Bizkaian jabetu dira sektore honen onurez"

'Euskaraz bizi nahi dut' astea martitzenetik aurrera, EHE, Ikasle Abertzaleak eta Jardunen eskutik

ANDER MONEDERO | BERGARA

Euskaraz bizi nahi dut astea antolatu dute Bergarako Euskal Herrian Euskaraz, Ikasle Abertzaleak eta Jardunek. Ekimen horren helburua hauxe da: martxoaren 17an Donostian ospatuko den *Euskaraz bizi* egunerako motorrak berotzea eta herritarrak bertan parte hartzera animatzea. Besteak beste, dokumentalak, hitzaldiak, bertso afaria eta haurrentzako jolasak egingo dituzte martitzenetik aurrera. *Izan, egin, eragin* EHEren dokumenta emango dute martitzenean, 19:00etan Gaztetxean

Azken urte hauetan euskararen normalizaziorako egin den lan guztia nabarmendu zuten antolatzaileek martitzenean, komunikabideen aurrean. Hala ere, oraindik lan asko egiteko dagoela azpimarratu zuten. Euskaraz bizi izateko aukerak sortu behar direla adierazi zuten, hala nola, sendagileak, epaileak, hedabide euskaldunak... Hori gabe euska-



Antolatzaileak, martitzenean egindako aurkezpenean. | A.M.

ra oso eremu txikira mugatzeko arriskua dagoela uste dute.

Hitzaldia eta bertso afaria

Iñaki Martínez de Lunaren *Euskaraz bizi nahi dut* baina...

hitzaldia izango da eguaztenean, 19:30ean kultura etxean, eta hilaren 9rako Jon Maia eta Agin Rezolarekin bertso afaria iragarritako Agorrosingo tabernan.

Jesus Elortza Bergarako alkatea 'Harira' telebista saioan; herritarrek parte hartzeko aukera daukate

Jesus Elortza alkatea Goiena telebistako *Harira* saioan izango da datorren martitzenean, hilaren 6an. Herritarrek ere parte hartu ahal izango dute saioan. Alkateari galderak egiteko aukera izango dute, saioa zuzenean baita, 21:30ean. Hainbat modutara egin ahal izango dute hori: telefonoz (943 25 05 03); Twitter bidez (#harira traola erabilia); edo e-postaz: harira@goiena.com.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik dago

Urtero legez, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2012. urteko errolda onartu du Udalak. Zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 31ra arte izango da zabalik. Egun horretatik aurrera errekararekin eskatuko da. Helbideratutako erreziiboak maiatzaren 31n kargatuko dira kontu korrontean. Edozein argibidetarako udaletxera, 943 77 91 64 telefono zenbakira, jo dezakezue.

Iker Valleren margoak Aroztegin hilaren 11ra arte; Selena Lizartzabururenak Nahikarin, domekara arte

Iker Valle donostiarraren margo erakusketa ikusgai dago Arzotegi aretoan martxoaren 11ra arte, ohiko ordutegian. Bestalde, Selena Lizartzaburu bergararrak bakarkako lehen erakusketa jarri du Nahikarin. Hamabi olio-lan ikusgai jarri ditu domekara arte. Mari Paz Alustitza eta Rikardo Azkargortaren ikaslea izandakoa da Selena Lizartzaburu.

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Pedalei eragiteko 32 domeka dituzte

X.U. | BERGARA

Lokatza Ziklismo Eskolako zikloturista sailak kaleratu du dagoeneko 2012ko egutegia. Aspaldiko ohiturari eutsita, Dorletara egiten duten irteerarekin hasiko dute denboraldia. Domekan 09:00etan irtengo dira San Martin plazatik. Tradizioari jarraituta, lore sorta eskaintza egingo diote Ama Birjinari, haren babesaz izateko errepidean.

Irteera luzeenak udan egingo dituzte, ordurako kilometro asko izango dituzte-eta hanketan pila-tuta. Quebrantahuesos proba ospetsua ekainean da, eta aurten ere izango dira han herriko ordezkariak. Era berean, urteroko bidaia San Fermin egunerako aurreikusitako dute aurten.

EGUTEGI HASIERA

Martxoak 4: Bergara - Dorleta - Bergara. 50 km.

Martxoak 11: Bergara - Itziar - Bergara. 70 km.

Martxoak 18: Bergara - Udana - Aizpurutxo - Bergara. 65 km.

Martxoak 25: Bergara - Ondarroa - Markina - Ixua - Bergara. 85 km.

Apirilak 1: Bergara - Arlaban - Zalduondo - Bergara. 90 km.

Apirilak 8: Bergara - Kanpanzar - Zornotza - Durango - Bergara. 100 km.

Apirilak 15: Bergara - Gasteiz - Legutio - Bergara. 100 km.

Apirilak 22: Bergara - Gerrikaitz - Lurreta - Kanpanzar - Bergara. 82 km.

Apirilak 29: Bergara - Arlaban - Otxandio - Arlaban - Bergara. 80 km.



Bergarako zikloturistak urteroko hitzorduan, Dorletan. | BERGARAKO TXIRRINDULAKIAK



JULIAN UGALDE

Patxi Ugalde, Gipuzkoako txapel-dun

Asteburuan jokatu zuten Irunen Gipuzkoako txapelketa, eta bertan parte hartu zuten 112 piraguiisten artean egon ziren Beti Bustiko sei lagun. Gazte mailan Patxi Ugalde izan zen onena, eta aipatzekoa da Aritz Gimbertek egin zuen lan ona, domina eskuratzeko lehian ibili zen-eta. Oraingo asteburuan San Migelen lehiatuko dira.

Ander Mugurutzak garaipen estua Urbietaren kontra

Soraluce lau terdiko txapelketa barruan Ander Mugurutzak aurrera jarraitzen du, martitzenean Urbietari 22-21 irabazi ostean. Yoldik ere beste horrenbeste egin zuen Arrietaren kontra (22-4). Datoren martitzenean (19:30), berriz, Peñasek Bilbaoren kontra jokatu du eta Arratibekek Jakaren kontra.

Xabier Silveiraren azken liburuaren aurkezpena gaur

Angiolillo liburutegiak hilero egiten dituen liburu aurkezpenen barruan, Xabier Silveira idazle eta bertsolariaren *A las nueve en el Faisan*-en bertso-aurkezpena izango da gaur, hilak 2, gaztetxean. Silveira bera eta laguntzaile batzuk izango dira liburu bertsoekin aurkezten (18:00etan).

Domekan 'Herrixa dantzan' dantzaldia Zabalotegin

Bergarako Udalak antolatuta *Herrixa dantzan* egingo dute domekan Zabalotegin. 18:00etatik 19:00etara haur eta gurasoek elkarrekin egingo dute dantza eta 19:00etatik 20:30era helduentzako saioa izango da; Euskal Herriko eta Europako beste eskualde batzuetako dantza tradizionalak egingo dituzte. Doan da.

Mariaren Lagundia Ikastolan Cambridge azterketak egiteko aukera!

Herrian bertan eta merkeago

Informazio gehiago: www.mlagundia.net



Mariaren Lagundia
Ikastola

Espaloia 1
Tel. 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net
www.mlagundia.net



- PET
- FIRST
- ADVANCED
- PROFICIENCY

Matrikula:
martxoaren 31ra arte.



UNIVERSITY of CAMBRIDGE
ESOL Examinations

Authorised Centre

Jone Elortza | Sokatiralaria

"Oso kirol gogorra da, baina sokatirak 'engantxatu' egiten du"

Jone Elortzak munduko txapelketa irabazi berri du Gasteizko Badaiotz taldearekin, Eskozian

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

16 urterekin hasi zen sokatira egiten Gasteizen. Egun, 37 urte eta bi alaba ditu. Urria ezkerro sokatira denboraldia prestatzen egon da, eta orain jaso ditu emaitzak: munduko eta Euskal Herriko txapelketa da Jone Elortza. Harekin egon gara.

500 kilotik beherako finala txinatarren kontra irabazi zenuten. Zer moduz?

Gogorra izan zen. Txina Taipei talde gaztea dauka, baina oso handiak eta esperientziadunak dira. Teknika zorrotza duen taldea da. Txinatarrak izterrak nirearen bikoitzak ziren.

Finalean, defentsa-estrategia erabili genuen; hau da, soka asko jaitsi eta indarra mantendu, azkarrago zein talde nekatzen zen ikusi arte. Zorionez, txinatarrak nekatu ziren azkarrago.

500 kiloton urrezko domina jantzi zenuten eta 540koan, zilarra. Helburuak beteta?

Bai. Oso pozik gaude. Helburuak horiek ziren: dominak lortzea. Horiek irabazteko egin dugu lan urria ezkerro. Denboraldiko prestakuntza munduko eta Euskal Herriko txapelketei begira antolatu dugu.

Nolako maila egon da txapelketan?

Ona. Talde guztiak ondo prestatuta joan gara. Txinatarrak, adi-

bidez, egunero entrenatzen dira. Sokatira kirol nazionala da Taipei eta txapelketak irabaztearren dirulaguntzak jasotzen dituzte.

Munduko txapelketa eta baita Euskal Herriko ere. Dena den, zure curriculum zabalagoa da.

2012an Euskal Herriko txapelketa lortu ditugu 500 eta 540 kiloko probetan. Baina aurretik beste domina batzuk ere lortu ditugu: 2000. urtean zilarra munduko txapelketan; 2002an urrea; eta 2010ean zilarra.

Sei hilabeteko denboraldiak egiten dituzue sokatiran.

Bai, hala da. Irailean eta urrian fisikoa lantzen dugu, gehienbat. Nor bere kontura antolatzen da: korrika egin, luzatzeak, gimnasia... Ondoren, sokarekin hasten gara lanean. Gasteizen entrenatzen naizenez, hiru egunean joaten naiz sokarekin entrenatzera. Beste bi egunetan prestakuntza aerobikoa egiten dut.

Sokatira, familia, lana... Nola bateratzen dituzu horiek guztiak?

Gogorra eta zaila da. Bi alaba txiki ditut, eta sukaldari lanak egiten ditut ikastolan. Zortzi orduko lan jardunaren ostean,

denbora hartu behar dut entrenamenduak egiteko, eta, hala koetan, familiak galtzen du.

Nola hasi ziren sokatira egiten?

16 urterekin hasi nintzen. Gasteizen bizi nintzen, eta sokatira ezagutzen zuten lagun batzuek animatuta hasi nintzen sokarekin. Egun, 37 urte ditut, eta oso gustura nago orain arte egindako bidearekin. Oso gogorra izan da, ia urte guztietan sokatiran ibili naizelako. Ama izateko sei bat urtean ez nuen egin, baina alabak hazi bezain pronto itzuli nintzen.

Zer dauka sokatirak horren erakarria izateko?

Sokatira bigarren mailako kirola da, askorendako, eta behin probatuz gero, *engantxatu* egiten zaitu edo gorrotatu egiten duzu. Ni *engantxatuta* nago. Gogorra da, asko sufriarazten du. Akaso, horregatik gustatzen zait.

Kirol gogorra dela esan diguzu. Eskuek sufritzen dute gehien?

Gorputz osoak sufritzen du: hankek, besoek... Entrenamendu-ordu asko ditugu, baina eskuak dira sokarekin kontaktu zuzena dutenak. 20 urte sokatiran ibili eta gero, nireak, behintzat, kailuz beteta daude. Asko zaindu arren, oso latzak dauzkate eskuak. Alabak esaten dit eskuekin ez laztantzeko, min egiten diodala.



Jone Elortza. | M. AZKORBEBEITIA

"Gorputz osoak sufritzen du, baina eskuak kailuz beteta dauzkagu"

Denboraldia amaituta, zer egingo duzu orain?

Lehen-lehenik, atsedean hartu. Gasteizerako joan-etorriak bukatu ditut, eta orain, denbora luzeagoa izango dut familiarekin egoteko. Alabek asko eskertuko dute.

Bestalde, nire kabuz entrenatzen segituko dut. Korrika egin, gimnasia joan, mendira... Lasai ibiliko naiz, soka alde batera utzita.

Denboraldi berriari begira, zer? Bada, oraindik ez dakit. Talde polita daukagu, eta dagoeneko lagunak gara, baina lan eta sakrifizio handia eskatzen du. Munduko txapelketa bi urtean behin egiten dira, eta ondo pentsatu beharko dut.



Jone Elortza (goiko lerroan, bigarrena, eskuinetik), Badaiotzekoekin. | J. ELORTZA

Dominikar Errepublikako kontsula Oñatin

M.B. | OÑATI

Sierra Madre kubatarren Oñatiko elkarteak Dominikar Errepublika oinarri hartuta festa egingo du bihar, zapatua. 168 urte bete dira errepublika aldarrikatu zela, eta hori ospatzeko egun osoko jaia egingo dute, gonbidatu berezi batekin: Dominikar Errepublikako kontsula. Foru plazan elkartuko dira zapatuan, eta kale-rik kale Dominikar Errepublikako Aratusteetako dantzak erakutsiko dituzte. Beste dantza batzuk ere eskainiko dituzte. Festa bukatzeko, bazkaria egingo dute.

Sierra Madre elkarteak deialdi irekia egin gura du: "Dominikarrek ez ezik, herritar guztiak gonbidatu gura ditugu. Festa koloretsua eta polita izango da", diote.

Zuhaitz Eguna eta zuhaitz azoka Natur Eskolakoekin

M.B. | OÑATI

Ingurumen Astearen barruan, Zuhaitz Eguna eta zuhaitz azoka egingo dituzte aste bukaeran Natur Eskolakoekin.

Bihar, zapatua, zuhaitz azoka egingo dute herriko plazan. Hainbat mintegitako saltzaileak egongo dira euren produktuak erakusten eta saltzen. 10:00etatik 14:00ak arte egongo dira.

Domekan, bestalde, Zuhaitz Eguna egingo dute. 10:00etan plazan elkartuko dira herritarrekin, eta Oñatiko zelaietan haritzak landatuko dituzte: San Martinen eta Santa Lutzian, hain justu ere. Azkenik, martxoaren 11n Zuhaitz Eguna egingo dute Duru eta Aloña arteko bidean.



Elkar Heziko ikasleak iazko elkatrukean. | ELKAR HEZI

Elkar Heziko eta Alemaniako Ditzinger herriko ikasleak, eskutik

M.B. | ARRASATE

Elkar Hezi ikastetxeak Alemaniako ikasleen bisita izango dute martxoaren 23tik 30era: 23 ikasle eta bi irakasle etorriko dira Ditzingertik. Elkartruke horren muina izango da ikasleek sortzen joango diren egunerokoan euren bizipenak jasotzea. Oñatiko ikasleak maiatzean joango dira Ditzingerrean.

"Haziak eman ditu fruituak"

Alemaniako ikasleak ingelesezko eta gaztelaniazko eguneroko eskolara joango dira eta beste hainbat ikasgaitan parte hartuko dute.

Badira urte batzuk Elkar Hezi Europako beste ikastetxe batzuekin harremanetan ipini zela. Hainbat urtean lan egin ondoren, "haziak eman ditu fruituak".

Emakumeen Egunaren harira, hainbat ekitaldi

M.B. | OÑATI

Berdintasun batzordeak hainbat ekitaldi egingo ditu Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira. Hilaren 5etik 23ra askotariko ekitaldiak egingo dituzte; besteak beste, autoestimua ikastaroa, antzerki emanaldia, autodefentsa ikastaroa, ipuin kontaketa, bertso saioa eta bazkaria. Azken hori hilaren 10ean egingo dute, Etxe Aundi jatetxean. Interesatuak sarrerak erosi ahal izango dituzte kultura etxean eta Boga tabernan. Bestalde, Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko ekitaldia eta elkarretaratzea egingo dituzte Foru plazan, 19:00etan. Ekitaldi irekia izango da, eta herritarrek gonbidatu gura dituzte.

Mikel Biain | Alkatea

"Atez ateko sistemarekin ez da herritarren zabor tasa garestituko"

Mikel Biain alkatea zortzi hilabeteko gobernuaren errepaso egin digu: zaborra, lapurretak, 'Herrijorran' egitasmoa, farmazietako guardiak...

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Mikel Biain alkatea estreinatutako Goiena telebistako *Harira* saio berria. Zortzi hilabete pasatu dira alkatetza lortu zuenetik, eta ordutik egindako lanaren errepaso egin zuen Eneko Azkararekin. Biainen berbak ekarri ditugu paperera.

Nolakoa izan da udal jarduna alkatetza hartu zenuenetik?

Bagenekien erronka handi zela eta gogorra izango zela, eta horrela izan da. Ordutegi zehatz bako lana da. Batzuetan lehenago irten-go zarelakoan planak egiten dituzu, eta gero ezin dituzu bete. Eguneroko jardunak gai eta bilera asko sortzen ditu; herritarrekin biltzeko hainbat arrazoi...

Bildu koalizioa alkatetzan eta EAJ oposizioan. Bi alderdi bakarrik zaudete. Egoera berezia da.

Hauteskundeen ondoren alderdi asko ordezkari barik geratu ziren. Botoak asko polarizatu ziren eta bi alderdi gaude. Kanpotik begiratu eman dezake nahiko pobrea, saltsa gutxikoa dela Oñatiko Udala bi ikuspegirekin bakarrik.

Nolako harremana duzue EAJrekin?

Harremana ona da. Egunerokotasunean, herriko kontuekin zerikusia duten gaietan, ondo

moldatzen gara. Egia esan, erabaki xumeak hartu behar ditugu.

Bestelako erabaki politikoak tartean daudenean, presoen egoera, hondakinen bilketa... orduan desadostasun handiak ditugu. **Aurrekontuak markatzen du agintaldia. Zuek 16 milioikoa onartu zenuten abenduan. Zeintzuk dira haren ezaugarriak?**

Zuhurtziaz egindako aurrekontuak direla esango nuke. Bestalde, bizi dugun egoera ekonomikoa aintzat hartuta, Hirigintza batzordeak izan du jaitsiera nabarmena. Gizarte gaietarako partida, aldiz, mantendu egin dugu. Kontuan izan behar dugu azkenaldian beharrak dituzten herritarrak geroz eta gehiago direla, eta haiei erantzuna eman behar diegu.

Gainera, Berdintasun batzorde berria daukagu, eta diru partida propioa izango du.

Aurrekontuak prestatzen laguntzeko 194 herritarren laguntza izan zenuten, Herrijorran egitasmoaren bidez. Nola baloratzen duzue parte-hartzea?

Herrijorran egitasmoarekin gobernatzeko modu eta kultura politiko berri bat sustatu gura dugu. Herritarrak nahiko nazkatuta daude ohiko politikarekin, eta garbi

genuen herritarrengana zuzentzeko modua aldatu egin behar genuela. Hori horrela, *Aurrekontuak Herrijorran* izan zen proiektu berri horren lehen saiakera. 194 herritarrek parte hartu zuten. Aurrekontuak osatzeko ekarpen asko egin zituzten, eta gure balorazioa oso ona da.

Herrijorran egitasmoak hainbat alor ukitzen ditu, eta horiek herritarrengana helarazteko *www.herrijorran.info* ataria daukagu. Parte-hartzea sustatzeko ataria da, eta antolatzen ditugun foro, batzar eta ekitaldien berri jasotzen du. Gainera, herritarrek ekarpenak egin eta foroan parte hartzeko aukera dute.

Bizikleta foroa, hezkuntza mahaia, sozioekonomia foroa... Herritarrendako garrantzitsuak diren gaiak mahaiairen bueltan aztertu eta onartu gura dituzue.

Herrijorran-en asmoa da hilabete bakoitzean gai ezberdin bati buruzko ekintzak martxan ipintzea. Azken asteotan bizikleta eta sozioekonomia foroa eta hezkuntza mahaia abiarazi ditugu. Helburua da gai bakoitzetik foro iraunkor bat sortzea, aurrera begira lan egingo duena. Aldika-alдика bildu eta proiektuak lantzeko foro iraunkorrak sortu gura ditugu.

Larrañako kirolgunea berritzea da aurtengo duzuen inbertsio nagusia, baina zein erabilera emango diozue?

Orain dela aste batzuk bildu ginen gure Udaleko Kirol teknikariek eta Aloñako eta futbol saileko ordezkariak, zein erabilera eman zehazteko. Azkoagain lagun askok erabiltzen dute; tartean, betaranoen txapelketakoek. Asmoa da horiek Larrañara bideratzea. Zortziko futboleko jokatzeko zelaia ipiniko dugu, neurriek ez dutelako gehiagorako ematen. Futbol saileko harrobiko taldeak ere Larrañara joango dira.

Herriko bi jolasleku estaltzeko asmoa daukazue. Zeintzuk?

Maiatzerako, herriko espazio publikoei zer erabilera eman zehazteko plangintza bukatuta edukiko dugu. Txosten horrek erakutsiko digu ze bide jarraitu behar dugun. Besteak beste, erabakiko dugu zein jolasleku estali. 60.000 euro ditugu gordeta, eta aurrekontuaren arabera erabakiko dugu zenbat estali.

Otsaileko osokoan indar barik utzi zenuten iaz martxoan edukiontzi marroia ipintzeko EAJk hartutako erabakia.

Hauteskunde kanpaina argi esan genuen hiri hondakinen



Mikel Biain alkatea, Goiena telebistako platonan

HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

Kultura etxeko pintada adierazpen askatasuna ala baldarkeria da?

"Bi aukera horien artean esango nuke adierazpen askatasuna dela, ez da baldarkeria. Euskal Herriak egoera politiko berezia dauka, eta, zoritxarrez, atxiloketak daude oraindik. Pintada horrek Oartzunen egindako azken atxiloketei egiten die erreferentzia. Beste gauza bat da adierazpen askatasuna leku horretan egin behar den edo ez. Azken finean, eraikin publikoetan egiteak kostu bat dauka Udalarendako: 2.000 euro pintada bakoitza".

Zer ordutegi dauka plazako komun publikoak?

"07:00etatik 21:30era arte dago zabalik eta udaltzainen ardura da komuna zabaldu eta ixtea. Orain arte, Udalean ez dugu eskaerarik jaso ordutegia zabaltzeko, baina, akaso, aztertu egin beharko genuke. Batzuetan, kanpotar eta turista talde handia bisitan egon denean, ordutegia zabaldu egin izan dugu. Bestalde, San Lorentzo eta Olakua aldean beste komun publiko bat ipiniko dugu; autobus geltoki inguruan egokituko dugu".

Nola dago osasun zentroko irisgarritasuna hobetzeko proiektua?

"Aurrekontuetan partida bat daukagu horko irisgarritasuna hobetzeko. Lehentasunetako bat da, herritar askok erabiltzen duelako osasun zentroa. Irisgarritasuna hobetzeko eskaera asko jaso dira Udalean. Proiektua idatzita dago, eta guk apirilean edo maiatzean egingo dugu lanak esleitzeko deialdia. Lanak lehenbailehen hastea da gure nahia. Azkar konpondu gura ditugu osasun zentroaren inguruan sortzen diren arazoak".

Ugarkalden ez dago bizikletak uzteko aparkalekurik

"Aurrekontuetan ez dugu partidarik jaso Ugarkalden bizikletak uzteko aparkalekuak ipintzeko. Auzune berria da eta badakigu gazte asko bizi delan. Bidegorriarekin bizikletaren erabilera sustatu eta bultzatu behar dugunez, herritarrak egindako eskaera zentzuduna dela uste dut. Dena den, oraindik ez dugu halako eskaerarik jaso udal bulegoan; baina Kirol batzordean komentatuko dut, eta ditugun baliabideak aztertuko ditugu".

Kultura etxetik Santa Marinarainoko errepidea estua da; konponbidea?

"Gune kritikoa da, irisgarritasuna hobetu zenean oso estu geratu zen. Arazoa konpontzeko, kale horretan norabide bakarra ipiniko dugu. Euskadi etorbideko autobus geltokia Aita Lizarralde aldera eroango dugu. Foru Aldundiak argi berdea eman dio horri, eta laster geltokia lekuz aldatzeko proiektua idatziko du. Hori horrela, Portu kaletik Euskadi etorbidera doan errepidea norabide bakarrekoa izango da, gune kritikoak ekidin egingo ditugu".



| ENKO AZKARATE

arazoari irtenbide integrala eman-
go geniola, eta garbi daukagu
neurriker eraginkorrena bilketa
selektiboa dela; atez atekoa, ale-
gia.

Herritarren artean galdeketa egitea pentsatu duzue?

Galdeketa egitea zilegi da, eta ona herritarrendako. Baina inportantea zer galdetzen den zehaztea da. Azken hilabeteetan eztabaida kokatu da bosgarren edukiontzia eta atez atekoaren artean. Gure ustez, eztabaida hori erabat faltsua da.

Europatik eta Euskal Herritik ditugun datuek diote bosgarren edukiontzia bilketa maila, gehienez, %35 dela. Atez atekoaren, aldiz, %80-90 inguru da. Antzuolan, %92.

Datuak ezin dira alderatu, eta, gainera, edukiontzia marroiak errauskailua dakar berarekin. Horrek kostu handia izango luke ingurumenean eta gure poltsikoan.

Atez atekoa *zero zabor* filosofiaren barruan dagoen bilketa sistema bat da.

Beste aukera bat izan daiteke Itsasondan ipini duten eredu mistoa. Edukiontzia berdea kendu eta erre-fusa batzeko beste bat ipini dute.

Bai, hala da. Itsasondokoa, akaso, eraginkorra izan daiteke herri txiki batendako.

Atez atekoarekin zabor tasa handitu egingo da?

Ez. Gainera, atez atekoaren beste hanka nagusietako bat norberak konposta egitea da. Konposta egiten duten herritarrek hobariak jasoko dituzte zabor tasan.

Abuztuan dendak zabaltzearen ez zenuten dirulaguntzarik eman. Zergatik?

Gu Gobernura heldu aurretik EAJk erabakita zuen ez zuela laguntza gehiagorik emango.

Dena den, gu zuzeneko dirulaguntzak ematearen kontra gaudu. Merkatariei beste laguntza batzuk ematearen aldekoak gara: ikastaroak, bisita gidatuak...

Lapurak Oñatira heldu dira. Urte bukaera gogorra izan zenuten.

Azaroa eta abendua izan ziren hilabete gogorrenak. Urtarrilean datuak jaitsi egin ziren, nahiz eta

"Egungo egoera ikusita, zuhurtziaz egindako aurrekontuak dira"

"Errekerimendua jaso arren, ez dugu Espainiako bandera ipiniko udaletxean"

"Mehatxu eta irainekin une txarrak, gogorak pasa genituen"

Ugarkalden eta Arantzazun lapurreta batzuk egon.

Herritarrek kezkatuta eta belurtuta zeuden, eta zaintza neurri batzuk ipini genituen. Udaltzaingoarekin eta Ertzaintzarekin hainbat batzar egin, eta Oñatirekiko zaintza zerbitzua sendotzea eskatu genien. Eta emaitzak ikusi dira: kontrolak egin dituzte, kalerik kale ibili dira... Gure esku dauden neurriak ipini ditugu. Dena den, herritarrek ere euren neurriak ipini behar dituzte; besteak beste, etxeko ateko giltzari bi buelta emanda.

Farmazietako gaueko guardia zerbitzuak berriro Oñatira ekartzeko auzi-errekurtsoa ipini duzue. Beharrezkoa dela uste duzue?

Kopuruak eskuetan, badakigu ez duela herritar askorik erabiltzen. Baina oinarrizko zerbitzua da, urgentziazkoa eta une larrietan erabiltzen dena.

Guardiak Arrasaten zentralizatuta, herritarrek kalte nabarmenak izango dituzte. Ez da gauza bera etxetik gertuko farmazia batera joan edo Arrasaten farmazia bila ibiltzea.

Abuztuan jaso genuen idatzi bat, guardiako zerbitzua Arrasaten zentralizatzearen aldekoak ginen galdezka. Idazkaria lanean

zegoen eta ni Oñatin, eta gure desadostasuna bidaltzeko aukera izan genuen. Beste herri batzuek ez zuten erantzunik bidali.

Jaurlaritzaren ebazpenak zioen Udalen erantzuna ikusita zerbitzua Arrasaten zentralizatuko zela. Eta horrek behartu gaitu auzi-errekurtsoa ipintzera.

Irailan, Guardia Zibila Oñatitik joatea eskatzen zuen mozioa onartu zenuten aho batez. Zertan dago gai hori?

Gure mozioaren berri Gobernua-
ren ordezkartzara bidali genuen, baina ez dugu erantzunik jaso, ezta espero ere. Zoritzarrez, egoera politikoari lotutako zerbait dela uste dugu. Egoera politikoak konpontzen denean, berez konpunduko dela uste dugu. Konturako dira traban daudela eta ez duela inongo zentzurik Guardia Zibila Oñatin egotea. Dena den, urte askoko auzia da, eta epe motzera ez daukagu joango diren esperantzarik.

Espainiako bandera udaletxeko balkoian ipintzeko errekerimendua jaso zenuten. Ipiniko duzue?

Ez dugu Espainiako bandera ipiniko. Ez dakigu ze ondorio ekarriko dizkigun, ez daukagulako aurrekaririk. Errekerimendua abuztuan jaso genuen. Estrategia politiko baten barruan kokatzen dugu erabakia. Bilduko udaletxe asko eta EAJko batzuk, batez ere Bizkai aldean, arazo berberarekin daude.

Une txarrak ere bizi izan dituzue ekainazko, batez ere wegunean irainak eta mehatxuak jaso zenituztenean. Josu Lizarralderi etxera, postontzira, bidali zioten mehatxua.

Udalaren webgunera heldu ziren mehatxuak Bildu Udal Taldeari zuzendutakoak ziren, orokorrak. Baina bereziki larritu ginen Josuk etxean jaso zuen heriotz mehatxuarekin. Une gogorak izan ziren. Josu bera, etxekoak eta Bilduko zinegotziak urduri ipini ginen. Dena den, herritarren eta udal langileen babesa jaso genuen, eta asko eskertzen dugu. Mozio bat ere onartu zen Josuri elkartasuna adierazteko.



OPOSIZIOAREN BALORAZIOA

Lourdes Idoiaga | EAJko bozeramailea

"Aurrekontuak, gureen jarraipena"

"Aurrekontuen %80-90 aurreko agintaldian guk egindakoaren jarraipena dira. Bestalde, ekintzak antolatze orduan gu baino motelagoak direla uste dugu. Azkenik, azken osokoa, atez atekoaren gainean eztabaidatu genuenean euren boto-emaileek eskatutakoaren alde egin behar zutela esan zuten, eta beste alderdietako boto-emaileen iritzia zer? Hori ez da gobernatzea, politika egitea baizik".

► ALKATEAREN ERANTZUNA

"Herritarrei begira gobernatuko dugu, eta ez dut uste EAJ baino motelago gabiltzanik ekintzak antolatze orduan. Hiri hondakinen bilketari dagokionez, esan, EAJk sinatutako Alkateen Itunean – 2020rako CO2 isurketa %20 murriztea–, kanpoko enpresa batek Oñatirako egindako plangintzan, %33ko eraginkortasunarekin, atez atekoaren aldeko hautua egitea aholkatzen zuela".

OPOSIZIOA ALKATEARI GALDEZKA

Argiteria publikoaren faktura oso handia da; zer egingo duzue aurrezteko?

"Hirigintza batzordean aztertu dugu gaia, eta leku askotan argia neurri barik kontsumitzen dela badakigu. Enpresa batekin berba egingo dugu neurgailu automatikoak ipintzeko. Argia neurri kanpo kontsumitzen diren lekuak detektatu eta hor ipiniko ditugu. Auzo batzuetan farolak oso erraz ipini dira, horiek duten kontsumoa eta mantenua kontuan hartu barik. Zuhurtziaz jokatu behar dugu".

Industriarako lurrago agortu egin dira Oñatin; ze asmo dituzue agintaldirako?

"Ez dugu uste lehentasuna denik, industria jarduera geldi dagoelako. Industriarako lurra beharko bagenu, seinale ona litzateke. Gainera, Oñatin badaude hutsik dauden industrialdeak: Zubillagan Zugastuina, Goribarren...".

Aloña Mendiko atletismo sailekoendako ze baliabide dituzue?

"Oso emaitza onak lortu dituzte gure atletek, baina entrenatzeko pistarik ez daukagu. Urrutxun zigitatze lanak egin dira, baina atletismo pista bakarrik egokitzeko milioi bat euro behar dugu eta kirolgune osoa egiteko, bost milioi euro. Udalak, egun, ez dauka dirurik proiektu horri aurre egiteko".

Zahartzaro aktiboa inportantea da; noiz ipiniko duzue martxan?

"Donostiako Psikologia Fakultateko irakasle batek Europan aitzindari den programa bat martxan ipintzeko proposamena egin zigun, eta onartu egin dugu. Apirilean batzarra egingo dugu eurekin programaren nondik norakoak zehazteko. Ez dugu zehaztu noizko egongo den martxan, baina San Migeletarako gertu egotea espero dugu".

Inbertsio gutxi: dirua obra txikiendako bakarrik

Tartean, Oroko bide eta Iturrigorri pilotalekuarendako

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Iazkoarekin alderatuta (13.141.294 euro) hiru milioi eta erdi euro gutxiagoko aurrekontua onartu du udalbatzak 2012rako: 9.467.247 euro. Hala, %28ko jaitsiera izan du. "Egoera ekonomiko larriari modu egoki, errealista eta arduratsuan erantzuten dio aurrekontuak", esan zuen Ana Bolinaga alkateak joan den egubakoitzean. Eta gaineratu: "Aldundiari zorra itzuliko diogu, gure zorpetze maila ez da handituko eta kreditu globalean 45.000 euro gelditzen zaizkigu".

Xemaikoz xemaiko begiratu dituzte partida guztiak eta Gizarte Zerbitzuak eta Euskara dira behera egingo ez duten bakarrik. Kale garbiketaren igoera, oster,



Iturrigorri pilotalekua usoek zikinduta. | MA

zerbitzua kale gehiagotan eman behar dutelako da, eta hondakinen kudeaketarena Mankomunitateak zehaztutakoa.

Jaitsiera handienak izan dituzte kiroldegia -lanen bukaeragatik-; Ingurumenak -iaz Urkuluko plana jarri zen abian-; eta administrazio orokorrak.

Bestalde, azpikontratatzearen gaineko hausnarketa egin dute alderdi guztiek. Hala, Arkupe kudeatzen duen Ama-Lur enpresari azaroan bukatuko zaio kontratua, eta Udalak bere gain hartuko du kultur etxearen ardurara; horrela, 200.000 euro aurretuko dituztelakoan daude. Eta udal eraikinen garbiketa beste era batera planteatuta beste 100.000 euro aurrezteko gura dute.

Inbertsiotarako diru gutxi

Inbertsio aipagarriak ezin izango dela egin onartu dute. Hala ere, obra txiki batzuetarako gorde dute dirua: nekazari arloko lanak, tartean Oroko bidea konpondu; Iturrigorri pilotalekua txukundu; eta Gipuzkoa plazako jolas parkea berritu. Partida garrantzitsuenak kanpotik etorriko dira: Bidegitik autobidearen

DATUA

9.467.247

EURO

2012rako aurrekontua da; iazkoarekin alderatuta %28ko jaitsiera izan du.

ESANAK

"Gure zorpetze maila ez da handituko, eta pozik gaude"

ANA BOLINAGA | ALKATEA

lanek eragindako kalteak konpontzeko 322.147 euro, eta Aldunditik, kiroldegirako hitzartutako azken zatia, 314.000 euro.

Udal langileen soldata KPI beste igotzea onartu zuten gainera, %2,4.

AURREKONTUA

	2011	2012	ALDEA
PROGRAMA FUNTZIONALAK			
Zor publikoa	452.682	1.374.247	921.565
Administrazio orokorra	1.299.095	1.172.451	-126.643
Gobernu organoak	390.246	271.084	-119.162
Familia eta elkarbizitza	427.450	426.050	-1.400
Informazio eta balorazio prog.	303.828	298.833	-4.994
Ur hornikuntza eta banaketa	395.214	396.821	1.606
Hondakinen kudeaketa	450.354	472.626	22.272
Kale garbiketa	338.850	363.410	24.560
Parkeak eta lorategiak	209.949	200.150	-9.799
Kirol etxea	4.216.850	381.773	-3.835.076
Kultur etxea	476.600	418.364	-58.235
Ingurumena	725.692	144.719	-580.972
Enplegu sustapena	168.975	139.703	-29.272
Hezkuntza	326.470	260.696	-65.773
Euskara	152.180	159.002	6.822
Jaiak	169.750	166.850	-2.900
Gazteria	150.891	147.170	-3.721
INBERTSIO GARRANTZITSUENAK			
Autobidearen kalteak konpontzea	-	322.147	-
Kiroldegia	-	314.000	-
Nekazari arloa (Oroko bidea...)	-	147.706	-
Iturrigorri pilotalekua	-	80.000	-
Gipuzkoa plazako jolas parkea	-	40.000	-

Inaxio Garro

Aralarko zinegotzia

"Eskatu dugu irizpide batzuk markatzea"

"Garbi dago bai Euskal Herrian, bai gurean, egoera ekonomiko larria dugula. Halako egoera larrietan ingiten diren gastuak eta inbertsioak tentuz eta buruz egin behar dira eta eskatzen dute azterketa sakona. Baina horren guztiaren aurretik guk eskatu izan duguna da irizpide batzuk markatzea, gero zein den atera gura dugun argazkia zehazteko: murrizketek zenbatekoak izan behar duten, non egin behar diren, zergatik... Irizpide horiek birritan eskatu ditugun arren, ez zitzaizkigun mahai gainean jarri eta gure sentsazioa izan da Ogasun batzordeetan inprobisatzen genbiltzala."

Mikel Uribebarria

EAJko zinegotzia

"Inkoherentziak ikusi ditugu aurrekontuan"

"Oso aurrekontu estuak dira, inbertsio gaitasuna oso txikia da. Alor askotan beharrezkoak diren murrizketak egiteko esfortzua agerikoa da, baina kontrako zentzuan ekidin beharrek igoera batzuk ere egon dira: udal langileen soldaten inguruan azken unean planteatutako igoera, eta baita Mankomunitatera egin beharrek ekarpena ere. Igoera hauek ez datoz bat herrian eta Udalean bertan daukagun egoera ekonomikoarekin. Horretan oinarritu dugu gure ezezkoa. Aurrekontuen prozesuan azken orduko aldaketak egon dira eta hurrengo urterako planifikazio hobe eskatzen dugu".

Ainhoa Sagarribai

PSE-EEko zinegotzia

"Murrizketa batzuekin harrিতuta"

"Aurrekontuarekin ez dugu bat egin. FOFIM-ari buruzko mozioa aurkeztu genuen oinartu genuen aurrekontuak ito zitzakeela. Mozioa ez zen onartu erabakia ez omen zegoelako hartuta. Eta hiru bat egunetara Gipuzkoako alkateei dei egin zien Diputazioak nola kobratuko zuten azaltzeko. Horrek exijitzen du aurrekontu guztia aztertzea. Bestetik, harritu egin gaitu kulturaren, hezkuntzaren eta kirolean murrizketa nabarmenak egotea. Eta prentsa bidez jakin dugu atez ateko zabor bilketa sistema maiatzean inposatuko dela; askoz ere garestiagoa da hori".



ANTOLATZAILEA: LAGUNTZAILEAK:



IXADEBALDE

Aretxabaletako IV. merkealdi azoka

Martxoak 10, zapatua. 10:00etatik 20:00etara
Iturrigorri pilotalekuan

- Musikaz girotutako azoka.
- SARI BEREZIA: 2 opari kutxa.
- 17:00etatik 19:00etara umeentzako tailerrak egongo dira.

Orly
Kilima
M. Carmen oinetakoak
Txilarra
Asensio
Zare
Haurrak
Gertu
Kioskua
Belar meta
Leintz
M-5
Brasileña
Akorde
Eguzki



Almeriako espetxe inguruan aretxabaletar taldea. | 'HIRU BAIETZ'

'Hiru baietz' bukatuko dute bihar; manifestazioa eginda

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Hiru baietz ekimena jarri dute abian hainbat herritarrek Kepa Urraren 20. urteurrena gogorazteko; urtarrilaren 29an bete zituen, hain zuzen, Urrak 20 urte espetxean. Hori gogoan, Almeriara martxa egin zuten joan den egubakoitzean 50 bat lagunek: "Bertan dagoen Kepa Urrari eta gainontzeko euskal presoek elkartasuna adieraztera joan ginen", jakinarazi dute han izandakoek. Gaineratu dute egun osoa eman zutela espetxe inguruan, eta oihuen bitartez presoekin egoteko aukera izan zutela.

Asteon, gainera, beste bi ekitaldi egin dituzte: martitzenean, torturaren gaineko hitzaldia egin

zuten Torturaren Aurkako Taldeko kideek; eta atzo, eguna, sakabanaketaren eta bizi arteko zigorraren gainean jardun zuten abokatu batek eta herriko preso senideek.

Bolo txapelketa bihar

Hiru baietz ekimena bihar bukatuko dute, jai giroak eta aldarrikapenak bat eginda eta Urria gogoan dutela.

Bolo txapelketa egingo dute, lehenengo, Kurtzebarri eskola alboan dagoen bolatokian (17:00), eta gero, manifestazioa herriko kaleetan (19:00), bolatokitik irten da. Bukatutakoan, antolatzaileek mokadutxo eskainiko diete han batzen diren guztiei.

Interneten gaineko ikastaroak langabe eta merkatarieendako

M.A. | ARETXABALETA

Udaleko Enplegu eta Garapen Sailak Internetekin zerikusia duten ikastaro bi antolatu ditu herriko langabe eta merkatarieendako.

Langabeei, Lanbideak kudeatzen duen webgunearen berri emango diete, eta lan eskaintzak zelan bideratu irakatsi. Eta erakutsiko diete Lanbideren bulegoetara joan barik hainbat tramite egin ditzaketela webgunean. Herriko langabeei zuzendutako ikastaroa da, bi ordukoa, eta lau laguneko talde txikitik emango dituzte eskolak. Martxoan izango dira (datak zehazteko), KZgunean (15:00-17:00).

Facebook merkatarieendako

Bestalde, merkatariei, sare sozialen gaineko ikastaroa emango diete. Facebook kontua zabaldu eta hori zelan erabili irakatsiko diete. Lau laguneko taldeak egingo dituzte, eta bi orduko eskolak eman. Martxoan izango dira (datak zehazteko), KZgunean (14:30-16:30). Helburua da sare sozialen bitartez negozioa sustatzen eta dinamizatzen erakustea herriko merkatariei.

Bi kasuetan, ikastaroa egin gura dutenek aurrez eman behar dute izena: udaletxera deituta (Argiñe Larreagatik galdetu) edo honako helbidera idatzita: larrea@aretxabaleta.net.

Zuhaitz Eguna ospatuko dute etzi Urkulun

M.A. | ARETXABALETA

Udaleko Ingurumen Sailak antolatuta, Zuhaitz Eguna egingo dute Urkulu urtegi inguruan domekan, martxoak 4. Azken urteotan legez, hitzordua Iraeban baserri alboko aparkalekuan egin dute (11:00), eta handik Markiategi baserri ingurura joango dira oinez -iaz landatzea egindako eremutik gertu.

Naturgintza Fundazioko kideek koordinatuko dituzte lanak, eta iragarri dute 120 bat zuhaitz dituztela eskatuta; besteak beste, ametzak eta gorostiak. Horretarako, ikasleen eta herritarren laguntza eskatu dute.



Zuhaitza landatzen iaz. | M.A.

Batzar orokorra du Basotxok egunean eta ia 1.000 bazkide daude deituta

M.A. | ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteak batzar orokorra egingo du datorren egunean, martxoak 8 (lehenengo deialdia 16:30ean eta bigarrena 17:00etan). Ia 1.000 bazkide ditu elkarteak eta guztiak daude deituta batzar horretara; kezkak argitzeko aukera ere izango dute.

Gai hauek landuko dituzte, besteak beste: 2011n egindako jardueren irakurketa, eta balantze eta kontuen onarpena; 2012ko kudeaketa planaren aurkezpena; zuzendaritza batzordearen berrespen akordioak onartzea; eta zuzendaritza batzorde berria osatzeko kideak proposatzea.



Aretxabaletako Udala



Informazio gehiago
630247871

Doako etxe garbiketa

0 eta 5 hilabete arteko seme-alabak dituzten familiei doako etxe garbiketa eskaintzen zaie. Hilean 16 ordu: astero bi egunean, egunero bi ordu.



Izena emateko epea: otsailaren 22tik, martxoaren 9ra arte izango da

Hondakin gutxiago zelan sortu ikusgai gaurtik museoan

Ikasleendako ez ezik, herritar guztiendako ere egingo dute bisita gidatua: hilaren 7an eta 14an, 18:00etan

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta, hondakin gutxiago sortzeari buruzko erakusketa ibiltaria iritsiko da gaur, egubakoitza, Eskoriatzako Ibarraundi museoara: *Hondakin gutxiago, ongizate gehiago* izenekoa.

Erakusketa horren bidez, zaborrez gainezka dagoen "amildegian" ez erortzeko bide alternatiboak gertutik ezagutzeko

aukera izango dute datozen egunotan museoara joaten direnek: zazpi ataletan dago banatuta, eta, bakoitzean, prebentzioaren eta berrerabilpenaren alderdi bat lantzen da.

Pentsatu, egin aurretik

Honakoak dira jorratutako modulu tematikoak: *Ur zirkuituak: iturriko ura, gal ezin dezakezun aukera; Diseinuzko tratamenduak: ekodiseinua; Kontrasteen eremua:*

soberan hemen, faltan han; Terapi miragarriak: hale hop, bihur zaitez konpost; Berpiztua irteteko: murriztu, konpondu, berrerabili, ...; Hondakinterapia: hobe ez zikitzea; eta Azken zirkuitua: pentsatu egin aurretik.

Ikastetxeendako bisitak

Erakusketa horren harira, Ibarraunditik jakinarazi digute eskoriatzar guztiendako bisita gidatuak antolatzeko asmoa dutela, eta bi zatitan dituztela horiek banatuta: alde batetik, ikastetxeendako bisitak daude, egunero eskola ordutegian egingo dituztenak. Fitxa eta ariketen bidez Gipuzkoan egin diren kanpainak ezagutarazi eta hondakin gutxiago sortzearen garrantzia azalduko zaie, besteak beste, herriko gaztetxoei; bestetik, interesa dutenendako bi bisita gidatu egitea pentsatu dute, martxoaren 7an eta 14an, 18:00etan. Ibarraunditik aipatu dute ez dela izenik eman behar aurretik.

Erakusketa martxoaren 15era arte egingo da zabalik museoan, ohiko ordutegian: hain justu, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.



Umeak puzgarriekin jolasean. | JULIO CALLEJA

Eskola kirola dela-eta, 11:15etik aurrera itxita egongo da bihar herriko kiroldegia

M.B. | ESKORIATZA

Bihar, zapatua, puzgarriak egongo dira herriko igerilekuan, Leintz Eskola Kirola elkarteak eskola kirol ekintza moduan antolatu du-eta. Hori dela eta, igerian egin nahi duten eskoriatzarrek lehen orduan joan beharko dute kiroldegira; puzgarriek igerileku osoa hartuko dute, eta, hortaz, 11:15ean herriarrendako itxiko dute. Arratsaldean normal zabalduko dute,

ostera ere, ohiko ordutegian: hain justu ere, 14:30etik 20:30era.

Etzi uretako parkerik ez

Horretaz gainera, Udaletik jakinarazi digute eskola kirola dela-eta etzi, domeka, aurreikusita zegoen uretako parkea bertan behera utzi dutela. Ekintza horretan ere puzgarriak jartzen dituzte 13 urte bitarteko neska-mutikoendako.


Zaldibar antzokia bisita daiteke martxoaren 13an

Herritarrek agertutako interesa asetzeko, aretoa ezagutzeko bisita gidatu bikoitza egingo dute

M.B. | ESKORIATZA

Orain arte Zaldibar antzokian egin dena gertutik ezagutu ahal izango dute hilaren 13an eskoriatzarrek. Udalak bi bisita gidatu antolatu ditu, bakoitza 20 minutukoa: lehenengoa 18:30ean izango da eta bigarrena, 19:30ean. Bada, interesa dutenek martxoaren 9ra arte dute izena emateko aukera, 943 71 46 88 telefono zenbakian edo komunikazioa@eskoriatza.net helbidean.

Udalak 2010ean esleitu zion Goitu enpresari kultura erabilerrako aretoa eraikitzeke obren lehenengo fasea; lan horietan lokala hustearekin batera, sabaia berri, lehen solairuko harmailak eta kanpoko fatxada konpondu eta bigarren solairuko harmaila eginda geratu ziren. Horretaz gainera, agertokia eta komunak ere egin ziren eta aretoaren geotermia bidezko klima-



Zaldibar antzokia barrutik ere ikusi ahal izango da. | MIRIAN BITERI

tizazio sistema gertu utzi zuten. Udaletik jakinarazi dute bigarren faseko obrak epe motzean esleitu dituztela, eta, horiek hasi aurretik, aretoa ezagutzeko bisita gidatua egitea erabaki dute.

Herritarren interesa

Horren harira, gogorarazi dute Eskoriatza prozesuan herritarrek aretoarekiko interesa agertu zutela, eta, modu horretan, hori ase nahi dela.

Alegaziorik jaso ez, eta behin betiko onartu dute aurrekontua

2012. urterako udal aurrekontua behin betiko onartuta geratu da. Jendaurrean egondako epean ez da inongo alegaziorik aurkeztu, eta, ondorioz, automatikoki onartuta gelditu dira aurtengo kontuak. Aurreikuspen arabera, Eskoriatzako Udalak 5.053.065,78 euro izango ditu gastatzeko.

Udaleko hauteskunde sindikaletan LAB irten da garaile

Udalean egindako hauteskunde sindikaletan, LABeko ordezkaria aukeratu dute langileek. Sindikatutik honakoa aipatu dute: "Horrenbeste murrizketa eta erreformaren aurrean langileon eskubideen defentsan ahalik eta lan txukunena egingen saiatuko gara, antolatzeko aukera eskainiz eta gauzak aldatzeko helburuaz indarrak biltzeko tresnak emanez".

Taldekode eta kontakizun berria aurkeztuko dute gaur Zast! taldekoek

Helduendako kontakizun musikatua eskainiko dute Ibarraundin, 22:30ean

M.B. | ESKORIATZA

Berrikuntzekin dator gaur gauean Ibarraundi museoan Zast! taldeak eskainiko duen helduendako kontakizun musikatuaren emanaldia. Batetik, taldekide berria taularatuko da 22:30ean hasiko den zuzenekoan; hain justu ere, Leire Elustondo piano jole ermua. Kide berri horrekin, honela geratzen da orain taldea: Martin Antxiak perkusioa, Maialen Arratibelek gitarra eta ahotsa, Leire Elustondo pianoa eta ahotsa, Iñaki San Migel klarineta, Beñat Zamalloa narratzailea eta

Eñaut Zubizarreta txeloa. Elustondo ez azkenaldian taldean sartu den kide bakarra, Arrasaten egindako emanaldian San Migel gasteiztarra aurkeztu zuten-eta.

Lau kontakizun berri

Esan bezala, ez da berrikuntza bakarra izango. Horren harira, Beñat Zamalloa aretxabaletarrak azpimarratu du orain arte aurkeztutako kontakizun guztiak berriatzi eta berri egin dituztela. Horretaz gainera, jakinarazi du lau kontakizun berri ere

badituztela esku artean. Honakoa dio aretxabaletarrak: "Kontakizun musikatu berria aurkeztuko dugu, eta Maialen Arratibelek eta Leire Elustondok abesti bat eskainiko dute".

Ikuskizunaren egituraren alde aldaketak daudela iragarri du; horren harira, jakinarazi du horretarako entseatzen eta horiek grabatzen ibili direla azken asteotan, emanaldia ahalik eta ondoan irten dadin. Hortxe, bada, gaur gauean Eingeinke eta Aitzorrorek elkarteek antolatutako ekimena ikustera joateko gonbita.



Zast!, Arrasaten. | KOLDO CARRILLO

Obra publikoetako ingeniari teknikorako azterketa hilaren 15ean

Obra publikoetako ingeniari tekniko plaza betetzeko oposizio-lehiaketaren lehen azterketa egiteko data jarri du Udalak. Martxoaren 15ean izango da, 10:30ean, kultura etxean. Horretan, oinarrietako lehen eranskinetako gai zerrendatik ateratako test motako galdera sorta erantzun beharko da, idatziz.

Jendaurrean aurkeztu du aurrekontua Udalak

2012rako, 2.505.769 euroko aurrekontu proposamena egin du Udalak

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Joan den egunean, Torresoroan, herritarren aurrean aurkeztu zituen Antzuolako Udalak 2012rako behin-behineko aurrekontuak. Hala, aurtengo aurrekontu proposamena 2.505.769,92 euro da, iazkoa baino 38.000 euro gehiago (iaz 2.467.453 euroko aurrekontua onartu zen).

Aurten, etxebizitza eta hirigintzarako eta gizarte sustapenerako bideratuko da diru partida nagusia: gizarte sustapenerako %18,87 (472.943,76 euro); eta etxebizitza eta hirigintzarako %19,54 (489.595,01 euro).

Inma Beristain alkateak esan zuenez, zifrei dagokien aurrekontuak ondo koardatu dituzte. Horretarako, baina, ibilgailu eta etxebizitzaren zergak igo beharko dituzte: "Zergak KPI baino gehiago igo behar izan ditugu Udalak Kutzarekin zuen kontratuaren ondorioz. Izan ere, mailegua lortzeko baldintza bat zen. Horregatik, zerga nagusiak asko igo ditugu: ibilgailu eta etxebizitzaren zergak, denok erabiltzen ditugunak, alegia, igoko dira".

Kontuak osasuntsuak izan eta zorrak ondo ordaindu gura ditu Udalak. Inbertsioei dagokienez, 125.600 euro bideratuko dituzte aurten. Iaz baino 36.300 euro gehiago (89.291 euroko inbertsioa egin zen 2011n). Dena den, inbertsio gehienak egiteko dirulaguntzen zain daudela nabarmendu digu Beristainek: "Parke

gorrian arazo bat dago. Izan ere, ura garajetara sartzen da, eta horri irtenbidea eman nahi diogu. Gainontzeko inbertsioak egiteko dirulaguntzen zain gaude. Esaterako, eskolako patioa konpondu egin gura dugu haurren jolasparkea egokitzeko. Ur sare zabaltzeko lanak egitea ere bada asmoa".



Torresoroan jendaurrean aurkeztu ditu Udalak 2012rako aurrekontuak. | IRATI GOITIA

2012RAKO AURREKONTU PROPOSAMENA

ARLOA	EUROAK	%	ARLOA	EUROAK	%
Zor publikoa	374.101	14,93	Kultura	163.689	6,53
Gobernu organoak	80.044	3,19	Kirolak	43.620	1,74
Adm. orokorra	439.102	17,52	Liburutegia	59.925	2,39
Gizarte sustapena	472.943	18,87	Euskara	39.371	1,57
Hezkuntza	77.988	3,11	Gazteria	19.544	0,78
Etxebizitza - hirigintza	489.595	19,54	Nekazaritza	76.732	3,06
Komunit. ongizatea	169.112	6,75	GUZTIRA	2.505.769	100,00

Hala, helburua Antzuolako dituen zerbitzuak mantentzea dela azpimarratu digu alkateak; izan ere, diru-sarrerak asko

murritzitu direla gaineratu digu Beristainek. Eta gastuei dagokienez, gastu pertsonalak dira gastu azpimarragarrienak, 760.000 euro pasatxokoak izatea aurreikusitako antzuolako Udalak.

Prozesu parte-hartzailea

Bestetik, hurrengo urteari begira, aurrekontuak herritarrekin batera prozesu parte-hartzailean erabakiko dituztela azaldu du Antzuolako alkateak: "Udalbatzarrean onartu aurretik, jendaurrean aurkeztu gura izan ditugu aurrekontuak, herritarren iritzia jasotzeko. Asmoa da 2013rako denen artean egitea".

Joan den astean aurkeztutako 2012rako aurrekontu proposamena datorren asteko martitzenean, osoko bilkuran, aurkeztuko du Udalak, eta bertan erabaki. Martxoaren 6an izango da, 18:00etan.

Hitzaldiak, erakusketak, antzezlanak... badago zerekin gozatu martxoan ere

M.A | ANTZUOLA

Martxoan sartu berri gara, eta Kultura Sailak egitarau polita antolatu du. Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, Usoa Jauregi gazte antzuolarrak Japoniara egindako bidaia kontatuko du. Orlanen izango da, 18:30ean hasita. Baina egun horrekin lotuta, Martxoaren 8ko kartel lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai izango dira bi aste bukaeratan: martxoaren 10ean eta 11n eta martxoaren 17an eta 18an, hain zuen ere. Bestalde, musika, antzerkia eta hitzaldiak ere izango dira.

MARTXOKO KULTURA EGITARAUA

EGITARAUA:

Martxoak 4: Txistularien diana, 10:00etan.

Martxoak 8: Antzuolarrak munduan zehar: Usoa Agirre Japoniara egindako bidaiaz, 18:30ean, Orlanen.

Martxoak 10 eta 11: Martxoaren 8ko kartel lehiaketara aurkeztutako kartelak ikusgai, 18:30-20:30, Orlanen.

Martxoak 11: Txistularien diana, 10:00etan.

Martxoak 11: Belceblues taldearen kontzertua. 18:30ean, Torresoroan.

Martxoak 15: *De vecinos como estas, ¡Libranos señor!*, Oñatiko erretiratuen antzezlan, 17:00etan, Torresoroan.

Martxoak 17 eta 18: Martxoaren 8ko kartel lehiaketara aurkeztutako kartelak ikusgai.

Martxoak 18: Txistularien diana, 10:00etan.

Martxoak 21: Hitzaldia Orlanen Al-Anon (alkoholikoek sende eta lagunen elkarte).

Martxoak 24 eta 25: Erakusketa: *Hondakin gutxiago, ongizate gehiago.*

Martxoak 25: *Ipuin lapurra* antzezlan umeendako, 18:30ean, Torresoroan.

Gaur eta bihar egingo dituzte gaztetxearen inguruko topaketak

Martxoaren 2rako eta 3rako topaketak antolatu ditu Antzuolako Gazte Asanbladak. Hala, herri eta belaunaldi askotariko gaztetxearen kideekin bilduko dira gaur, 22:00etan hasita. Helburua da esperientzia ezberdinak trukatzeko.

Bihar, zapatua, aldiz, goizeko hamarretan hasita, gaztetxearen kudeaketa oinarri izango duen topaketara joateko dei egiten diete antzuolako gaztetxearen kideek. Besteak beste, lan egutegia eta egiteko geratzen den lana antolatu gura dute herritar guztien artean, auzolanean.

Lip duba, film emanaldia eta Elosura irteera martxoan

Martxoko asteburuetan ere gazte txokoa badago zerekin gozatu. Hala, zapatuan, berdintasun generoaren gaineko tailerra egingo dute. Martxoaren 10ean eta 11n, aldiz, *Izarraren argia* euskarazko filma ikusteko aukera izango da, 17:00etan.

Hirugarren astebururako Elosura irteera antolatu dute gazte txokotik. Interesa dutenek izena eman beharko dute aurrez.

Azkenik, martxoko azken asteburuan, hilaren 24an eta 25ean, lip duba grabatuko dute animatzen diren guztiekin batera.

Xabier Legorburu | Alardearen kultura elkarteak

"Alardea sustatzeko herritarren atxikimendua indartu gura dugu"

M.A | ANTZUOLA

Herriko ondarerik garrantzitsuenak, Mairuaren Alardea, egokitzeko, Udala eta alardea zaharberritzeko partaideak azken urteotan elkarlanean aritu dira. Bada, prozesu hori amaitutzat jotzen dute eta zaharberritzeko partai-

deek Mairuaren Alardearen elkar- teia osatzea erabaki dute.

Zertan diharduzue Mairuaren Alardeko elkarteak?

Udalaren eta elkartearen arteko hitzarmena lantzen jardun dugu. Dena ondo joanez gero, martxoaren 6ko udalbatzarrean onartuko

da. Bestetik, martxoaren 9an herritarrei inkesta egingo diegu. Aste Santu ondoren, berriz, aurtengo alardearen antolaketari ekingo diegu. Foru Aldundiko Kultura zuzendariarekin hitzordua adostuta daukagu alardeari babesa eta laguntza emateko.

Zer dela eta Udalaren eta elkartearen arteko hitzarmena?

Bien helburua da alardea antolatzeaz gain, sustatzea, babestea eta zabaltzea; belaunaldiz belaunaldi bizirik irautea eta herritarren atxikimendua indartzea.

Helburu horiek hobeto beteko dira indarrak batuta, elkarlana eraginkorrago delako. Batera azaltzeak gure mezua indartuko duelakoan gaude: Mairuaren Alardea bakarra, geurea da; denok gaude haren alde lan egiteko. Ondorioz, alardearekiko antzuolarrak dugun identifikazioa ere indartu egin liteke.

Inkesta, zer dela eta?

2009an Mairuaren Alardea aldatu eta biziberritu egin zen. Balaratu nahi dugu aldaketok herritarren zein harrera eta eragin

izan duten eta alardearekiko jarrera nolakoa den, aurrera begirako urratsak egin ahal izateko. Inkesta, batetik, Internetez egiteko aukera egongo da www.antzuola.com webgunean; bestetik, martxoaren 9an, barikuan, herritarrei inkesta kalean egingo diegu. Eskertuko genuke jendeak parte hartzea eta inkesta delako gure eginkizunak bideratzeko. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartuko duten guztiei.

Martxoaren 8aren bueltan, hainbat ekintza Itur-Zuri elkartearen eskutik

Emakume Astea dator: aurtengo nobedadea, Lilaton lasterketako parte hartzea

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Itur-Zuri emakume elkarteak Emakume Astea antolatu du aurren ere. Hala, bihar hasi eta datozen egubakoitzera arte hainbat ekintza antolatu dituzte. Ekintzon helburua azaldu digu Belen Agirre Itur-Zuri elkartearen presidentea: "Antolatzen diren ekintza ludikoetan ondo pasatzeaz gain, Martxoaren 8ak duen esangura gogoratu eta horren gainean gogoeta eragin gura dugu. Aste berezia antolatzen jarraitzen dugu berdintasuna aldarrikatzea oraindik beharrezkoa dela uste dugulako".



Bingo afaria izaten da Emakume asteko ekitaldi jendetsuena. | ARTXIBOIA

Bingo afaria, "derrigorrezkoa"

Ondoko egitarauan ikus daitezkeen ekintzen artean jendetsuena bingo afaria izaten da urtero: "Derrigorrez antolatu beharreko ekitaldia da. Adinekoak diren emakumeek urtero espero dute; aitzakia polita da kanpoan afaltzeko. Izan ere, afaria ez dute eurek prestatzen

eta gainera, ondo pasatzen dute", dio Agirrek.

Aurtengo nobedade nagusia da domekan Donostian ospatuko den Lilaton lasterketan Aramaio-ko emakume talde batek parte hartu behar duela. Egun osorako irteera egingo dute.

Astea, 15 urtetan gutxienez

Itur-Zuri emakume elkarteak duela 20 bat urte sortu zen. Bada, Emakume Asteak baditu gutxienez 15 urte: "Ez dut zehazki gogoratu baina nahiko hasieran hasi ginen Martxoaren 8aren harira ekintza bereziak antola-

EMAKUME ASTEKO EKINTZAK

HILAK 3, ZAPATUA

22:00 Kultur etxea. Oihulari Klown taldearen *La modelo klowntropublicitaria* antzezlan, helduendako.

HILAK 4, DOMEKA

Egun osoan Donostia. Lilaton emakumeen lasterketan parte hartzea.

HILAK 6, MARTITZENA

18:30 Sastiña. Manex Arriolabengoa eta Maria Izagaren kontzertu akustikoa eta luncha.

HILAK 8, EGUENA

18:30 Kultur etxea. Bideo kafea

HILAK 9, EGUBAKOITZA

21:00 San Martin eskolako jangela. Bingo afaria.

Udala, herri sahararraren aldarrikapenekin bat

Eguazteneko bilkuran onartu zuen udalbatzak Mendebaldeko Sahararen aldeko mozioa, aho batez

J.B. | ARAMAIO

Eguaztenean egindako bilkuran ez ohiko bisitariak izan ziren Aramaio-ko udaletxean. Izan ere, Mendebaldeko Saharako zenbait herritar izan ziren. Agurra Juldain arrasatearraren izenean aurkeztutako mozioa aho batez onartu zuen udalbatzak.

Beraz, Aramaio-ko Udalak bat egiten du Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide "justu eta demokratikoa" lortzeko Espai-

niako gobernuari eskatzen zaizkion konpromisoekin. Otsailaren 27an Saharar Errepublikari Arabiar Demokratikoaren (SEAD) eguna ospatu zela eta aurkeztu zen mozioa eta, besteak beste, Marokoko gobernuaren gerra krimenak ikertzea eta Mendebaldeko Sahararentako autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eskatu du udalbatzak. Horrez gain, beste hiru mozio ere onartu ziren aho batez.



Hainbat saharar izan ziren eguazteneko osoko bilkuran. | JOKIN BEREZIARTUA

Kutxabank, erreforma eta Eudel

Mozioak izan ziren bilkuran protagonista. Izan ere, Bilduk hiru mozioa aurkeztu zituen: Kutxabank herriaren zerbitzura egotea eska-

tzekoa, sektore publikoaren erreformaren aurkakoa eta Eudelek Zuiako koadrilako ordezkaria gehiengoaren arabera aukeratzea –egun EAJko ordezkaria dago–.

Lapurretak direla-eta auto susmagarriak ikusiz gero Ertzaintzari deitzeko aholkua

J.B. | ARAMAIO

Azken denboraldian lapurreta saiakerak egon dira, besteak beste, gazte lokalean –ate bi apurtu dituzte– eta Ibarratik Barajuenera bidean dagoen Benta Motz baserrian. Gainera, Jose Ramon Uribe auzoetako zinegotziak jakinarazi du txabola baten teilatu-hodiak lapurtu dituztela. Ez da hori dena:

Etxaguen eta Gantzaga auzoetako elkarte gastronomikoetan eta Goiko tabernan ere ostu zuten orain gutxi. Udalaren arabera, auto susmagarriak ikusi dira azkenaldian eta Ertzaintzari jaso du lapurreton berri. Auto susmagarriak ikusiz gero, Ertzaintzari deitzea (943 53 47 20) aholkatu dute eta ahal bada, matrikula apuntatzea.

Orixolen eski irteeran izena emateko azken aukera asteburuan

Orixol mendizale elkarteak eski irteera antolatu du martxoaren 8, 9 eta 10erako. Elkarte-ko bazkideek 120 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, berriz, 130 euro. Izena nola eman? Herriko tabernetan izen abizenak eman edo orixolme@hotmail.com helbidera idatzita. 25 bat lagun espero dituzte.

Atzo hasi zen memoria tailerra eta hilaren 29ra arte iraungo du

Atzo, martxoak 1, hasi ziren 60 urtetik gorakoendako memoria tailerrarekin. Leire Espinosa gizarte langilearen arabera, azkenean hamar lagunek egin dute bat Udalak egindako deialdiarekin. Martitzen eta eguenean elkartuko dira Lurgorri eguneko zentroan, 09:30etik 11:30era. Martxoaren 29ra arte iraungo du ikastaroak.

Aramaioarrak hilaren 11n lehiatuko dira bertso txapelketan

Arabako koadrila arteko bertso txapelketa heldu da finalerdietara. Bat-batekoan, Aramaio-ko Marixeka koadrila Aguraingo Sorginetxeren aurka lehiatuko da. Idatzizkoan, berriz, Aramaio-ko Ai Ene! taldeak ere Aguraingoak izango dituzte aurkari. Araiko Andramari aretoan izango da; hilaren 11n, 17:30ean.

NIRE USTEZ

ANDER ELORTONDO



Munduko onenak harrotasunez

Aste honetan Espainian gehien eta egokien birziklatzen dugunak garelako esan didate Ecoembes enpresan. Denis Itxasok Austrian baino gehiago (%70) ezin dugula birziklatu esan du. Baieztapeak ez du arrazoirik ematen, berak dio eta kito.

Atez atekoa ezarri den herrietan, ordea, %80tik gora birziklatzen dabilta eta Antzuolan, berriz, %90 inguru. Antzuolarrek badute harro egoteko arrazoirik, munduko onenak dira. Eta besteok zergatik uko egin munduko onenak izateari? Jakin badakit aldaketa guztiek beldurtzen dutela, inoiz ezer galdetu ez digutenak galdeketa-zale bilakatzeke haina.

Nire ustez, ordea, Bilduk bere hauteskunde programako punturik garrantzitsuenak ez betetzea bozkatu dutenei iruzur egitea litzateke. Horrez gain, zergak ordaintzea bozkatzeko ez den bezala, gizarte betebeharrak delako, birziklatzea ere ezin da aukerakoa izan, birziklatu egin behar da.

Atez atek badu niri haren aldeko bihurtzen nauen arrazoi garrantzitsua: bakoitzak sortzen duen zaborraren arabera ordaintzea ahalbidetzen duen sistema da. Katalunian atez-ate dagoen herri batzuetan zabor-tasa ateratako poltsen arabera kobratzen da. %90eko birziklatze maila duen eta zabor sorreraren arabera kobratzeko aukera duen beste sistemarik ez dut ezagutzen; balego, hura ere babestuko nuke.

"Birziklatzea ezin da aukerakoa izan, zergak ordaintzea ez den moduan"

ELGETA



Charo Beobide. | L.Z.

Charo Beobide Kattalin elkarte "Mamografia egitea oso garrantzitsua da, ez gelditu etxean!"

L.Z. | ELGETA

Eguaztenean, bularreko minbizia zer den eta nola antzeman daitekeen azaldu zuten Espalioan Ospitale Onkologikoko sendagile Arrate Plazaolak eta Kattalin elkarteko presidente Charo Beobidek. Argi hitz egin zuten.

Zein da Elgetako emakumei helarazi nahi diezuen mezua? Elgetako 50-69 urte bitarteko emakumeek laster jasoko dute etxean —honezkerok jaso ez badute— mamografia egitera joateko txanda ematen dien gutuna. Emakume guztiak proba hori egitera joatea nahi dugu. Hori da gure helburu nagusia. Ez dadila bat bera ere joan barik gelditu!

Zergatik da proba hori hain garrantzitsua?

Mamografia horiekin oso tumore txikiak ikus daitezke —3-5 milimetrokoak—, eta gaixotasuna hasierako fase horretan detektatzen badugu ia segurua da emakume hori sendatuko dugula.

Kattalin elkartearen berri ere eman duzue.

Bai. Gipuzkoa osora iristen gara, eta ez dugu nahi bularreko minbizia detektatzen dioten emakume bakar batek ere bidea bakarrik egitea. Ospitalean, Onkologikoan eta Intxaurren gaude. Deitu!

Bilduk ardurapean zituen bi batzordeak utzi egin ditu

Agintaldi hasierako baldintza eta baliabideak zalantzan daudela esan dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Bi batzorde hartu zituen Bilduk agintaldi hasieran: Kultura-Euskara-Jaiak-Gazteria eta Ongizate-Osasuna. Biak uzteko erabakia hartu dute. Martitzeneko bilkuran eman zuten erabakiaren berri Bilduko bozeramaile Janire Lazkanok. Esan zuen herrian eragin eta lana gogotik egin guran hartu zituztela ardura biak. "Batzordeek denbora hartan baldintza eta baliabide argi batzuk zituzten, baina azken hilabeteen baldintza eta baliabide horiek zalantzan jarri dira, oso modu prezipitatu. Batzordeen funtzionamendua ego-kia eta jarraitua izateko barne baliabideak garbi edukitzea ezinbestekoa suertatzen zaigu, eta ez gaude prest ezjakintasunean eta Udalak hartuko dituen erabakien zain denbora gehiago eta gehiago igarotzeko, batzordeen funtzionamendu normala oztapatuaz".

Alkatearen erantzuna

"Batzorde-burutzetatik ez dutela lan egingo esan zuten Bilduko bozeramaile Janire Lazkanok", esan du Oxel Erostarbek, eta era-

bakia ez ulertu arren errespetatu egiten duela dio. "Krisia dela-eta 2012ko aurrekontuak onartu genituenan geneuzkan aurreikuspen batzuk aldatu egin dira. Erabakitzeke dago zer diru-lerrori eragingo dieten egin beharko ditugun murrizketek".

Otsaileko erabakiak

Bilkura amaieran eman zuten Bilduk erabakiaren berri. Aurretik, udalbatzak hainbat erabaki

hartu zituen. Lokal komertzialei eta teiltupeei etxebizitza erabilera emateko ordenantza onartu zuten, baita 36ko gerraren interpretazio gunearengatik Udalak Espalioari urtean 1.800 euro emango dizkiola jasotzen duen hitzarmena ere —azken hori Bilduko hiru zinegotzien kontrako botoekin—. Alkateak jakinarazi zuen, bestalde, orain jaioberriak euskaraz erregistra daitezkeela Elgetan.



Elgetako Bilduko hiru zinegotziak. | L.Z.

FRONTENIS TXAPELKETA

Txapelketa erdialdera iritsi da

Antolatzaileen esanetan, finalerdiak eta finalak apirilean jokatu dira. Oraingo, gizonezkoetan, Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro bikotea doa aurretik. Emakumezkoetan, berriz, Idoia Elkoro-Enrike Elkoro bikotea. Ez bata, ez besteak ez dute, oraingo, partidurik galdu.

AURREKO JARDUNALDIKO EMAITZAK

Adrian Gorostiza-Asier Osoro / Mikel Zubiaurre-Danel Cusi	25-04
Eneko Maguregi-Andoni Elortza / Jon Irazabal-Asier Untzetabarrenetxea	25-14
Idoia Serna-Asier Osoro / Maite Mandaluniz-Jabier Larrañaga	25-14
Idoia Elkoro - Enrike Elkoro / Rebeka Uebera-Mikel Arkarazo	atzeratua

PARTIDUAK BARIKUAN, HILAK 2, 21:30EAN

Iban Retolaza-Xabier Uebera / Mikel Zubiaurre-Danel Cusi

PARTIDUAK ZAPATUAN, HILAK 3, 16:30EAN

Oskar Sarasua-Xanti Dosuna / Adrian Gorostiza-Asier Osoro

Jone Dosuna-Xanti Dosuna / Idoia Serna-Asier Osoro

Idoia Elkoro-Enrike Elkoro / Rebeka Uebera-Mikel Arkarazo

Elgetako fronteko argazki berriak Bilbon ikusgai

L.Z. | ELGETA

Asteon zabaldu dute Bilboko Arte Eder museoan *Maleta mexikarra* izeneko erakusketa. Capa, Taro eta David Seymour *Chim* foto-kazetariaren gerra-argazkiak dira, 1995ean Mexikon agertu arte galdutzat ematen zen materiala, eta gehiena aurretik ikusi gabea. 70 bat argazki eta handitutako kontaktu orri modernoak daude ikusgai. Intxorta 1937 kultur elkarteko Josuren Murgizak esan duenez, tartean dira David Seymour *Chim*-ek Elgetako frontean ateratako irudiak. Erakusketa ekainaren 12ra arte dago zabalik.

'Llorar por llorar' antzeulanaren estreinaldia gaur

Pez en Raya konpainiak Espalioa kafe antzokian estreinatuko du gaur, barikua, *Llorar por llorar* antzezlana. Umorrezko obra da, eta aurpegi ezagunak ikusiko ditugu lanean agertoki gainean; *Lo que se avvicina* telesaileko Cristina Medina aktorea, esaterako. Emanaldia 22:30ean hasiko da eta sarreraren prezioa 12 euro da; 10 euro bazkideendako.

Domekan, 10:00etan, bisita gidatua Intxortako lubakietara

1936-1937ko negua latza izan zen Intxortako lubakietan, eta aurten beteko dira 75 urte gudariek Francoren tropak Intxortan geldiarazi zituztela. Gertakari horiek ezagutzera emateko bisita gidatua egingo dute domekan, martxoak 5. Interesatuak izena eman behar dute 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefono zenbakira deituta.

Dinamizatzailea KZgunean izango da astelehenean

Eliana Modrego dinamizatzaileak astelehenean, martxoak 5, egingo du hileko lehenengo bisita Elgetara. Arratsaldean izango duzue kultura etxeko ordenagailu gelan, 16:00etatik 19:00etara. Hurrengo hitzordua hilaren 19an izango da, kasu horretan ere arratsaldean. Ohikoa den moduan, hainbat ikastaro doan egiteko aukera emango du Modregok.

Sei lan aurkeztu dituzte Martxoaren 8ko kartel lehiaketara

Sei kartel aurkeztu dituzte Bideberri mankomunitateak deitutako kartel lehiaketara, eta guztiak Elgetakoak dira. Epaimahaia martitzenean batzartu zen, eta laster eza-gutuko dugu epaia. Kartelekin, bestetik, erakusketa egingo dute Espalioan Martxoaren 8tik aurrera.

LEINTZ GATZAGA

Gastuek jan dute aurrekontua eta inbertsiontarako oso diru gutxi dago

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gatzagako udalbatzak 2012rako aurrekontua onartu du: 395.883 euro. Iazkoarekin alderatuta (421.000 euro) %17,79ko jaitsiera izan du, eta gastuetarako izango da gehiena; hala, inbertsiontarako oso diru gutxi dute, 4.000 euro.

Diru sarrera arruntek %6ko jaitsiera izan dute aurreko urtea-

rekin alderatuta, eta, ondorioz, gastuetan ere murrizketak egin dituzte: %7.

Zati handiena gastuak estaltzeko da: batetik, pertsonal gastuak, 111.660 euro —ez dute soldata igoerarik aurreikusi langileendako—; eta bestetik, udal jardunean sortzen diren ohiko gastuak, 198.588 euro.

Inbertsiontarako 4.000 euro

Inbertsioak egiteko oso diru gutxi geratu zaie, 4.000 euro. Eta diru hori derrigorrez egin behar duten ehiza planerako izango da.

Bestetik, kapital transferentzietan sartutako 6.110 euroak Mankomunitateari eman beharrekoak ordaintzeko erabiliko dituzte; hau da, Mankomunitateak berak inbertsioak egiteko eta Ur Kontsorzioari ordaintzeko.

Eta Aldundiari itzuli beharreko 26.900 euroak lau zatitan ordainduko dizkiote.

AURREKONTUA

GASTUAK	EUROAK
Ohiko gastuak	368.862
Pertsonal gastuak	111.660
Udal jarduneko gastuak	198.589
Interesak	410
Transferentziak	58.203
Inbertsioak	4.000
Kapital transferentziak	6.110
Beste batzuk	16.911
AURREKONTU OSOA	395.883

'Sorginen' bazkarirako izen-emate epea zabalik dago

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko dute Sorginak elkarteko emakumeek, urtero legez, eta bazkaria egin martxoaren 10ean, zapatua, Gure Ametsa jatetxean. Bazkari ederra, musika, umore ona... ziurtatuta daudela jakinarazi dute. Izena emateko Labidea dendara jo behar da; azken eguna eguaztena da, hilak 7.

ERRUGBIA**Iker Elortza** | Ampo Ordizia taldeko errugbilaria

"Ordiziako plazan gaztetxoek errugbian jokatzeko dute, hori ez da beste inon ikusten"

- ▶ Arrasatekoak Espainiako Kopako finala jokatuko du apirilean, El Salvadorren kontra
- ▶ Ligan aurrealdeko postuengatik lehian dabilta; asteburuan Madrilen jokatuko dute

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Apirilean Iker Elortzak (Arrasate, 1984) Espainiako Kopako finala jokatuko du Ampo Ordizia errugbi taldearekin, Palentzian. Eta ligan ere aurreko postuengatik borrokan dabilta, nahiz eta asteburuan Getxoren kontra berdinduta bigarren postua galdu duten. Urtebete igaro da Zeelanda Berritik itzuli zenetik, eta asmo garbiarekin itzuli zen handik: Ordiziari tituluren bat eskuratzeko laguntzea. Gertu dute balentria. Hurrengo hitzordua asteburuan, Alcobendas taldearen zelaian.

Duela hamabost egun sailkatu zineten Kopako finalerako. Asteburuan, berriz, espero ez zenuten emaitza izan duzue Getxoren kontra. zer gertatu da?

Ba, taldeak beherakada izan duela. Horrelakoetan gertatzen da, helburu bat lortzeko gogorlan egin, esfortzu guztiak horretara bideratu, eta lortzerakoan psikologikoki behera etortzea, edo lasaitzea. Kopako finalerako sailkatu garenean lasaitu egin gara, eta Getxokoek aprobetxatu egin zuten hori. Pena izan zen, bost puntu irabazteko partidua zelako eta liderrak ere hanka sartu duelako asteburuan. Tarte txikitzeak aukera alferrik galdu dugu.

Dena dela, denboraldi-aurrean gustura sinatuko zenuten otsail amaieran egoera honetan egotea: Kopako finalean, ligan aurrealdean...

Iazko denboraldiaren ostean klubak apustu sendoa egin du: pare bat fitxaketa on egin ditu, arlo fisikoa lantzeko espresuki ekarri dute entrenatzaile bat... Iazkoa berdindu edo hobetu egin behar dugu.

Ordizia moduko talde batendako zer esan nahi du Espainiako Kopako finalerako sailkatzeak?

Gauzak ondo egin diren seinale. Kluba duela urte batzuk hasi zen harrobiarekin serio lan egiten, eta titulua irabazita edo ez irabazita, lan ona egiten dabiltzala erakusten du.

Urtebete igaro da Zeelanda Berritik itzuli zinenetik. Zelako esperientzia izan zen hangoa?

Asko ikasi nuen errugbiaz, oso esperientzia baliagarria izan zen, baita arlo pertsonalean ere. Han errugbia hemen baino askoz ere aurreratuago dago, Espainian baino aurreratuago, baita Ingalaterran baino aurreratuago ere.

Han kirol nagusia izango da, ala? Bai, sekulakoa da, han ez dago besterik. Izan ere, Espainian

Iker Elortza, astelehenean, *Harmailatik* telebista saioan. | x.u.

futbolak izan dezakeen indarra baino askoz handiagoa du han errugbiak. Han jendeak burua galtzen du kirol honekin, eta hango selekzioak jokatzeko due-

"Ordizia duela urte batzuk hasi zen harrobiaz serio lan egiten, hori da bidea"

"Zeelanda Berrian errugbia kirol nagusia da, han ez dute besterik"

nean, All Blacks taldeak, izugarria da.

Pentsatzen zenuen moduko maila topatu zenuen han?

Egia esateko, maila handia topatu nuen han, ondoren profesional bilakatu diren jokalariekin jokatuko nuelako; norberarekin egon diren jokalariek profesional bilakatu direla ikusteak polita da.

Zeelanda Berritik itzuli eta zuzen joan zinen Ordiziara?

Bueno, izan nuen eskaintza txiki bat hortik, baina handik etorri nintzenez lan barik nengoen, etxetik kanpora bizi nintzen, eta Ordizian zerbait polita eskaini zidaten. Etxe ondoan, leku ezagunean... ez nuen zalantzarik izan.

Ikustekoa izan zen Ordizia utzi zenuenean taldekide eta zaleek egin zizuten agurra.

Azken batean, urte asko dira taldean. Ordurako sei urte neramatzen Ordizian, eta polita izan zen jendeak maite ninduela ikustea.

"Ordizia talde umila da, balioak errotuta dituena; hori du ona"

"Ordizian jendea 'engantxatuta' dago errugbiarekin, sekulakoa da"

Zer dauka Ordiziak? Izan ere, 10.000 biztanleko herri batendako ez da erraza izango edozein kiroleran ere maila gorenera iristea, eta mantentzea.

Umila dela, eta talde balioak oso errotuta dituela. Nik uste dut zaleek errugbi zelaira joaten direnean batuta dagoen talde bat ikusten dutela, jokalariek konprometituta daudela, eta horrek asko esan nahi du.

Baina bistan dago Ordiziak ezin duela izarrez betetako talderik izan.

Harrobia zaintzean dago gakoak, duda barik. Ordiziak ezin du fitxaketa mordo egin, eta horrek ere ez du etorkizuna ziurtatzen. Tarteka, posible da jokalaria pare bat fitxatzea, baina harrobian dago gakoak. Uste dut orain arte ondo egin direla gauzak, eta hor daude emaitzak.

Zaleak aipatu dituzu. Ikustekoa da etxeko jarraitzaileek zelan jarraitzen duten Ampo Ordizia.

Nik uste dut jendea *engantxatuta* dagoela. Kirol hori ezagun egin da herrian eta jarraitzaile fidelak ditu. Eta orain berdin dio Sevillan edoartzelona jokatuta, jendea partiduetara joatera animatzen da-eta.

Gipuzkoan, gazteendako futbola izaten da lehenengo aukera; Ordizian buelta eman diote horri.

Ordizian errugbia kirol nagusi bilakatu da, duda barik. Ordiziako klubeko kategoria guztietan gazteak emaitza onak jasotzen dabilta, eta esanguratsua dena, Ordiziako erdiko plazara domeka batean joanez gero, gazteak errugbiko baloiarekin ikusiko ditugu jokatzeko. Hori ez da beste inon ikusten.

Palentzian jokatuko duzue finala, eta hango futbol zelaia 8.000 ikuslerendako lekua du. El Salvadorrek ere zale mordo dituzte, eta gertu dute Palentziako hiriburua. Giro ederra egongo da finalean.

Ez dakit futbol zelaia beteko den, ikusle asko dira 8.000, baina seguru Ordiziatik jende asko joango dela. Klubak, seguruenik, hainbat autobus antolatuko ditu jendea bidaia errazteko, eta beste asko euren kabuz joango dira Palentziara. Ezin izango nuke esan zenbat zale batuko diren.

Arrasateko lagunak joaten dira partiduetara?

Bai; zapatuetan parrandarik egiten ez badute bai, behintzat. Eta etxekoak, neskalaguna... haiek ere jarraitzaile fidelak dira, ezin naiteke kezatu.

MENDI LASTERKETAK

Oihana Kortazarrek Salomon Santiveri etxearekin sinatu du hainbat lasterketa haiekin korritzeko

Iaz korritu zituen 21 lasterketetatik 18 irabazi ostean –tartean mundu mailako garrantzitsuenak–, Oihana Kortazarrek Salomon Santiveri etxearekin sinatu du aurten haiekin korritzeko. Hala, Elgetakoak, besteak beste, Kilian Jornet, Iker Carrera, Mireia Miro eta Nerea Martinez atletak izango ditu ondoan. Kortazar denboraldia hastear dago, eta Zegama-Aizkorri ondo prestatu nahi du.

MENDI LASTERKETAK

Ternuak uztailean egingo duten Ehun Miliak ultratrail proba babesteko hitzarmena sinatu du

Uztailaren 13tik 15era arte egingo dute aurtengo Ehun Miliak ultratrail proba, eta, bigarren urtez, Ternua izango da lasterketa horretako babesleeta bat. "Ternuak modalitate honen erreferentzia izan nahi duen lasterketa honen aldeko apustu tinkoa egiten du". Aurten ere Goierriko, Tolosaldeko, Urola Kostako, Urola Garaiko eta Deba-goieneko hainbat mendi zeharkatuko ditu probak.

ATLETISMOA

Eskola kiroleko atletismo jardunaldiak egingo dituzte datozen bi zapatuetan Mojategin

Mojategiko atletismo pista neska-mutikoz beteta egongo dira datozen bi zapatuetan, atletismoko bi jardunaldi egingo dituzte -eta Arrasateko instalazioetan. Guztira, atletismoko bost modalitate ezberdinetan jardungo dute: altuera saltoa, luzera saltoa, pilota jaurtiketa, 60 metroko lasterketak eta errelebutako lasterketak. 180 neska-mutiko inguru batuko dira bihar.

ATLETISMOA

Istar Dapenak eta Malen Ruiz de Azuak Valentzian jokatu dute Espainiako txapelketa asteburuan

Pista estaliko gazte mailako Espainiako txapelketak egingo dituzte asteburuan Valentzian, eta Arrasateko klubak emandako bi harribitxi izango dira lehian. Istar Dapena (Real Sociedad) lehiatuko da gazte mailan, eta emakumezkoetan Malen Ruiz de Azuak (Bidasoa) egingo du salto. Lehenengoak 4,01 metroko marka du eta Ruiz de Azuak, 3,65 metroko marka.



Falta den dirua batzen ez bada, apirilean ez da Itzulirik egongo. | GOIENA

TXIRRINDULARITZA

Anton Elortza: "51. edizioan horrela ibili behar izatea ere..."

Euskal Herriko Itzulian Oñatik berebiziko protagonismoa izan behar zuen, baina kolokan dago guztia: "Guk lanean jarraitzen dugu"

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Azken egunotan argitaratu diren albisteekin atsekabetuta dago Anton Elortza oñatiarra. Euskal Herriko Itzulia antolatzen duen Euskadiko Txirrindulari Elkargoko kide da, eta baita lasterke-

ta Oñatira ekartzearen ardura dundetako bat ere. Aurten Oñatik aparteko protagonismoa izan behar zuen Itzulian, azkenaurreko etapa Oñatin amaitzerarekin batera –herrian bi itzuli egin ostean– hurrengo egunean ere

erlojupeko erabakigarria egitekotan zirelako (19 kilometro Oñatiko auzoetan barrena). Baina Itzulia eta Donostiako Klasikoa antolatzeko 150.000 euro falta dira: "Nire ustez, diru kopuru hori huskeria da horrenbeste urte dituzten lasterketak galdu behar badira. Itzulia aurten egiten ez bada, egutegian leku hori galduko genuke, eta gero zaila izango da errekupeatzea. 51 edizioen ostean horrela ibiltzea ere...", adierazi digu Elortzak. Hala, egun hauek erabakigarriak izango dira, eta, astebururako berririk ez badago, datorren astelehen edo martitzenean komunikatua aterako dute.

Espainiako Vueltari, ezer ere ez Hori da Eusko Jaurlaritzako Patxi Mutiloak adierazi duena, Vueltak aurten ez duela sosik hartuko; izan ere, Mutiloari askok aurpegiatu diote Vueltaren alde egin izana eta Euskal Herriko Itzulirako dirulaguntza murriztea. "Baliteke atzean politika kontuak ere egotea, baina ni ez naiz horretan sartuko, gurea ez delako politika, eta bai lasterketak antolatzen laguntzea".

'Kontuz! 1 euro' kanpaina abian Aurrekontua osatzeko falta den kopurua lortzeko kanpaina abiarazi dute, ziklismoa maite dutenek ekarpen txiki bat egiteko. Helburua da bakoitzak euro bateko –edo gehiagoko– ekarpena egitea kontu honetan: 2101 0072 76 0012986386.

Aretxabaletako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

Gurea
TABERNA
Lotoak eta
kinielak

Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



hemen bada
giro!

IOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



URBALTZ
TABERNA



Mitarte 21 behea • 943 79 79 79 • ARETXABALETA


**ZABALDU
BERRIA**

HIPER ASIA

Fabrikatik zuzenean



0,39€



Koadroa

25 x 35 zm - 0,39 €
29 x 39 zm - 0,69 €
34 x 49 zm - 0,99 €
38 x 58 zm - 1,29 €

1,49€



Kuxina

45 x 45 zm

1,49€



**Kontsumo
txikiko bonbilla**

1,59€



Edalontzia

6 unitate

€1



**Zoru-garbigailua
eta makila**

0,69€



**Ontziak
garbitzekoa**

0,59€



Pintzak


24 unitate

0,19€




**Boligrafoa
Bic boligrafoa**

0,89€



Esekigailua

1,49€



Bufandak

%100 pashmina
70 x 180 zm

**Gipuzkoa etorbidea 24 (Kabia Altzariak denda ondoan) - Arrasate
Asteleneetik igandera 09:00etatik 21:00etara**

KULTURA

Historian emakumeek zientzian egin duten lana jasotzen duen erakusketa

- ▶ Martxoaren 12an zabalduko dute erakusketa Arrasateko Kulturateko klaustroan
- ▶ Emakume ingeniari, arkitekto eta asmatzaileek egindako lana jasoko dute

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Bette Nesmith Graham, Margarethe Schütte Lihotzky, Ellen Henrietta Swallow, Hertha Ayrton, Josephine Cochrane, Marie Anne Lavoisier, Catherine Blodgett, Dorothy Crowfoot Hodgkin, Edith Clarke, Emily Schneider Hoover, Gertrude Elion, Grace Murray Hopper, Marion Donovan, Martha Coston, Mary Anderson, Mary Walton eta Stephanie Kwolek. Askorendako ezezagunak izango diren emakume izenak dira; baina, agian, haiek asmatutako gailuak ezagunak egingo zaizkigu. Izan ere, XIX. mende bukaera eta XX. mende hasierako ingeniari, arkitekto eta asmatzaileak dira. Emakume Txokoak antolatuta haien lana jasotzen duen erakusketa egingo dute martxoaren 12tik martxoaren 23ra, Kulturaten.

"Gure birramona ingeniari, arkitekto eta asmatzaileen lan zientifikoa ikusaraztea eta kalera ateratzea... eta orduan izan ez zuten errekonozimendua eskaintzea" izango dela helburua azaldu du Amets Beltran de Gebarak, Emakume Txokoko dinamizatzaileak. Feminismoaren eta zientziaren inguruan egiten du hausnarketa erakusketak, baina erakusketa antolatuko duen Enkarni Gomez unibertsitateko irakasleak azaldu du arlo teknikoan oinarritu direla: ingeniariaren historiografian oinarritu dira.

Patentatzeko eskubide barik

"Gure ikasleei eurak ez direla lehenak erakutsi gura diegu; badagoela historia bat, xumea, txikia, eta badaudela emakumeak pionera izan direnak", dio Gomezek. Erakusketak jasotzen dituen 18 emakume horien artean badaude ezberdintasunak: "Mende hasierako emakumeek gehiago borrokatu behar izan zuten. Batzuk, sufragistak ziren, ezin zuten bozkatu; ez zuten entitate juridikorik, hortaz, patentatzeko ere norbaitekin egin behar izaten zuten. Hasieran gizonezko baten izenean, gero gizonezko batekin... hau da, lortu arte eurek bakarrik patentatzea prozesu bat bizi izan zuten", azaldu du Gomezek. XX. mende bukaerakoek "bidea eginagoa" aurkitu zutela gaineratu du Gomezek. Ikaske-



BETTE NESMITH GRAHAM
Tipp-Ex asmatu zuen. 1956an Mistake Company eratu zuen.



EDITH CLARKE
General Electrics-en lan egin zuen; turbinen indarrak neurtu zituen.



GERTRUDE ELION
Imuran eta Tovirax patentatu zituen. 88an nobel saria jaso zuen.



STEPHANIE KWOLEK
Kevlar fibraren asmatzailea; gaur egun oraindik bizi da.



MARY ANDERSON
39 urterekin autoen haizetakoa asmatu zuen Andersonek.



DOROTHY CROWFOOT
X izpien difrakzioa ikertu zuen; 64an nobel saria jaso zuen.



EMILY WARREN ROEBLING
1883an Brooklyngo zubia amaitu zuen (haren senarrak hasitako lana).



CATHERINE BLODGETTI
Kapa monokukarrak ikertu zituen, gaur egun baliagarriak direnak.

ESANAK

"Orduan izan ez zuten aitorpena eskaini gura diegu"

AMETS BELTRAN DE GEBARA
EMAKUME TXOKOKO DINAMIZATZAILA

BISITA GIDATUAK

MARTXOAREN 13AN

16:00 Komunikabideendako.

18:30 Gaztelaniaz.

19:30 Euskaraz.

tetan ere ezberdintasunak izan zituzten: batzuk matrikulatu bai, baina tituluak ezin izan dituzte lortu.

Arlo askotan mugitu ziren

Erakusketan ikus daiteke hainbat arlotan egin zituztela asmakizunak emakumeek. "Askotan zaintza edo pertsonen inguruan egiten zituzten asmakizunak: batzuk sukaldak edo fardelak asmatu zituzten... Baina beste askok beste era bateko asmakizunak egin zituzten: kutsaduraren ingurukoak, adibidez, horiek ere pertsonekin zerikusia dute", gaineratu du Gomezek. Autoen haizetakoa, betaurrekoak, material gogorak, zubiak, fardelak, Tipp-Ex... denetarik egin zuten emakume haiek.

Kulturateko klaustroan egongo da ikusgai erakusketa, 17:30etik 20:30era. Bisita gidatuak martxoaren 13an egingo dituzte: 18:30ean gaztelaniaz eta 19:30ean euskaraz.

ENKARNI GOMEZ | UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

"Zaila da emakume askok egindako lana aurkitzea, ez dago inon jasota"

Enkarni Gomez donostiarra ingeniariaren doktorea da eta Barakaldoko Meatzeingeniaritza eskolan dihardu irakasle.



Enkarni Gomez. | GOIENA

Zer jasotzen da erakusketan?

XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako 18 emakume ingeniari, arkitekto eta asmatzaile daude. Haien bizitza eta asmakizunak agertzen dira.

Nola egin duzue aukeraketa?

Teknikariak izateagatik aukeratu ditugu. Ingeniaritzaren historiogra-

fiak ez du askorik biltzen, eta zaila da emakume askoren lana aurkitzea. Helburua gure ikasleei haien aitzindariak izandako erakustea zen.

Errealitatea asko aldatu da?

Alderdi formala asko aldatu da. Legeak babestu egiten zaitu: patenta dezakezu, matrikula zaitetzeko... gaur egungo diskriminazioa burutsuagoa da. Legeak berdintasun formala babesten du, baina, lan esparruan, eskaintzaren esparruan, aurrera egiteko orduan... dago diskriminazioa.

Irratsaio misterioetsuekin umorea egingo dute

Antzezlan 22:30ean izango da Elgetako Espaloian, 12 eta 10 euroren truke

ARANTZAZU EZKIBEL | ELGETA

Pez en Raya antzerki taldeak *Llorar por llorar* lana eskainiko du gaur Espaloian. Munduko hainbat hiriburutan lanean ibili ondoren Elgetan egingo du geldialdia Sevilako taldeak. Esan behar da ez dela lehenengo aldia Pez en Raya Elgetara etortzen dena.

Aktore ezagunak

Cristina Medina eta Joan Estrader dira antzezlanoen protagonistak; zuzendaria, ostera, David Sant da. "*Llorar por llorar* antzezlana guk sortutako lana da, umorezkoa", azaldu du Cristina Medinak. Misteriozko irratsaioa duen irrati esataria da protagonista. Irratiaren 15. urteurrenean, Flecha andrea gonbidatuko du irratiara, misteriozko istorio bat kontatze-



Cristina Medina aktorea. | PEZ EN RAYA

ra. Hain zuzen ere, misteriozko istorio hori izango da antzeztuko dutena.

Erritmo bizia izango du antzezlana: "Bai, ez dugu besterik", dio Medinak. *Llorar por llorar*

lana Elgetan aurkeztuko dute modu ofizialean: "Gure asmoa indarrak hartzea da uda aldean jaialdietan aurkezteko", dio.

Umorezko saioek izaten duten arrakastaz galdetuta, Medinak dio kalean penak bakarrik entzuten direla, eta, horregatik, beharrezkoa dela umore apur bat izatea: "Penak bakarrik entzuten dira; ez dugu jakiten nork kontatuko duen pena handiena".

Elgetarekin pozik daude

Hiruzpalau bider etorri dira Pez en Raya taldekoak Elgetara: "Zaila da ez joatea... oso ondo tratatzen gaituzue eta ondo jaten dugu. Dagoeneko dietan nago!", dio Medinak. Antzezlana 22:30ean izango, da 12 eta 10 euroren (bazkideak) truke.

Bideo lehiaketa antolatu du Arizmendik gazteen artean

20 urtetik beherakoek parte hartu ahal izango dute lehiaketan; martxoaren 26a da epea

A.E. | ARRASATE

Goienarekin eta AZKrekin elkarlanean, Arizmendik BH Klip bideo lehiaketa antolatu du. Bailerako gazteei zuzenduta dago, 20 urtetik beherakoei. Helburua da bailara gaztea gai moduan hartuta eta bizikleta objektu moduan hartuta bi minutuko film laburra egitea. Objektua bideoan erabiltzea ez da beharrezkoa izango, baina baloratu egingo dute.

Lan egiteko modua

Lan bakoitzeko gehienez hiru lagunek parte hartu ahal izango dute. Lanaren iraupenari dagokionez, bi minutukoak izan beharko dute gehienez eta AVI edo WMV (Windows Media Video) formatuan aurkeztu beharko dira. Lanak martxoaren 26rako entregatu beharko dira.

Horretarako, bi modu daude: batetik, Arizmendi Ikastolako idazkaritzan utzi edo postaz bidalita (Otalora Lizentziaduna 8, Arrasate); edo bideoa Youtubera igo eta esteka helbide honetara bidaltai: komunikazioa@arizmendikide.net.

Kontuan hartuko dute

Epaimahaiak ondoko kontuan hartuko du lana baloratzera: originaltasuna, tekniko-irudi, soinu eta muntaiaren egokitasuna eta musika (ez da derrigorrezkoa egileek sortutakoa izatea). Epaimahaiak bi sari emango ditu (bideokamera bana): DBHko lan onenari eta batxilergoko lan onenari; ikusleek, ostera, boto bidez emango dute saria arizmendi.eu atarian martxoaren 30etik apirilaren 23ra arte.



The Crack taldeko kideak. | MUSICOPOLIS

The Crack britainiarrak eta Golpe de Estado oñatiarrak gaztelekuan gaur

A.E. | OÑATI

Punk-oi! eta rock doinuak entzuteko aukera egongo da gaur Oñatiko gaztelekuan, 22:00etan. 80ko hamarkadan Steve Jonesek sortutako taldea da The Crack. 60ko eta 70eko rock britainiarrean oinarrituta ospe handia hartu zuen taldeak. Besteak beste, Battle of the Bands saria irabazi zuten 1982an. Handik aurrera, baina, gainbehera etorri zen taldea eta bertan behera utzi zuen jarduna.

Hala ere, 1989an berriro ere indarberritu eta musika egiteari ekin zioten. Gaur egun kontzertu gutxi eskaintzen dituzte; bada, horietako bat Oñatin izango da gaur (bestea Badalonan eskainiko dute bihar).

Britainiarrekin batera aspaldian isilik egon diren Golpe de Estado oñatiarrak igoko dira taula gainera. Amaitzeko, DJ Kuolemak giroa du gaua. Sarrera, leihatilan, 12 eurotan.

Ke No Falte talde bilbotarrak reggae doinuak ekarriko ditu 'Vente conmigo' disko berriarekin Tartufora

Gaur, egubakoitza, kontzertua eskainiko du Bilboko Ke No Falte taldeak Bergarako Tartufon. Fusioa eta nahasketa oso gustuko dute bilbotarrek eta disko berriaren nabarmena da hori. *Vente conmigo* lana aurkeztuko dute, 23:30ean, bost euroren truke. Ska eta reggae nahasketarekin dantzari jarriko dituzte ikusleak. 12 urte pasatu dira azkeneko lana argitaratu zutenetik. Tartufora joateko autobusak jarriko dituzte: lehenengo autobusa 21:30ean irtengo da eta ordu erdian behin izango dira hurrengoak.

AGORROSIN TABERNA
SARRERA ETA AFARIA 25 €
Tiketak AGORROSIN TABERNA n eta IRATXO MERTZERIAN salgai

MARTXOAK
OSTIRALA 9
GAUEKO 21:30EAN

BERTSO AFARIA
ION MAIA
AGIN REZOLA

SAGARDOTEGI MENUA
TXOTXA BARNE
ANIMATU ETA ETORRI!

Virginia Imaz | Ipuin kontaketa irakaslea

"Ipuinetan lehenaldia dago, magikoa eta mitikoa den denbora"

- ▶ Ipuin tailerra egiten dabilta bi hilean behin Antzuolako baserri batean
- ▶ Nola kontatu ikasi eta ipuinen errepertorioa prestatzen dute tailerrean

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Ipuin tailerra egin zuten domekan Antzuolako Laskurainhaundi baserrian. Oihulari Clown taldeko Virginia Imaz ibili zen irakasle lanetan. Ikastaroaren aurretik izan ginen harekin.

Zer eskaintzen duzue ipuin tailerrean?

Tailer iraunkorra da, urte osoan egiten duguna, bi hilabete behin gutxi gorabehera. 15 bat lagun batzen gara: irakasleak, idazleak, ipuin kontalari profesionalak... baita gurasoak, umei ipuinak kontatu gura dizkietenak. Etortzen den jendearekin gure metodologia konpartitzen dugu. Nola prestatzen garen ipuin bat horrela kontatzeko. Ahozkotasunak bere legeak ditu: ez da gauza bera irakurri edo kontatzea. Hori ikasi, eta gero, nork bere erritmoa jarraituz errepertorioa prestatzen du.

Tailerrean parte hartzen dutenak gero ipuinak kontatutako dituztenak dira.

Bai. Batzuek ipuinak maite dituzte, kontatzea eta idaztea, eta etortzen dira inspirazio bila. Ipuinak asmatzeko ariketa asko egiten dugu. Gero, batzuk animatu egiten dira eta asmatutakoa kontatu egiten dute.

Ikastaro hauek jarraipena izaten dute?

Urtean zazpi saio egiten ditugu. Domeka osoa hartzen dugu, trinkoa izaten da. Nork bere erritmoa jarraitzen du, eta, norbait berria bada, nik azaltzen diot metodologia... gero komentarioak egiten ditugu eta elkarri laguntzen diogu. Batzuk etortzen dira jendaurrean hitz egiten ikasi eta lotsa galtzeko, elokuentzia lantzeko. Nola eman atentzioa eta nola mantendu jakin gura izaten dute, jendaurrean berba egiteko.

Zer garrantzi dauka ipuinak ondo kontatzen jakiteak?

Ez dira ipuinak bakarrik, nire uestez ahozkotasunak garrantzi handia dauka: nola inprobisatu, nola azaldu barruko gauzak, nola adierazi... ipuinen bidez gure



Virginia Imaz. | OIHULARI CLOWN

burua kontatzen dugu eta mundua ere kontatzen dugu. Edozein arlotan komunikatzeko oso garrantzitsua da ahozkotasuna: zerbait saltzeko, film batean, umei... Oso garrantzitsua da ipuinak entzutea. Ipuin batzuek atek irekitzen dizkigute eta arnasa hartzen dugu: hau ere posible izan daiteke. Ipuinetan dena da posible.

Ahozkotasunari dagokionez, zeintzuk izaten dira ohiko akatsak? Ze gabezia sumatzen duzue?

Ipuinak propio kontatzeko bi oztopo ditugu: batetik, lehen, entzuten genuena kontatu egiten genuen, belarririk ahora zihoan eta ahozkotasunean geratzen zen, eginda. Baina orain, ipuin gehienak liburuetan ezagutzen ditugu. Hortaz, literaturatik ahozkotasunera pasatu behar ditugu eta hori ez da hain erraza. Literatura idatzian eta ipuinak kontatzeko arakoa istorioak ditugu, baina ez da kode bera. Literaturak bere gauzak onak ditu, ahozkotasunak ez dauzkanak, eta baita alderantziz ere. Bestalde, oraingotasuna daukagu: hedabideetan berria izan behar du oraintxe bertakoak, fresko-freskoa. Hori da hedabideetatik ekarritako ahozkotasuna. Ipuinetan ezberdina da, lehenaldia dago: "Bazen behin..." sartzen gara beste denbora batean, mitikoa edo magikoa.

Ze pauso ematen dituzue?

Denbora luzea hartzen du ipuinen sukaldeak. Liburu bat hartu eta ikusi nola pasatu ahozkotasunera. Begiratu ea zerbait falta dugun... ipuinak kontatzeko behar dugu garbia izatea. Ahozkotasunean lehenengo momentutik denak garbia izan behar du, ondo ulertu behar da: nork egiten duen zer eta zergatik. Horrekin denbora luzea pasatzen dugu, mota guztietako ipuinak aztertu, zergatik ipuin batzuek funtzionatzen duten hain ondo eta beste batzuk ez.

Badu antzeztearekin zerikusirik?

Ba, egia esan ez. Ipuinak kontatzea hitzen kontua da eta nik kontatzen ditudanean Virginia Imaz naiz, eta clown lanetan nabilenean nire pailazoaren papera hartzen dut, ez naiz Virginia.



Hemen nago filmak Huhezinean Goiena saria jaso zuen iaz. | TOPAGUNEA

Euskarazko film laburren birak atzo hasi zuen bederatzigarren edizioa

A.E. | ARRASATE

Topaguneak bederatzigarren urtez antolatu du Laburbira film laburren zirkuitua. Atzo hasi zuten bira eta datorren apirilaren 3ra arte iraungo du. Tarten horretan 30 emanaldi eskainiko dituzte, besteak beste Parisen eta Londresen. Arrasaten martxoaren 13an izango da, 20:30ean, Amaian -AEDK antolatuta-; eta Bergaran martxoaren 21ean, 20:30ean, Zabalotegin -Jardunek antolatuta.

Euskarazko produkzioa

Euskarazko ikus-entzunezko urteko produkzioa ezagutarazi eta herrietako kultura eskaintza aberasteko helburua du zirkuituak. Ordu eta erdi inguru

iraungo du filmen emanaldiak. Gainera, egileak eta ikusleak elkarrengana hurbiltzeko asmorekin solasaldiak egingo dituzte emanaldien ondoren. Nabarmentzeko lanak 1961eko *Aberria* filma eta galegoz ekoiztutako *Instalación* dira.

Zortzi film labur eskainiko dituzte: Maialen Sarasuaren *Hemen nago* (Huhezinean Goiena saria irabazi zuen iaz); Joseba Uberuagaren *Izena duena*; Jon Garañoren *Urrezko eratzuna*; Gotzon Elortzaren *Aberria*; Pablo Urkixo eta David Zabalaren *Ohe azpiko zera*; Gregorio Muroren *Zeinek gehiago irauten*; Kultur kabia taldearen *Kantuka revolta permanent* eta Xoxe Diazen *Instalación*.

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

"Lanbide Heziketak enpresarekin duen lotura nabarmenduko nuke, unibertsitate ikasketekin konparatuz"

Lanbide Heziketaren azoka egingo dute apirilaren 19an eta 20an. Iñaki Riviere margolariak, unibertsitatean Arte Ederrak ikasketak burutu ostean, Eraikuntza Metalikoen goi mailako heziketa zikloa egin zuen, Aretxabaletako Lanbide Eskolan. Bere esperientzia kontatu digu. **Zer dela eta hasi zinen Lanbide Heziketa ikasten?**

Margolari lanetan nabilela egonkorragoa zen zerbaiten bila hasi nintzen, margotzeari utzi gabe. Momentu hartan lana izatea errazagoa zen, baina konturatu nintzen, zerbaitetan espezializatu beharra zegoela; bestela, lan motzak izaten ziren. Inguruan industria aktibitatea nagusi denez, arlo industrialeko zerbait aukeratu nuen.

Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?

Inem eta Hobetuz-en bidez bi soldadura ikastaro egin nituen lanean hasteko. Ikastaro horietariko bat Aretxabaletan izan zen, eta bertako irakasle batek animatu ninduen Eraikuntza Metalikoan goi mailako zikloa egitera. Izena eman eta astebetere lanerako deitu zidaten.



Zer eman zizun Lanbide Heziketak?

Enpresatik gertu dagoen formazioa da. Praktikak eraikuntza metalikoko enpresa handi batean egin nituen hiru hilabetez. Asko ikasi nuen eta bertan lanean gelditu nintzen beste sei hilabetez. Praktikan jarri nuen ikasketetan ikasitakoa, baina baita aurretik lanean hartutako jakintza ere.

Zer nabarmenduko zenuke?

Lanbide Heziketak enpresarekin duen lotura, unibertsitate ikasketekin konparatuz. Lanbide Heziketan formazioa jasotzen duzu, eta bukatzeko praktikak egiten dituzu, enpresara hurbiltzen zara... Esango nuke Lanbide Heziketa lan merkatura lotuago dagoela unibertsitatea baino, edo behintzat nik egindako ikasketetan horrela ikusi dut.



**LAJASTER
LANBIDE HEZIKETAREN
AZOKA GUREAN!**

- **NORENTZAT?** Ikasle, langile eta langabetuentzat. Formazio edota lan bila dabilenarentzat.
- **ZER EGONGO DA?** Lanbide Heziketako ikastetxeak, formazio akademiak, hainbat enpresa eta enplegu zerbitzuren informazio stand-ak, hitzaldi eta tailerrak, eta makina eta esperimentuak.
- **ZERTARAKO?** Lanbide Heziketaren berri eman eta eskualdeko formazio aukerak plazaratzeko.
- **APIRILAK 19 eta 20an, Kulturaten, Arrasaten**



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

"Publikoaren aurrean hitz egiten ikasteko etortzen dira batzuk"

"Ahozkotasunak bere legeak ditu, ez da bere irakurri edo kontatzea"



Koldo, Sentsaziozko paisaiak erakusketaren hiru argazkirekin.

Koldo Carrillo | Kazetaria eta argazkilaria

"Kolorea begietarako distrakzioa da, formak eta estrukturak modu basikoan ikusten dira zuri-beltzean"

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Edozein lekutara doala ere, argazki-kamera eramaten duen horietakoa da Koldo Carrillo (Arrasate, 1985). Kazetaritza ikasketak egin eta gero, Florentziara (Italia) joan zen argazkilaritza ikastera, eta azken urteetan *Mondraberrin* lanean aritu da.

Nola sartu zinen argazkilaritzan?

Amaren argazki-kamera zaharra hartu eta Arrasateko toki, grafiti eta gustuko nituen gauzei argazkiak egiten hasi nintzen. Analogikoan egiten nituen argazkiak, eta hasi eta bi urtera digitalera salto egin nuen.

Zer moduzkoa izan zen analogikotik digitalerako saltoa?

Argazkilaritza analogikoak xarma handia du, eta, hasiera batean, ezkorra nintzen, teknologia berrie-

kin ez naiz ondo moldatzen... Baina, eskua hartu ostean, oso gustura nabil; orain, argazkiak eraldatzeko programak erabiltzen ikasten ari naiz. Teknologia oso azkar doa, egunero teknika berriak asmatzen dituzte!

Kazetaritza ikasi eta gero argazkilaritza ikastaro bat egin zenuen.

Kazetaritza egiten hasi nintzenean ez nuen argazkilaritza alde batera utzi. Idaztea asko gustatzen zait, eta biak uztartzeko aukera ematen du kazetaritzak.

Kazetaritza bukatu ostean Florentziaren joan zinen.

Beste esperientzia bat bizi izateko beharra sentitzen nuen, eta, ikasten nengoela, Italiara egindako bidaia batean erabaki nuen Florentziara joatea. Eta gero, argazkilaritza ikastaro bat egin nuen.

Zer-nolako esperientzia izan zen?

Oso ona. Lagunak egin nituen eta bizi esperientzia polita izan zen. Argazkilaritzaz aparte, poesia, musika, museoak... Nire barneko egonezinari erantzuteko bidaia izan zen Italian bizi izandako urtea.

Horren ondorioa da Sentsaziozko paisaiak erakusketa.

Toscanan ateratako argazkiak dira, baina, nire ustez, argazkien kokapena anekdota hutsa da. Nire barnean dagoenaren isla batzuk erakutsi nahi izan ditut, nork bere barruan dituen pentsamenduekin; historia handiko paisaiak dira, denboraren iragana barnean duten argazkiak dira.

Argazki gehienak zuri-beltzean dira. Zergatik?

Azken urteetan zuri-beltzarekiko apustua egin dut. Askotan, kolorea begietarako distrakzioa da, formak eta estrukturak modu basikoan ikusten dira zuri-beltzean. Formen izaera nabarmentzeko balio du, gauza sinpleek asko esan nahi dute.

15 argazkik osatzen dute erakusketa.

Hasiera batean, bai, Arrasaten erakutsi nituenean 15 argazki ziren, baina Oñatiko Luis tabernan tokirik ez zegoenez, hiru kentzeko erabakia hartu dut. Orain, nire ustez, hobeto dago; agian, lehenengo bi erakustaldietan, Arrasaten eta Eskoriatzan, tokia betetzearren sartutako argazkiak dira.

Oraingoan, gainera, argazki bakoitzak testu bat du.

Argazki bakoitzaren ildo adierazten duten testuak garatu ditut, ikusterakoan sentitzen dudana ikusleek ulertzeko.

Beraz, ez da erakusketa itxia.

Ez; denborarekin, erakusketa janzten joan naiz. Jendeak argazki bat azaltzeko eskatzen didanean, ez dakit zer esan, aldi bakoitzean sentimendu desberdin bat azaltzen dut. Testuekin hori azaltzen dut, baina horretarako asko hausnartu behar dut, argazkiak duen guztia testu edo poema batean sartzeko.

Argazkien tamainak ere aldatzen joan zara.

Erakusketa bakoitzean zerbait ikasten da eta Iñigo Arregiren arte eta markoztatze dendan argazkiak jarri nituenean konturatu nintzen argazki batzuek tamaina handiagoa eskatzen zutela. Tamaina handiko argazkietan matiz gehiago ikusten dira.

Erakusketa beste leku batera eramateko asmorik baduzu?

Bai, maiatzean Bergarako Nahikari tabernan izango da eta urrian Eibarko Kultur elkartearen.

PERTSONALA

Zure herriko txoko maiteena: San Kristobal.

Bidaia gustukoena: Eskozia.

Egin gurako zenukeen bidaia: India eta Afrikako indigenen tribu bat ezagutzea.

Kolore bat: Morea.

Argazkilaria bat: Henri Cartier-Bresson.

Idazle bat: Charles Baudelaire.

Liburu bat: Marlo Morgan-en *Las voces del desierto*.

Film bat: Christopher Nolan-en *Memento*.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Eskoriatza. Apartamentua salgai Gaztanadui kalean. Aukera paregabea. Berri-berria, eguzkitsua eta oso eroso. Interesatuok deitu telefono hauetara: 653 71 53 58 edo 943 03 89 49

Eskoriatza. Duplexa salgai, 120 metroko. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. Interesatuok deitu telefono honetara: 679 16 24 96

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. 60 metro koadro eta bi logela. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu telefono honetara: 699 78 47 49

Soraluze. Etxebizitza salgai. Hiru logelakoa. Terraza handiarekin. 608 57 37 50

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Mitarte 8an etxebizitza ematen da errentan. Hiru logelakoa. Terraza handiarekin. 649 06 20 89

